

KULISKA SORTA



IRU POEMA

RABINDRANATH TAGORE

Euskeratzallea: AITA ONAINDIA, Karmeldarra

EDITORIAL ITXAROPENA

KULISKA SORTA

53'garren zenbakia

IRU POEMA

- 1) Illargi barria
- 2) Baratze-zaiña
- 3) Liriku eskintza

EGILLEA:

RABINDRANATH TAGORE

EÜSKERATZALLEA:

AITA ONAINDIA, *Karmeldarra*

Itzaropena Argitaldaria

ZARAUTZ'EN

1963



RABINDRANATH TAGORE

RABINDRANATH TAGORÉ

Urte bi dirala izan dogu inditar olerkari garrai onen jaiotzetiko eun urteburua: 1861¹garreanean, jaio zan Kalkuta'n. Eta gertaera au al giñoan ospatzeko, euskaldunoi be —aren eta gure izakerea ideko ei dira— ondo letorkigu zerbait egi-tera; utsune ori betetearren edo, ona iru poema euskerara biurtuta, aren onenetatik aukeratuak nunbait.

Bengala'ko erroialdi aundiki bateko seme, umetatik gogarte ta otoitz zale agerturik, olango bakardade nai bizia nabari izan eban bere barreanean.

Izatez zendun, gaiñera, olerkari ta gaztetan asi zan itz-neurtuak osotzen. Ez eban izan, alan be, bide ortatik nok lagundu. Inlaterra'ra bialdu eben gurasoak lege-ikastera; Tagoré gaztea, baiña, ez egoan egokion lekuan, eta lege-ikasteari muzin egiñik, etxe zokora biurtu zan. Emen ekin eutson barriro be olerkigintzari, ta izen ospetsuaren jabe egin zan epe laburrez. Olerki samurrak egin ebazan, garbi ta goxo, artzain-kanta ta mai-

*te-leloak. Bai ta India, bere aberria jasorik, kan-
tu errikoi sutsuak be. Ogei ta amabost urte euka-
zala, il yakon emaztea, eta andik urte bira—1904'
garrenean— alaba bakarra. A rrezkero, guztiz
jainkotiar eta jakintzazko dogu aren olerkia. Bai
ta suarra ta leguna be, gogo-barne- barnean
so^r tua, zoritxarrak eragiña.*

*Olerki, ipuin, antzerki, esaera ta abar, R. Ta-
gore'k asko idatzi eban. Azal ta mamin, goi ta
bee, idurikizun eta esan, bere kera apartekoz jan
ditu. Guztietan ederren eta ospatsuen, oste-
ra, gaur eskintzen dautz uguzan irurok: Illargi ba-
rria (Sisu), Baratze-zaiña (Kshanika-Kalpana) ta
Liriku-eskintza (Gitanjali). Liburu oneik, beste
batzuen artean, R. Togare'k berak itzuli ebazan
bengaleratik inglesera, ta gaur mundu osoko iz-
kuntzetan zabal dabilzanak dozuz. India'n ez dau
idekorik, eta Ingalterra'n bertan be gitxi baiño ez
dira a gaintzekorik. Egiazko barritzaille dogu, piz-
kunde barn baten buru; beronen poema asko ta
asko erri kanta biurtu dira.*

*Illargi barria. Iretargiak bere uneak ditu, ar-
gitu ta itzali, jagi ta etzan. Olangoxe aldakuntzak
izan oi ditu umetxoak be. Pozaren geznari da aur-
txoa. Zelako esaera sotillez eta zein jori dirausku-
zan ainbat ume-gauza!*

*Bere izen jatorra bengaleraz Sisu (ume) dozu.
Noiz idatzi ete eban? 1904'an alaba bakarra il ya-
konean, Almora'ra (Himalaya'ra) baztartu ta an-
txe borobildu eban idazti lilluragarri au. Biotza*

odol-jario, bizitza eroan eziñeraiño nunbait, ume-tako gomutaz gozatzen ei eban barren zauritua. Orrelaxe diñosku berberak. Ez da sekula idatzi ume-gogoetaz, ain samur ta sarkor.

Baratze-zaiña. Olerkitxo bizi biziak, errez egi-ñak, zirikada ta zimikoz gaiñezka, jostariak. Iza-diari soka biribilduak dira geienak, inguruko mundu bizia bait-dabe iturri berezi; bai ta berari atsegin ta eder yakon mate-gaia be. Irakurriz jauzi dagigu olerki batetik bestera, ardi gosetiak larra gurian andik ona zapart dagian letxe.

Liriku-eskintza. Guztiz 103 poema ditu. Oso barrenkoia, mistiku loraz ornidua: zorientsu da gogoa Jainkoaren aldamenean; ortarako onoime-nak sortarazo bear barne-mruiiiiean, A ta Aren iza-kiak maite izanik. Idazteunen antzeko liburua, lau alderdietatik poz-atsegin betea dariona.

Gai arria dauala ? —Euri, aize, ibai, zelai, txori, bidazti galdu, lora edegi ta zimel... onexek dituzu liburuak darabiltzan gaiak oro. Alan be, olerkari yaioak ederto nasi ta irabiatu dauskuz mataza atsegingarrian, eta ez damoskue gai arrunt eta esku-arteko orreik ezertariko ots bardin gogaikarririk. Eta auxe dozu, esan dogunez, sartaldean batez be, osperik zoliena Tagore'ri ekarri dautsona.

R. Tagore'ren bururakizunak txito kristau-ak dozuz, erlejiñoz indutar izan arren. Asko ikasi eban antza Sartaldean ibilliz ta Liburu Santuak irakurriz. Beretzat izaki maitekor da Jainkoa, gi-


zonaren billa beti. Gogo-aldaketa, asarre, ezkortasun ta indutarren liburuetan aurkitzen diran gaiñerako uste ta siñiskairik asko aitatu be ez daukuz egiten.

Ainbat itzaldi ta alkar-autu emon eragin eutsoezan munduan zear. Baiña aomenaren erpiñeraiño eldu zan, 1913'garren urtean, Nobel-saria, munduan danik eta elerti-sari garaiena eskuratu ebanean.

Gandhi'ren adiskide miña genduan. "India'ren jagole aundi", arek iñotsonez. 1941'ko dagonillaren 7' an il zan.

Euskeratzailleak

I RU POEMA



I LLARGI BARRIA

Z

SUKALDEA

Astiro niñoian ni solo bidexka zear, eguzki jau-
siak zeken antzera, bere azken-urrea gordetzean,
an zeru-ertz urdin urrutian. Unetik unera baltza-
go zan itzalean murgilduz joian argia, ta lur alar-
guna —labore batzea egiña zan— ixilik zetzan.

Bertatik, illuna ikusgaitz igaroten eban abots
zolia entzun zan goietan, eresi-aria dingiliz itxi-
rik ordu ixiltsu aretan. Alan be, sukaldea an egoan
zain aurki, zelai legorraren amaian, kañabera sail
ostean, albo ta areka bigunen zainpean, kokot-on-
do ta aran eze baltzez inguratuta.

Oin-ixil geratu nintzan pixkaten, izarren ar-
gitara. Zabal egoan lur sakona nire begi aurrean,
konta ezin ala sukalde besarkaturik, seaska ta o-
gez, ama-biotzez ta argi irazekiz, bizi-indar gazte
ta alaitsuz gainezka, gizarterako zenbat dan ez da-
kigun alaitasunez noski,

2

ONDARTZETAN

Mundu guztiko ondartzetan batzen dira umeak. Muga bako zero zabala baretsu agiri da euren buru gain ; ura, ostera, pairu bageko ta urduri, inguruan dabil nastu samar. Lurralde guztietako ondartzetan batzen dira umeak, zarataka ta dantzari.

Ondarrezko etxetxoak egiten dabez batzuk, magurio-koskoz jolasketan daragoioe beste batzuk. Arein ontzia orri legor bat, ta itxas zabal sakonera jaurtzen dabe, irribarretsu. Aurtxoak mundu guztiko ondartzetan jolastu oi dira.

Ez dakie igeri, ez sarea atondu ta edatzen. Txirla-arrantzalea urperatu oi da ta saleroslaria bere ontzian ur-gaiñez ibilli; umetxoak, bitartean, arri-koskorak billatu ta eskuratzen dabez, ta gero bota, oso urrutira. Ez dabe ondasun ezkuturik billatzen, ez dakie sarerik edatzen, zabaltzen.

Itxasoa kurkuillotu ba'dadi oi u-algaraz, ondar irribartsua dizdizka jarten da, erdi-laru. Olatu eriozkiñak, zentzun bako leloak kanta oi dautsiez umeai, amak kuma kulunka-kuluna bai'lerabil. Itxasoa umeakaz jolaska, ta ondarraren ezpan-irri larua dizdizka.

Lurralde guztietako ondartzetan batzen dira umeak. Ekaitza ara ona dabil biderik ez dauan zero zear, ontziak be zador bageko itxasoan on-

datzen dira, azke dabil eriotza, ta alan be umeak jolasean diardue.

Mundu guztiko ondartzetan batzen dira, jai andia egiñez, ume guztiak.

3

ITURRIA

Bai al daki iñok nundik datorren umearen begietan txiribiri antzera dabillen boa ? —Bai, diñoe-nez, maitagarrien baserrian bizi ei da: lore-baratz bateko itzalpean, ipurtargiz erdizka bakarrik argituta, zoragarrizko lili-pinpin bi dagoz dingilizka : loa andik bide dator, aurtxoaren begietan mun gozoa ezartera.

Bai al daki iñok nun jaio zan ume loak artu-aren ezpanetan egazka dabillen irri-barre ezta ? —Bai. Esan oi danez, udazken intzez garbiko goiz amesti batean, illargi barriaren erraiñu jantzirik, sor-erazo eban, nunbait, ume lokartuaren ezpanetan egazka dabillen irriño ezta.

Bai al daki norbaitek nun egon zan gordeta, orrenbeste urtez, umetxoaren aragitxoetan loratzen dan barri-samur gozo biguna ? — Bai. Beraren amak, neskato zala, maitasunezko misteri leun ixillez igurtzi oi eban biotza, umetxoaren aragitxoetan loratu dan barri-samur gozo biguna, nunbait.

ORRELA DOZU UMEA

Oraintxe berton, umeak nai ba'leu, egaz egin-go leuke zerura. Baiña zer-edo-zergaitik ez doa egazka. Atsegin yako nunbait amatxoren bular gaiñean burua etzatea ! Eta gero, adi-adi yagoko eten barik !

Itz zoragarri asko dakiz umeak ; mundu onetan alan be, gitxi baiño eztira arek diñoana ulertzen dabenak. Baiña zerbait-gaitik ez dau berba egin nai. Bere amaren itzak ikasi, ez dau besterik gura. Or zergaitik jartzen dauan ain betarte ez-tia !

Urre-meta bat ta txirlarri asko ebazan ume-txoak; alan eta guzti be, txiro ta ezeuki agertu zan mundu onetan. Baiña ba-eban zerbait era ortan agertzeko. Eskale billois antzera, oso aul agertu nai antza, amari aren leia ta ardura bizien diru-zakua eskatzeko edo !

Txit jara ta korapilla bakoa zan umea itargi barriaren eskualdean. Baiña zer-edo-zergaitik itxi eban bere askatasuna. Bai, arek ba-daki ondo be amaren biotz-zokoan daukan poztasun muga-eza, ta askatasuna baiño bigunago da, daukan altzo samur eta besarte estu maitatia !

Poztasunezko aroan bizi zan, ta ez ekian negar egitea zer zanik. Baiña zer-edo-zergaitik auke-ratu ebazan malkoak. Izan be, ama arduraz be-

tearen biotza irri-barreka irabazten ba'eban, edozein kezkgaitik ixurten dituan negar-tantak erruki ta maitez lotzen dabe aren izatea.

5

ERRONDA IKUS-EZIÑA

Ai !, nok jantzi dautzu, ene seme, soiñekotxo margoz ? Nok jarri dautsa zure gorpuztxoari jantzi gorrizka ori ? Gaur goizean, ziburu-ziburuka larriñera urten zara, jolasketara. Baiña, esan eizazu, nok jantzi dautzu soiñeko ori margoz, kolorez ?

Esan, arren, ene biotz-lorea, zek daragizu barre ? Poz eztitan daukazu ama, atarian geldi. Eskuak ikutzen dautzuz, ta aren apaingarriak ots dague bulunba antzera, ta zuk, ene artzaintxo, dantzan diarduzu banbu-zotza eskuan. Baiña zek daragizu barre, ene biotz-lorea ?

Eskale bai'zintzaz, zer nai dozu orrela dingilizka, esku biakaz amari lepotik oratuta ? Oi biotz txiki artega ! , zeruari mundua ebatsi, ostu nai ete dautsazu, sagar-ale bai'litzan, eta gero zeure esku barru larrosazkoan ipiñi ? Ai, eskaletxo ! , zer da, esan, eskatzen daustazuna ?

Pozez gaiñezka, aizeak ba-daroaz zure orkatil estunetako kanpai txikien txintxin-ots gozoak. Barrez daukazu eguzkia, zu orrela jantzirik ikusita. Zerua zaindari dozu amaren besoetan lo zagozan bitartean : eta goiza beatz gaiñean dator-

kizu kuma ondora, begi ertzetan mun ezta ezar-tera. Aize poz-argiak ba-daroaz zure orkatil estu-netako kanpai txikien txintxin-ots gozoak.

Ames sorgiñen amandrea be or dator egun-sentian, zeru zear, zureganaiño egazka. Mundu amaren biotz min guztia zurekin dozu, zure amaren biotzean. Zure leio azpian txirula joten dau izarren kantariak. Eta ames sorgifien amandrea or dator egun-sentian, zeru zear, zureganaiño egazka.

6

LO-LAPURRA

—Ia, nun da ori, umetxoari begietako boa os-tu dautson ori ? Neuk astinduko dot !

Ama, txanbilla eskuratu ta gerrian ezarririk, auzora joan zan uretan. Eguerdia ortxe-ortxe zan. Umeak nekatuta egozan jolasean, paitak barriz ixilik ur-zingiran. Artzaintxoa lo egoan pikoaren itzalpean. Men ta begi-zoli agiri zan zigoña, ii-sail ertzean, luze etsita antza... Eta lo-lapurra eldu zan, eta umetxoaren begietatik boa artu ta joan zan egazka. Ama itzuli zanean, lau-oinka aurkitu eban umea lo-gela erdian.

—Ia, nun da ori, nire umetxoaren begietako boa lapurtu dauan ori ? Neuk astinduko dot !

Nun gorde da maltzur alako ori ? Oratuko dautsot eta sokaz lotu. An leza illuntsu aretan, arrikote urduri artean, errekatxoak txipli-txapla da-

gian lekuan egon bear dam Bakul-oianeko gerizpe lo-erazlean billatuko dot, bai, uso-kumeak urruma gozoz dagozan txokoan, sorgiñen zintzarriak txintxin dagien gau izartu bake sakonean. Begi-zizta bat jaurtiko dot, bein gaututakoan, banbu-ibarreko ixiltasun antsiz betera, ots, ipurtargiak argi-itxaso diran lekura. Ta bidean iñor aurkitzen baldin ba'dot, galde egingo dautsot: Bai al daki iñok lo-lapurra nun gordeten dan ?

—Ia, nun da ori, umearen begietatik boa arzen dauan ori ? Neuk astinduko dot !

Nun, nun dago ? Aurkituko ba'neu aurkitu, erakutsiko neuskio nik zelangoa izan ; bai orixe ! Aren gordelekuko arria jasoko neuke, ta gero, an osturik daukan lo guztia artu ta etxera eroango neuke oso-osorik. Lapurra, ostera, txit gogor lotuko neuke ego bietatik, eta ondoren ibai ertzean laga : dabillega antxe kañaberaz arrainketan, lili, zume ta ii artean...

Ta gabaz, azoka itxi ta aurtxoak amaren magalean legokezanean, gau-txoriak ara joango litzakioz ta belarrietara burlaz ulu : Tira, geldotzar, ia orain nori ostuten dauskan loa 1

7

ASIERA

—Nundik nentorren ni, zuk aurkitu ninduzunean ? —itandu eutsan umeak bere amari.

Arek, barre-lorea ezpan-gain ta malko-ñirñirra begian, semea bularraren kontra estuturik, onela

erantzun eutson: —Neure biotzean zengozan zu, ene maite, beronen leia bizia bai zara. Nire ume-tako jostailu ta andrakilla artean zengozan; eta nik, goizero, Jainko-irudia egitorduan, irudi ortan zengozan zu be. Bai ta opari-maian be, gure etxe-ko Jainkoarekin; eta agurtzean, zeu be agurtzen zindudazan. Ots, nire itxarokizun eta maitasun guztietan zengozan. Bai, zu bizi izan zara ene N-zian, eta amaren bizian be bai. Zu zentozan, gizaldirik gizaldi, gure sukaldea gorde ta zuzentzen dauan gogo ezin-illaren magalean. Ni neskatxa nintzanean eta biotza orri-zabaldu, zu nire inguru zenbiltzan ifiarika, usain gozo. Zuk darizun samurtasun ezitia antxiña loratu yatan aragi gaztean, eguzkia kolore bizi sortaldean urten baiño len. Zerutiko len-maitasuna, egun-sentiko argiaren anai bizkia, mundura jatxi ziñean bizitzaren ibaian eta azkenez neure biotzean geratu...

Lilluraz, seme, zoratzen naz zuri begiraka, neure egin bait-zara guztia zareala; galduko ete zaitudan bildurrez naukazu. Zagoz emen, neure bular gaiñean oso estu ! Ai ! , zer sorgin-indarrek daust beso auletan munduko ondasuna ?

8

UMEAREN MUNDUA

Aurkitu al ba'neu nik zokotxo bare nasai bat ene umearen munduko biotz berberean ! An daukazala ba-dakit itz dagioen izarrak, ta arpegiraiño

jasten yakon zerua, bere odei ergel ta ostarku pello kamutsez jolasteko. Aregan iñoiz ezer ez difioen eta sekula zirkiñik ez dagien guzti orreik, bere leioraiflo datoz txirristaka ta tutu-muxu ipuiflak eralgi oi dautsoez ; bai ta zur-azpilletan opatu be margo aberatsezko jostailluak.

Egin al ba'neu nik ene aurraren pentsamenak zearkatzen dauan bide ori, bere muga guztietatik urtenda, mandatari ez-ezagunak kondaira bako erregeen aginterrietan zentzun bageko mezuak ekarri ta eroan dabilzan lekuraiño joan ; ots, errazoiak bere legeakaz upeltxoak egin ta aizetara jaurtzen dauzan lekuraiño ; egiak egitadeai euren kateak kentzen dautsiezana tokiraiño !

9

NOIZ ETA ZEGAITIK

Kolorezko jostailluak dakartzudazanean, ene seme, orduan konturatzen naz zergaitik dan ainbeste margo-joku odei-uretan, eta lorak zergaitik dagozan ain dizditsu j n fzita... Kolorezko jostailluak dakartzudazanean, ene seme.

Kanta kantari diardudanean, ene maite, zuk dantzatzeko, orduan digart nik orriak zergaitik bizi diran eresi uts, eta olatuak zergaitik doazan kanta ta kanta lurraren biotz arrigarriraiño... Kanta kantari diardudanean, ene maite, zuk dantzatzeko.

Zure esku ase-eziñok, ene seme, nik gozokiz betetean, orduan bai dakidala zergaitik dagoan ez-tiz gaiñezka lore-muiña, eta igaliak zergaitik as-tuntzen diran, ixil-ixilik, gurin samur ezkotsuz... Zure esku ase-eziñok, ene serne, nik gozokiz be-tetean.

Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene rnaite, zure ezpanak irribarrez loratzeko, orduan dakit zein dan goiz-argian zerutik darion atsegiña, ta uda-aizeak nire gorputzari dakartsoen gozota-suna... Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene maite, zure ezpanak irribarrez loratzeko.

IO

IZEN TXARRA

Ez egizu, ene seme, negarrik egin. Oker gaiz-toak dira nunbait, beti, errazoi barik, agirika daukazuzanak ! Zikifia deitzen dautzue, idazten zengozanean atzamarrak eta arpegia tintaz orbandu zenduzalako? Eta ez dira lotsa? Illargi barriari, arek bere arpegia tintaz baltzitu daualako, zikiña deitzen azartuko ete litzakez ?

Ene seme, edozertxogaitik errudun egiten zaitue. Bai, zure edozer txarto deritxoe. Jantzitxoa urratu dozula, jolasketan ? Eta origaitik, urratzaille deituko dautzue? Eta ez dira lotsatzen? Udazkeneko goizagaitik, zer esango ete leukie, ba, a odei urratu ostetik irri-barreka daukagunean ?

Baiña, ene seme, ez egiezu zuk jaramonik egin. Ondo bat-banatuta daukiez bai zure utsegiteak ! Mundu guztiak daki zein gozo-zale zarean ! Eta origaitik salobera deitzen dautzue ? Eta ez dira lotsa ? Zelan deituko leuskigue, orduan, guri, zu guretzat ain atsegin izanik, mosuka jango zindukeguzan ezkerok?

II

EPAILLEA

Esan beragaitik nai dozun beste, baiña nik zuk eta edozeiñek baiño obeto dakidaz ene umearen akatsak.

Nik ez dot maite ona dalako, seme dodalako baiño. Eta zuk zelan jakin zengike bera zelako altxor dan, zuk bere irabazi ta utsak azta bardiñez neurritu nai dozuzan orrek ? Nik zigor-azo bear dodanean, iñoiz baiño neureago dot. Negar ba'daragiot, nire biotzak be negar dagi arekin batera.

Neuk bakar-bakarrrik dot eskubide osoa salatu nai nekarazteko, maite dauanak soilki zigortu dagike-ta.

I2

JOSTAILLUAK

Zori ontsua zu, auts artean etzunik, ordu luzeetan zotz orregaz jolasean zabilzan mutiko ori ! Barre egin bear nik, nai ta ez, zu goiz guztian,

orrela jostari ikusita. Nik be ordu luzeetan, bat-banatu ta bat-banatu diardut, neure kontuak ondo atera nairik. Eta ba-leiteke zuk, niri begira, au pentsetea: "Ori bai jolasketa ergela ! Goiza alperrik galtzeko gogoa, nunbait !"

Ai, mutiko ! Nik aitzua dot, aintxiñatik, zotz eta lupetz-opillezko jolasketa ! Jostaillu garestiak baiño ez ditut opa, urre ta zidar-mordoak pillatu ! Zu, aukeran dozun edozer gauzaz, pozarren jolas oi zara. Nik, ostera, aldia ta indarrak be bai, iñoiz euki ezingo dodazan gauzetan galdu daroadaz. Ene ontzitxo aulean igaro nai neuke neure gora-naiaren itxasoa ; ta aitzu egiten yat, antza, neu be olgetan, jolasean nabillela !

13

IZARLARIA

Neuk soilki esan neban: "Illuntzean, illargi bete biribilla kadabuaren adarretan nastuten danean, ezin ete geinkeo oratu ?"

Baiña Dada'k, andiagoa da-ta, ixeka egin eustan, esanik : "Ezagutu yoadaz^pn izakietatik geldoena az. Illargia oso urrin dago gugandik. Nok eskuz oratu?"

Nik erantzun neutson: "Dada, i bai azala kankaillu ! Ama leiora urreratu ta guri jolasketan irribartsu begiratzerek yauskukanean, ik uste dok ain urrin dagoala ?"

Dada'k esan eustan bigarrenez: "I bai ume iñozo ! Baiña, ikusi egik, nun aurkituko eunkek illargia bertan sartzeko aiña litzaken sare andi bat ?"

Nik ari: "Eskuakaz be arrapatuko eunkek, ziur naiagok".

Baiña Dada'k, barre-purrustadaka, esan eustan: "Ez yoat neure bizi guztian be i lango izaki txaldanik ikusi ! Illargia geiago urreratuko ba'litz, ikusiko eunkek zein andia dan !"

"Dada, zelako zentzun-bakokeriak erakusten dokazan eure eskolan !", esan neutson nik. Ama guri mosu emoteko rnakurtzen danean, ain andia iruditzen yak aren arpegia ?

Baiña Dada'k oindiño be esaten daust: "I ergel az, i ergel az !"

14

ODEIAK ETA OLATUAK

Ama, an goian odeietan bizi diranak, deadar dagiste: "Entzun, olgetan diardugu egun-asieratik amairaiño ; urrezko egun-sentiaz jolaska ari gara, bai ta zidarrezko illargiaz be !" Nik galdegiten dautset: "Baiña, zelan igon nik zuek zagozen lekuraiño, orren goi ?" Eta erantzuten daustie: "Erdu lurraren ertzeraíño, jaso eskuak zerura ta odeiakaz goratuko zaitugu !" "Ama begira daukat etxean", diñot nik, "zelan itxi nengike baka-

rrik eta igon ?" Eta areik, irrikoi, igaroaz doaz iñarika...

Baiña nik ba-dakit, ama, ori baiño jolas-era politagoa. Begira: ni izango naz odei ta zu illargi. Neure esku biakin estalduko zaitut, eta sabaia izango da gure zeru oztin.

Olatuetan bizi diranak deadar dagiste: "Egun-abarretik gau illuneraiño abeska daragoiogu ; joan ta joan goaz beti arago ta ez dakigu nora goazan !" Nik itaun dagitset: "Baiña, zelan joango naz zuekaz ain urruti ?" Jardesten daustie: "Zatoz itxas-egalera, estutu ondo begiak, itxaron, eta olatuakaz narrastuko zaitugu !" Nik diñotset : "Nire amak ez dau iñoiz be gura gaututa ni kanpora joaterik. Zelan itxiko dot eta igesari emon ?" Eta areik, barrezka zezindurik, aurrera doaz dantzari...

Baiña nik ba-dakit, ama, ori baiño jolas-joku obea. Ni izango naz olatu ta zu aretza ez-ezaguna. Pirilika ta pirilika nabilke, ta azkenez irrikoi zure bularrean ausiko naz. Eta ez dau munduan iñok jakingo gu biok nun gagozan !

TXANPAKA-LOREA

"Entzun, ama, —jolastzearren bakarrik, gero__ ni txanpaka-lore biurtuko ba'nintz, eta zuzatz orren adartxo gorenengoan edegi, ta aizean

barre-karkaraz kulunkatu, ta osto barri gaiñean dantzatu, ni nintzakenik jakingo ete zeunke, ama ?" Zuk dei egingo zeuskit: "Ume, nun zagoz ?" Eta nik barre egingo neuke neure kautan, eta geldi-geldi egon. Txit astiro zabalduko neukez neure orriak, eta zu ikusiko zindukedaz lanean.

"Bustialdia artu ondoren, ule ezkotua zeure sorbalda gaiñean zabal, txanpakaren gerizpean zear otoi egin oi dozun oxin txikiruntz joango zinakezanean, somatuko izencLuke, ama, lorearen usain gozoa, baiña nik jariona zanik ez zeunke jakingo. Bazkal ostean, zu leioan jarrita Ramayana irakurten zengokezanean, eta nire zugatzaren itzala ulean ta altzoan zuri emon, nik neure itzaltxo pitiña zure liburuaren orrian jaurtiko neuke, zu irakurten zengokezan lekuan atan be. Baiña, zuk igarriko zeuskio zure semearen itzaltxoa danik ? Illuntzean, argontzia ixeturik, okullura zinakezanean, ni beingoan barriz jausiko nintzake lurrera ta barrero zure aur izan, eta ipuin bat esateko eskatuko neuskizu".

"Nun egon az i, gaizto ori ?" "Ez dautzut esango, ama", alkarri esango geunskio.

i6

MAITAGARRIEN LURRALDEA

Iñok ba'leki nun dagoan nire erregearen jauregia, aidean urtuko litzake jauregi ori. Zidar zuri dira aren ormak, urre zuri aren gainkia. Nire

erregiña, zazpi barrube daukazan egoitzean bizi da ; ta zazpi aginterriak balio eben aiña ordaindu bear izan zan arek daroan bitxia. Baiña itxi, arren, ama, ta ixil-ixilik esango dautzut nun dagoan nire erregearen jauregia. Begira : an, albaaka ontzia nun ? Antxe, etxe-gaiñeko bazter aretan dago.

Errege-alaba lo datza, sekula iñok ez ibilli ez ikusi bako zazpi itxasoen azken-ondartzan lilluratu. Ezin dau iñok ludian, neronek ezik, idoro. Entzun: apainki dotorez estalita daukaz besoak, eta txirlarri-tantak belarrietan. Aren ule-mataza joria beeraiño eltzen yatzu. Nik neure makiltxo miresgarriz ikutzean, orduantxe itxartuko da ; eta erribarre egitean, bitxiak jausiko yakoz ezpanetatik. Baiña itxi, arren, ama, ta ixilka esango dautzut : errege-alaba, an dago, albaaka ontzia aurkitzen dan etxe-gaiñeko bazter aretan.

Bustialdirako ordua dala-ta, ibaira zoazanean, ama, zatoz ona gora, etxe gaiñera. Ni jarrita nagoke, hegira, an orma bien itzalak alkartzen diran lekutxoan. Katemeari izten dautsat bakar-bakarrik an egoten, neugaz batera, katemeak bai daki nun bizi dan ipuifietako bizargillea. Baiña itxi egidazu, arren, ama, eta esango dautzut nun bizi dan ipuifietako bizargillea : an bizi da, albaaka ontzia dagoan etxe-gaiñeko bazter aretan.

ERKATUAREN ABERRIA

Ama, begira, zein illun biurtu dan zerua ! Eguneko ze ordu ete ? Jolasez gogait eginda nago, bai,

ta zugana nator. Ez al dakizu zapatu dala, eskola gabeko eguna ? Itxi lanari, ama ; erdu, tira, jesarri zaitez neugaz leioan, eta konta egidazu ipuin bat. Esan, ama, nun zan, ni ez naz gogorutzen, nun egoan Tepantar'ko basamortua.

Euriak goibel jarri dau arratsa, iparretik ego-raiño. Zelan txatxamurtzen dauan zerua, atzazkal gorriz, oiñaztu amorratuak ! Odeiak durundu dagienean, ama, atsegin yat biotz-aul sentitzen, ta ni bai goxoro zure ondoan geldi ! Eta euria ekin eta ekin ordu luzez, nekaturik, banbu-orrietan ots bardintsu dabillenean, eta aizeak intziri-mintziri leioetan dardar, ni bai ezti-bitsetan, ama, zure etzanguan bakarrik, zuri Tepantar basamortuko ipuiña entzuten !

Esan, ama, nun dago ? Zein itxasoko ondartzan, nungo mendiaren azpian, zein erregeren aginterrian aurkitzen da Tepantar basamortua ? An ez da egongo —ziur naz—, emen lez, solo ta landak zarratzen dabezan lango esirik, ezta illun-abarrean nekazariak etxera itzultzean eta oianean bizi dan emakume egurgiñak bere egur-sorta zeira ekarteko egin daroan bide-zidor onein lango-rik be. Bedar oriztaz laukiak ondarrean, eta txori zar jakintsu biak abia daukien zugatz bakarra, besterik ez da egongo Tepantar basamortuan.

Niri, ama, zoragarria iruditzen yat, gaur lako-xe egun laiñotsu batez, errege- seme gaztea bakarrik basamortu zear bere zaldi zidar arrean lau-oinka, iñok ikusi ez dauan itxasoz andiko gazteluan erraldoiak gorderik daukan errege-alaba bila. Esan, ama: euriak bere zapiz zeru-azkena es-

taltzen dauanean, eta oiñaztuak eztenkada zorrotza iduri, saltu dagianean, errege-semea gogoratu e te da erregek bertanbera itxi dauan ama gaixoaz ? Okullua giñarrez garbitzen diardu onek eta begiak zapiz legortzen... Eta bere semea, Te pantar basamortuan barna lau-oinka, oroituko e te ama gaixoaz ?

Ama, begira, oindiñok egunak dirau ; baiña, gaua noiz jausiko. Ez dator iñor auzoko bide zear. Artzaintxoak itxiko zituan onezkero Iarre ta zelaiak, eta orain etxean dagoke. Soloetako gizonak be lanari itxi ta azpikietan etzan dira euren txa boletako itzalpean, odei itsusiei begira. Orain, ama, ez egidazu ikastekorik esan ; itxi nasai liburuak, mai gaiñean. Neure aita lez andi naitenean, ikasi bear dan guztia ikasiko dot. Baiña gaur, gaur ba karrik, ama, esaidazu, ez naz ba gogoratzen, Te pantar'ko basamortua nun dagoan !

18

EURI-EGUNA

Odei ixillak pillotuz doiaz arin-aringa, basoko goiertz baltzizkan. (Ez urten, ume !) Zingira-ezpana lerroz lerro inguratzen daben palmondoak zabuka dagoz, lotan lez, zeru ituntxoari buruz. Muturik itxas-kaioak, ego loiak bilduta, tamarindoa ren adarkimuetan. Itzal bat be, gero to sakonago, ibaiaren sortalde-muturrean dabil errondari.

(Entzun, esiko erromaran lotuta dagon beiak orru dagi amorru bizitan ! Seme, itxain emen, kortara eroatera noia-ta). Astrapaladan doiaz gizonak zelai, solo ta landa ureztatu zear, ur-maeletatik urtendako arraiñak artzera nunbait. Errekaztoak egiñik doia ura bidexkaetan ; jolas antzo amagandik iges egin dauan ume irribarretsua dirudi.

(Ixillik ; ontzidunari deiez dago norbait, ubidean ! Egun-argia, barriz, joan doa, seme, ta ontzia itxita daukagu !) Itxura danez, lau-oinka datorren euri zoroaren gaiñez dabilkigu zerua, zamari bai'litzan. Ibaia, eroapen bage, nastu ta rrosi yaku. Emakumeak iraduz, ariñeketan datoz Ganges'tik, edarrak sorki gaiñetan.

(Argiak gertutzera noia, gaur goizetik illuntzen dau-ta ! Ez urten, seme !) Azokako bidetik ez dabil arimarik. Errekara jasten dan kalea irristakor dago ta errez labantzen. Orruz daukazu aizea ; sare artean arrapatu pizti bat dirudi banbu-ostotzan burrukari.

INGIZKO ONTZIAK

Egunero, neure ingizko ontzitzoak jaurtzen ditut, bata bestearen atzetik, ur-beera. Izki baltz andiz margotuta neure izena daroie, bai ta neure erriarena be. Eltzen diran ondartza ez-ezagunean norbaitek aurkitu ba'daiz, jakingo dau arek ni nor nazan. Ene etxeko baratzean azitako siuli-loraz be-

terik doiaz nire ontzitxoak ; eta, ziur nago, goiz-urratzean batutako lore-pipil oneik, gabea, onez elduko dira lurrera.

Ur ibillian jaurtzen dodaz neure ingizko ontzitxoak, eta begiak zerurantz jasotzen dodazanean, arat-onat dabiltzan odeiak ikusten ditut, euren oial zuriak aizez beterik dabezala... Ez dakit nik zerutiko fire zein adiskidek botaten dabezan aize-beera, nire ontziaz ibilli daitezana... Illunkeran neure esku artean arpegia gorderik, ames dagit, ames nire ingizko ontziak ur gaiñez doazala gero ta urriñago, gau erdiko izarpean. Ames-maitagarriak zuzendu daroetz, lillurakorrezko otzaratxoz gaiñezka.

20

ARRANTZALEA

Madu ontzidunaren txalupa geldi dago aspal-ditik Rangun'go kaian, yute-zama banandu bari. Madu'k akuran edo alogerez itxiko ba'leust bera, eun arraun eta bost edo sei aize-oial ipiñiko neuskioz, eta neuk eroango neunke oso eratsu. Ez neunke, baiña, itxasegingo azoka txaldan orreitarra, zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak zearkatu ta igaro baiño !

Alan be zuk, ama, ez dozu bazter orretan nigaitik negar egingo, ezta alan? Ez naz gero ni izango Ramatxandra lez ; arek bada, basora joanda, amalau urte egin ebazan etxera itzultzen ! Ni ipuifietako erregegai izango niaitzu; atsegin ya-

tazan gauzaz ontzia beteko dot, eta adiskide Asu be neugaz daroaket bertan ! Eta kanta-kantari zearkatuko doguz zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak !

Goiz-goizetik, egun-sentian, itxasoratuko gara. Eguerdirako, barriz, gu Errege ez-ezagunaren lurraldera elduak gara aurki. Gero, Tirpurni'ko itxas-adarrari ikutuz, Tepantar'ko basamortua atzean itxiko dogu. Gu etxera biurtu orduko illundua dagoke. Eta guk ikusia oro edestuko dautzut ! Eta zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak zearkatuko ditut !

2I

BESTE UR-ERTZA

01 !, irrikan ta opa biziz nago ibaiaren bestaldera joan naita ! Batel areik, lerroz lerro, banbutaketetatik lotuta endu dagozan ur-ertzera joan nai neuke ; goizero an, ur zear doiaz igeri, areak lepoan, urriñetako solo-lanetara, gizon beargiñak ; abere-zaiñak be, talde orrutsuakaz, iñarika igarotzen dabe ura, ertzez-ertz larratzeko. Illuntzean gero, andik biurtzen dira etxera guzti-guztiak, ugarte suileko bas-bedar artean txakalak urubi ta arrama dagielarik.

Ama, bardin ba'dautzu, nik, andi egitean, enada orren ontzikari izan nai neuke.

Diñoenez, zingira aparteko batzuk aurkitzen dira ur-ertz garaitsu orren ostean; eta araxe doiaz

antza, euriak amaitzean, aate basati saldoak ; ur-txoriak be antxe erron oi dabez arrautzak, ertze-ko iitza zarratuan ; bai ta buztan-zutak be, antxe itxi daroez euren oin-lorrazak basa garbi-bigunean ; antxe, illun-abarrean, olatu gaiñez ibiltera dei dagio samur illargi-izpiari lore zurizko kukuts-dun bedar jagiak...

Ama, bardin ba'dautzu, nik, andi egitean, enada orren ontzikari izan nai neuke.

Orduan, bai, milla bider gitxienez, igaroko naz ertz batetik bestera, ta uretan dabiltzan auzoko neska-mutikoak arrimen andiz begiratuko daustie. Eguzkia ortzean gorenengo gangan legoke-nean, eta goiza eguerdira eldu, zoli-zoli etorriko naiatzu pizkaten, eta au esan ; "Ama, emoidazu zerbait jateko I" Arrastian, sartaldea itzali ondoan, gerizak zugatzpean kukutzean, itzuliko naz ni illun-min. Eta ez naz geiago zugandik iñoiz al-denduko, ezta, nire aita lez, urira lanean joateko be.

Ama, bardin ba'dautzu, nik, andi egitean, enada orren ontzikari izan nai neuke.

LORAEN IKASTOLA

Bagillean, curia zaparradaka ta odei baltzak marru-otsez zeru zear dabiltzanean, eta sortaldeko aizea, basamortuan bustita, banbu-adar ar-

tean txirula jotera datorrenean, bertatiko iskanbillez agertzen dira lorak, nundik jakin ez; eta gero, dantzaka asten yatzuz, bedar gaiñean, poz-dardar ta zoroza.

—Amatxo: lorak, nik uste, lurpeko ikastolaren batera joango dira, ezta alan? An, atea itxirik, ikasgaiak ikasiko dituez. Eta ordua baifio len jolasketara urten nai ba'leukie, euren irakasle andereñoak bazter baten ipiñiko ditu belauniko. Baiña, euriak datozanean, areik bai jai-egon ederra !

Ara, karrask-ots bizian dabiltz adarrak zugaztian ; ostoak murmur dagie aize zoroak astinduta ; trumoi-odeiak txaloka diardue euren esku zakarrak gora ta beera... Lora neskatillak, barriz, landara doiaz arin, gorri ta ori ta zuri jantzirik...

—Entzuizu, ama : lorak zeruan eukiko dabe euren etxea, izarrakaz, ezta alan ? Begira, bestela, arein gora-nai leiatsua ! Eta zuk ezetz jakin, zergaitik doiazan ain bizkor ! Nik bai, ba-dakit ! Besuak nori luzatzen dautsiezana be bai, ba-dakit nik. Lorak be ama bat daukie, nik zu zaukadan lez.

MERKATARIA

Egizu, ama, ni errialde ez-ezagunetan zear noi-ala ta zu etxean geratzen zareala bakar-bakarrik. Irudiz baiño ezta be, koskondu egizu nire itxas-ontzia, goraiño gauzaz beteta, nasan (portuan) zain

daukodana. Orain, gogoratu egizu ondo, ama: Onuzkoan, zer nai zeunke nik zuri ekarte a ?

Ama, esaidazu zer gura zeunken. Urre-meta ta pillo andiak ? Ni noian lekuan, ba, urrezko ibaiak dabilta ara ta ona, urrezko gariz gaiñezka dagozan solo ta zelai artean. Eta basorako bide illunean, lur guztia estaltzen dabe txanpaka lore beilegiak. Neure eun zimeretan batu ta zeuri ekarriko dautzudaz danak.

Nai dozuz, ama, bitxi andiak, udazkeneko euri-tanta baizen andiak ? Ni, ba-dakizu, bitxien ugarteraiño eldu bearra naz. An, goiz-goizetik, len-argia urratzerakoan, zelaiko loretan dardardantzau daukozuz bitxiak ; bedar gaiñera jausten euretarik eundaka ; ta olatuak be, zorozkarro, bitxiak ereiten dabez ondar gorrian, itxas-bitsagaz nastean.

Nire anaiari egodun zaldi-bikotea ekarriko dautsat, odei ta laiño gaiñetik egaztu daiten. Aitari, barriz, luma bat ekarriko dautsat, berak ez dakiala idazten dauan luma lilluratua. Baiña zuretzat, ama, zazpi erregeen aginterriak erosteko bear izan ziran diru-altxorra ta gorde-kutxa neuretuko ditut.

EREGUAK

Ni, ama, zure seme izan bearrean, txakur mirriza baiño ez ba'nintz, zure aspilletik jan gura ba'neu, "ezetz" esango zeuskit ? Mintzo, zeure on-

dotik jaurtiko nindukezu, au esanaz : "Oa bein, txakur madarikatu ori !" Bai? Bada zoaz zu, ama, zoaz zu. Gaurtik ez niaitzu etorriko geiago zuk dei egitean, ezta ez dautzut itxiko niri jaten emoten be !

Ni, zure seme ordez, loritu orlegi baiño ez ba' nintz, esan, ene ama, zuk loturik eukiko nindukezu egazka joan ez naiten ? Atz-zut akar egingo zeuskit, onela esanik : "Txori gaizto doakabo ! Gau ta egun osoan bere kateari pikoka !" Bai? Orduan zoaz zu, ene ama, zoaz zu. Ni landara joango naz egaz, ta ez dautzut geiago itxiko zeure beso artean ni eukiten !

25

BARNE-DEIA

Goiz guztietan, ezkillak amar jo ta ni eskolara noanean, kalean topo dagit saltzaille bategaz; beti diño bardin: "Eskuturrekoak, zidarrezko ta leiarrezko eskuturrekoak !" Egundo ez dabil aringa, iraduz ta leiaz; ez doa nai dauan lekutik baiño ; ez dau iñok toki batez a eldu-erazten, ezta bere orduan etxera itzultzera beartu be...

Nor litzaken saltzaille, eguna kale zear emoteko, onelango oiuz : "Eskuturrekoak, zidarrezko ta leiarrezko eskuturrekoak !"

Lauretan, eskolatik biurtzean, arrastiro begiraten dot an dagoan etxe atako ate zulotik zear,

eta ortulaua dakust (ikusten dot) baratzeko lurra atxurtzen. Berak nai dauana dagi atxurragaz, nai bestean autsez loitu daroa bere soiñekoa, ta eguzkiak baltzitu egiten dauala esaten iñor be ez yoa-ko, ezta urak bustiten dauanik be...

Nor litzaken ortulaua, arratsalde guztian, iñok eragotzi baga, baratzean atxurtu ta atxurtu ekiteko !

Amak, illunduaz batera, ogera bialtzen nauanean, gau-zaiña dakust leiotik, gora ta bera, jago-ten. Illun ta bakar dago kalea, eta argontzia (parola) zutik dago, kolorezko begi bakardun erraldoi antzera. Gau-zaiña ara ta ona dabil, bere argontzia kulunkatuz ondoko kerizpeaz, eta ez dau egundo be ogeratu bearrik.

Nor litzaken gau-zaiña, gau osoa kalean be-rra, kalean gora emoteko, neure argontziaz itzalak uxaturik !

NAGUSITASUNA

Ama, zure neskatoa alotza da. Ergel uts gai-xoa ! Ez daki oindiño kaleko argiak eta izarrak bereizten !

Arri koskorrak jatera jolasten ba'gara, egiaz janari dirala uste dau, ta iruntsi gura dauz. Neure liburua aurrean ta abeze ikasi bear dauala ba' dirautsot, orriak apurtzen dautsoz, eta gero, gau-zarik oiezkoena egin ba'leu lez, orru dagi poza-

ren pozez. Asarre dagitsot orduan buruari eragiñik, eta gaizto-gaiztoa dala diñotsat... Eta arek barre ostera be, ta jolasketa alai baten diardugula iruditzen yako.

Mundu guztiak daki jakin aita ez dagaala emen. Baiña nik, olgetan, ots ba' dagit : "Aita !", ingurumari begiratzen dau zoro antzean, eta aita alboan daukala siñisten dau. Nik erropatan datorren garbitzaillearen astotxoai ikasgaiak artzen diardudalakoa egin ta zure neskatoari neu nazala maixu diñotsodanean, geiagoko barik garrasika asten da, Dada ! Dada ! niri dei egiñik.

Ondoren, zure neskatoak illargia arrapau nai. Ganes'i Ganus deitzen dautso, eta gauza oso bixia dala iruditzen yako. Ergel uts gaixoa! Ama, zure neskatoa alotza da.

27

GIZONTXOA

Txikiña naz ni oraindik, ume nozu-ta. Baiña neure aitaren adiñera eltzean, andi izango naz. Nire maixuak, orduan, etorri ta esango daust: "Berandu da, ume ! Zoaz arbel eta liburu-billa !" Eta nik erantzun: "Ez al dakusu aita lez andi nazala ? Nik ez dot geiago ikasgai bearrik !" Eta nire irakasleak, arri ta zur, jardetsiko: "Bai, egia diñozu ! Nai ba'dozu, itxi zeinkez liburuok, onez-kero gizon egiña zaitugu-ta".

Jantzi ta azokara joango naz egurastera; azoka ingurua, barriz, jentez gaiñezka aurkituko dot. Osaba etorriko yat ariñeketan, eta esan: "Galduko zara, ene seme. Itxi egidazu, otoi; besoetan eroango zaitut !" Eta nik erantzungo dautsat: "Baiña, osaba, ez al dakusu aita baizen andi nazala ? Bakarrik etorri bear dot azokara". Eta osabak: "Bai, egia da. Zoaz noranai araxe, onezkerogizon egiña zaitugu-ta".

Amak, ezkotegitik biurtzean, nik neure giltzez kutxa edegiten dakidan ezkerog, ugazabandrari dirua emoten aurkituko nau. Eta esango daust: "Zer egiten dozu, zoro orrek ?" Nik erantzungo : "Baiña, ama, zuk ez al zenkian? Ni, aita lez, andi nozu dagoneko, eta neure ugazabandreari ordaindu bear dautsat". Eta nire amak bere kolkorako : "Emon dagiola dirua nai daunari, onezkerogizon egiña baita".

Urrilleko opor-aldietarako, nire aita etxera itzuliko da, ta ni oindiñokarren ume nazala uste izanik, oski barri ta zikiriozko jantzitxoak ekarriko daustaz. Eta nik esango dautsat: "Dada'ri emiozuz, aita, ni zu baizen andia nozu-ta". Eta aitak, bere baitan gogartuz : "Egia da. Errazoia dau. Berak erosi daike, onezkerog, berari ederren yakon jantzia, gizon egiña da-ta".

AMABIAK

Ama, nik ez dot geiago ikasi nai ! Goiz guztian liburu onegaz !

Amabiak baiño ez dirala diñozu zuk. Bedi, baiña areago ez ba'litz be, begira : zuk ez al daki-zu, eguerdira ezkerro, arrastia dana ?

Niri oso errez yat eguzkia an arroz-sail aren atzanean dagoala iruditzea, bai ta arrantzale zarra urtegi ondoan dabillega be, aparitarako bedartzar billa.

Ara, nik begi biak itxi ta madarraren itzala gero ta baltzago begitantzen yat, idoi edo potzuko ura be baltz-dizditsu biurtu da.

Gabaz be amabiak izan ba'daitekez, zergaitik gau ez izan am.abietan ?

29

IDAZLEA

Aitak, zuk diñozunez, liburu asko idazten ditu, baiña nik ez dot arek idazten dauan tautik be aituten. Gau osoa egin dot zuri gauzak irakurten. Esaidazu, ta zuk ulertzen zendun berak esan nai ebana ? Zuk bai dozula, ama, ipuin-jario ederra ! Zergaitik ez ete dauz, aitak be, orrela idazten ? Bere amak ez ete eutson iñoiz be edestu erraldoi, maitagarri ta errege-alabaen kondairarik ? Edo aitzu egin ete yakoz guztiak ?

Egunik askotan, eun bider gitxienez deiegin bear dautsazu ezkotegira baiñu artzen joan daiten. Eta jateko be zain zagokioz, eta barrero berotu bear izaten deutsazu janaria, eta berak idatzi ta idatzi

oroz aitzurik. Beti jolas bardiñean, liburuak idazten ! Baiña ni bein bertan ba'noakio, gelara jolas-zurrean, bertatik zoaz zu nire billa, garrasi baten esanik: "Biurria zaitut, seme !" Zarata pizkat atara ordukoxe zuk diraustazu: "Ez ete dakuszu aita lanean dagoala ?" Ai, ez dakit zer atsegin izan daikean beti idatzi ta idatzi !

Eta nik aitaren arkatza naiz lumea artu ta bere antzera a b e g i j k l m n ñ o p r idazten jarten nazanean, bere libururen batean batez be, zer dala-ta orrelan sumintzen zaiataz, ama ? Ari ez dautsazu egundo be asarrerik egiten idazten daua-lako ! Antza danez, ez dautzu ardurarik arek ainbat ingi, paper alperrik galdu arren. Nik, oster, orritxu bat bera artzen ba'dot ontzi bat egiteko, or zaukadaz agiraka : "Zoratu bear nok, seme !" Eta aitari, ainbat orri alderdi bietatik izki baltzak egiñik ondatu arren, ez dautsazu ezer esaten.

KARTERU TXARRA

Ama, esaidazu, zergaitik, zagoz ain ixil ta goibel, or zelaian jarrita ? Ez dozu ikusten, euria leitotik sartzen yatzula, ta bustiten zagozala ?

Entzun, totoa laurak joten dago ta anaiak, onezkero, eskolatik etorri bear dau. Zer dozu, ama, esaidazu; zergaitik zagoz ain zera ? Gaur ez ete dozu aitaren eskutitzik izan ?

Erri osoak euki dau gaur kartaren bat, neuk ikusi dot. Aitaren kartak, eskutitzak, bakar-bakarrrik gordeten ditu zorro baten, berak irakurteko. Ama, karteru ori okerra, gaiztoa, txarra dozu, ziur nago !

... Baiña, origaitik, ama, etzaitez illun egon. Begira, biar or urreko errian azoka eguna da. Doala neskamea ta erosi dagizala luma ta papera. Neronek idatziko dautzudaz aitaren karta guztiak. Eta ikusiko dozu, zelan ez dozun aurkitzen uts bat bera be.

Zuzen-zuzen idatziko dautzut A'tik K'raiño. Zer dala-ta, barre zuk, ama ? Zuk uste dozu nik ez dakidala aitag baizen ondo idazten ? Ikusiko dozu, ba ; ol-ertzez marratuko dot papera, ta arduratsu idatziko dot, izkiak (letrak) oso andi egi ñik.

Eta amaitzen dodanean, aitaren antzeko arlo-te izango nazala uste dozu karteru motz orren zakura idazkia botatzeko ? Nik neuk ekarriko dautzut bertatik, eta pizkaka-pizkaka irakurten lagunduko. Karta-zaiñari ez yako eder, badakit nik, kartarik onenak zuri emotea !

GIZURENA

Egizu zuk, ama, itzul-bira bat dagigula ta errialde ez-ezagun arriskutsu bat zearkatzen dogula. Zu jarrita zoi az zeure aulki-agan eta ni zure

alboan nabil taka-taka neure zaldi margodunear: Eguzkia jatxiz doa, arratsa illunduaz. Gure aurrean, bakar ta arre, Yoradigui basamortua edatzen da. Ingurumari legor ta arriabar oro. Zuk pentsetan dozu izutua : "Seme, ez dakit nun sartu garean". Eta nik diñotzut: "Ez zaitez bildurtu, ama".

Zidorra estu ta bigurra da, ta sasiak oiñak urratzen dabez. Abelgorriak itzuli dira dagoneko lau zabaletatik euren auzo-okuilluetara. Gero ta illun nasiagoak dira zeru ta lurra, orrezkero ez dogu ikusten nundik goazan. Beingoan, zuk dei dagistazu, aopeko esanaz : "Zer argi ete da, seme, an ur-ertzean dagoan a ?"

Alarao izugarri batek zart illun-sabelean, eta itzal amilkor batzuk datorkiguz gaiñera. Zu osoan kukurtzen zara zeure aulki-agan eta jainkoen ize-nak bir-esaten dozuz otoizka. Lepo-gain zaroezan Inorroiak elorri ostean gordetan dira izu-ikaraz. Nik oiudagitzut: "Ama, ez ikaratu, ni emen naukazu-ta !"

Gizerailleak gero ta urrago dagoz, ule-latz, igun (lantza) luzez orniduta. Nik deadar: "Geldi or, gaizkiñok ! Oinkada bat geiago ta illak zarie !" Beste garrasi lazgarri bat, eta bide-lapurrak gaiñean doguz. Zuk, zirgit egiña, eskutik oratuta diñostazu : "Ene seme ! ene bizia ! Jainkoarren, iges emetik". Nik erantzuten dautzut: "Ama, begira. Ikusiko dozu !"

Orduan, aztalez, astintzen dot neure zaldia, ta onek jauzi, saltu dagi asarrekor. Zaratatsu alkar

joten dabe nire ezpata ta beso-babeskiak. Burrukan diardut ikaragarri; zuk, ama, ikusiko ba'zendu zeure aulki orretatik, ikararen ikaraz izoztuko zintzakez. Batzuk iges doaz, beste batzuk zati eginda jausten dira. Zuk, bien bitartean, ba-dakit nik, usteko dozu zeure aulki ortan jarrita, bakar-bakarrik, zure semea illa dala. Ontan ni biurtzen naz, dana odoldua, ta diñotzut : "Ama, amaitu da burrukea". Zuk orduan, jarleku barrutik urten, zeure bular gaiñean estutu ta diraustazu mosukatzen nozula: "Onezkero, zer izango nintzakean, ene semeak zaindu ez ba'nindu?"

...Egunero jazoten dira onango gauzak. Zergaitik gerta ez bein onango zerbait? Liburuetako ipuin bat lez izango litzake. Nire anaiak esango leuke: "Baiña, al ete? Nik onen erkintxo uste nebana !" Eta erriko gizonak bein eta barriro: "Zorion andia izan zan, egiaz, umea bere amagaz ego-tea".

32

ATZENA

Ama, ni ba-noa, ordua dot-eta... Zeure umearen billa, goiz bakarreko illuntasun kardenean, zuk zeure besuok oge-gaiñez luzatzean, nik esango dautzut: "Umerik ez daukazu or ! ". , . Ama, ni ba-noa.

Aize bigun biurtuko naz, zu laztantzeko; zu baiñu artzera zoazanean, ni ur-balaka izango, zu mosukatuz iñoiz be aspertu barik. Ekaitz-jasa

gauetan, euriak orri artean murmur dagianean, zuk oetik entzungo dozu nire intziria, bai ta nire irribarreak tximistakin dirdir egin be zure leio edegian.

Zeure semea gogotan dozula, gau ordu luzeak lokartu barik emoten ba'dozuz, an izarretatik eresi joko dautzut nik: "Lo, ama, lo". Itargiaren izpian etorriko niaitzu : zure oera joan ixil-ixillik, eta, zu lo zagozala bular ondoan etzungo niaitzu. Gero ames biurtu ta zure betazal bitartetatik zear zeure atsedenezko ondarreraiño murgilduko naz, eta zuk izuturik itxartu ta albora begiratzean, illuntasunera iges egingo mitxelata antzo dardar-ikara leunez.

Puja'ren jai andian, auzokoaren umeak jolas-tu naita etxera etorriko yakuzanean, txirularen zarata oskidetsuan urturik ixuriko niaitzu ta egun. osoz zure biotzean intzirika jardun. Izekoak, esku-erakutsiak ekarriko ditu azokatik, eta itandu: "Eta umea, aizta, nun dozu ?" Ama, ta zuk esango dautsazu, gozo-gozo: "Neure begi-ninietan dago, neure gorputzean dago, neure ariman dago".

DEIEZ

Neskatxa joan zanean gau illun zan, eta lotan egozan danak. Orain be gau illun, ta dei dagitsot: "Itzul zaite, alaba, ene maitasun. Mundua lo dago

ta iñok be ez dau jakingo, unetxo baten, izarrak alkarri begira egozala, zu etorri ziñanik".

Zugatzak loraz jaztean joan zan, udabarria be oraindik neskatil zala. Lorak osoan zabaldu dira arrezkero, ta nik dei dagitsot: "Itzul, ene alaba. Aurrak loraketan dabiltz, eta zoratzeraíñoan jolas egiten dabe, areik bota ta bota. Zu loratxo baten billa etorri ba'zatoz be, nok batxo orren utsunea igarriko ?

Bizia bai ondatzaille ! Orduan jolasten ziranak, gaur be orrela diardue. Neuk dantzut arein soiñu ta bane algara, eta deiez naukazu: "Itzul, ene alaba. Maitasunez gaiñezka dago zure amaren biotza, eta etorri ba'zentorkez, mosutxo batgaitik ez zaitu iñok begitan artuko".

34

LENENGO JAZMIÑAK

Jazmin oneik, jazmin zuri oneik !... Lenengo aldiz dirudi bete yatazala eskuak jazmiñakaz, jazmin zuri oneikaz.

Maite izan ditut gaiñera eguzkiaren argia, zerrua ta lur muskerra. Ibaiaren leiar marmalaria entzun dot gau-erdiaren illunean. Bakartadeko bide-oker-unean, udazkeneko eguzki-sartzeak bidera urten daust, emaztegei batek baietz esateko bere buru-zapia edegiko ba'leust lez...

Baiña nire oroimenak gozo dirau oraindik neurre aur-eskuetan euki nebazan len-jazmin zuri areikaz.

Zenbat egun alaikor nire bizian ! Nik bai barre zori ontsuakaz, jai-gauetan ! Zenbat kanta abestu dodan astiro, euritan, goiz arrez ! Eta bakulazko illunabar sortak apaindu daust samea, maitezko eskuz eundua...

Baiña nire biotza usaintsu dago oindiño, nire aur-eskuak bete ebezan len-jazmin eze areikaz.

Jazmin oneik, ai, jazmin zuri oneik !

35

PIKONDOA

Esaidazu, urmael ondoan zutik dirauzun pikondo soil-uldua, zure adarretan abi egin eben txoriak itxi ta aztu zaituen lez, zu be umeagaz aztu ete zara onezkero ? Gaur ez zara gogoratzen, bear bada, zelan jarten zan leioan, lurrari oratzen dautsoen zure suster orrein naspillak sor ta lor eukalarik ?

Emakumak urmaelera etozan euren usulak, erradak urez betetera, ta zure geriza luze baltza uretan biurtzen zan, loak itxartu nairik burruka dagian lez. Olatu pitiñetan dantzatzen zan eguzkiaren argia, anezka txiki urduriakaz urrezko miesa bat euntzen ba'liardue. Ertzez-ertz, bedar zut artean, aate bik uger egien euren itzal gain...

Eta umea jarrita egoan, geldi ta gogoz galdua... Aize izan nai eban, zure adar ulukarien artetik ibilteko ; zure geriza izan nai eban, eta egunaz ur gaiñean luzatu ; eta ibilli ara ta ona, aaten antzera, bedar ta itzal artean.

36

ONESPEN

Onets egizu gorpuztxo au, zeru-mosua lurrari irabazi dautson gogo zuri au ; eguzki-argia maite izanik, bere amaren arpegiko zorapenez lillurazten dana ; autsa ezetsi ta urrea nai izatea oindinõ ikasi ez dauana. Ar egizu biotz ondora, ta onetsi !

Eun bide-kurutze ditun mundu onetara etorri zan, eta ez dakit zelan aukeratu zinduzan zu aibat lagunen artean, zergaitik dei egin eban zure atean, zuri eskutik oraturik bideaz itauntzeko. Irri-barreka ondoren doakizu, ta bere biotzean itz dagiala ezeren ezpai bage. Jagon aren fedea zeuregan, artez zuzendu ta onets egizu.

Jarri zure eskua aren buru gain, eta eskatu, aren oiñetan olatuak asarrekor orru eginda be, zeru-aize biguna datorrela aren oialak puztutera, ta sakatu dagioela bakezko porturantz. Ez egizu aztu zeure arin eta estu-aldietan, itxi egiozu biotze-raiño urreratzen eta onetsi egizu.

BEZUZA

Ene seme, ibaian beera goiaz bizitzan. Gure bizitzak banandu bearko, ta gure maitasuna galduko da. Zerbait emon nai dautzut... Zer emongo neuskizu nik ? Ai !, baiña onen memela izango ni bezuzaz, erregaluz zure biotza erosi gura izateko ?

Zure bizia asten dago oraintxe, luze dozu bidea. Txurrutada batez garbitzen dozu damotzugun maitasuna, ta barriro zoaz ariñeketan gure ondotik. Zeure lagunak eta jokoak dozuz, eta berezkoa da, gugaz gogoratu barik, zuri aldia igarotea.

Gure zartzaroa, ostera, ain da baldan ! Ordurik asko daukaguz joan ziran egunak zenbatu ta gure eskuak betiko galdu ebena geure biotzean laztantzeko !

Ibaia, pozez gaiñezka, luban guztiak apurturik, kanta kantari joan doa. Mendia geldi gertzen da, eta arekin gogoraturik, maitasunez jarrai doakio.

NIRE LELOA

Nire kanta-leloak, ene seme, bere musikaz batuko zaitu, maitasunaren beso erraikorrek lez. Bekokia ikutuko dautzu, onespenezko pa batek lez. Zu bakarrik zagozala, ondoan jarriko yatzu ta be-

larrira itz egingo; gizartean zagozala be, andik baztertzeko inguratuko zaitu.

Ego lez izango da nire abestia zure amesarentzat, eta ez-ezagunaren amairaiño eroango dau zure biotza. Gau baltza zure bidean etzun daitenean, fire abestia izar zintzo izango yatzu zeure bekoiki gaiñean. Zure begien ninietan jarriko da, ta gauzaen arimaraiño zuzenduko dau zure begiratu.

Eriotzaz abotsa ixil daidanean, nire kanta-leloa jarraika doaketzu, zure biotz bizian iztimizti.

39

UME AINGERUA

Zelako eztabaida ta garrasiak ! Ango zalantza ta ezespén ! Ez da sekulan amaitzen aren burruka !

Zure bizia, ene seme, bego arein artean, ikarage ta argiaren miiña baizen garbi, ta ixillera bekarz areik bere ederraren dirdiraz.

Zikozkeri ta bekaitzak, areik bai dagiezala anker ta temati ! Aizto ezkutú odol-egarbera lez dira arein itzak.

Jarri zaitez zu, ene seme, arein biotz suminduen erdian, eta jausi daitezala arein gaiñera zure begi onbera orreik, illuntzeko bake errukibera egunaren burruka gain legez.

Egizu, arren, ene seme, begira dagiela zure arpegia, ta orrela ulertu begie gauza guztien zen-

tzuna. Maite zagiezala, ta eurak be orrela alkar maite izan begie.

Erdu zu, ene seme, betikoaren altzoan zeure lekua artzera. Edegi ta jaso biotz ori eguzkia agertzorduan, lore barria iduri. Eta eguzkia etzatean, makur egizu bekokia ta atzendu, ixil-ixillik, arrasteko otoitza.

eta 40

AZKENENGO EGIUNEA

Goiz batean, bide arritsu zear niñoiari ; eta, ezpatea eskuan, errege eldu zan bere burdi itzalean. "Salgei nago !", nik oiur. Erregek eskutik artu ta au esan eustan : "Altsu naz, erosi zaikedaz". Baiña ez eutsan ezer balio izan bere almenak, eta ni bage itzuli zan bere burdian.

Itxita egozan etxeak eguerdiko eguzkitan eta ni alderrai nenbillen etxarte biurrian; ontan, agurre bat, urrez beteriko zakua eroiana, bidera urten yatan. Une bateko zalantza ondoren, esan eustan : "Aberats nozu, erosi zaikedaz". Banan-banan aztertu ebazan bere diru-txanponak. Baiña nik bizkarra emon neutsan, eta andik aide:

Arrats-beera zan, eta baratzeko esia loraz egoan oso. Neskatx panpoxa batek, aurreraturik, esan eustan: "Neure irribarrez erosiko zaitut". Baiña aren irribarrea zurbildu ta malko artean ezeztu zan. Eta bakarrik biurtu zan barriro be gerizera.

Eguzkiak dirdir ondartzan eta itxas-olatuak alkar joka zoragarriro. Ume bat jarrita egoan arean, maskorraz olgetan. Burua jaso eban eta, ezagun ba'nindu lez, esan eustan: "Ezerezez erosi zaikedaz". Jolaska egiune au egin nebanetik, azke naz.

Azkena



BARATZE-ZAIÑA

1

—Erruki zakidaz, ene erregin !

—Baiña, zelan ator orain, esaik, enparauak joan diranean?

—Orixegaitik; nire ordua beste guztien atzena dalako. Ta zer geratzen yatzun itandutera natorkizu zure azkenengo jopuari agintzeko.

—Eta, esaik, zer gura dok nik esatea ain berandu ?

—Ba, egin nagizu zeure baratze-zain.

—Nire baratzaren zain... ! Zoratu egin az ?

—Ez... Gaiñerako guztia itxiko dot. Ezpata ta igunak bota. Ta ez nagizu igorri bakaldun-jauregi urriñetara, ezta ez egidazu eskatu guda-irabazi barririk ! Nik ez dot izan nai zeure baratze-zain baiño.

—Eta, esaik, zer egin bear dok ?

—Morroi niaitzu zeure utsartetan, lanik ez dozun egunetan. Mardul eukiko dot zu goizero ibilliko zarean bide-zidorreko bedarra, ta nire lorak,

zure oin-azpian ilteko leiatsu, onespenez beteko dautzuez. Saptaparna adar artean zeuretako egingo dodan txinboan kulunkatuko zaitut, eta iluntzeko illargia zure gonearen egada ostu artean muntkatzen saiatuko da. Zure lo-gelako kruseluaren orio usaintsua barriztuko dot. Arraian ta sandal-margozkiz, arrigarriri edertuko dautzut oin-aulkia...

—Eta, zer gurako eunkek ordaiñez ?

Neure esku artean eukiten itxi dagidazuzala zure eskuturtxoetako loto-morgilak, eta lora-katez zure besamuturrak korapillotzen ; itxi dagidazula, arren, zure oin-azpiak axoka-odolez margoztuten eta neure mosuz kentzen, dabiltzala ausaz eurekandu daben autsa...

—Ederto ; gaurtik az neure baratze-zain.

2

Bai, egia, olerkari ; zure ulea zuritzen asia da. Zeure gogarte-orduan illuntze bakarrez, arutzagoko dei-otsak entzun dagizuzala.

Ez. Adi nago norbaitek, apika, onezkero berandu dan arren, ea baserritik dei egiten daustan. Ernai nago, biotz gazte deslai bik alkar jo ta lau begi ixiotuk, ixilla ausi ta euren ordezt mintzo dan musika nai baldin ba'dabe. Ni eriotza ta arutzagoa gogoz artzen bizitz-egalean jarriko ba'nintz, nok taiutuko leukez arein abesti leratsuak ?

Ez. Bai ilgo ez ilgo daukazu aurrenengo izarra. Illotzen txondorretako sugarra itzaliz doa piz-

kaka, ibai mutuaren ondoan. Iretargi aspergarriari zaunga dagoz txakalak aldizka, etxe bakartiaren larrañean... Gautar ameslari batek, bere etxetik gaba ikustera urtenda, buru-makur, gerizpeko ots-barbailla entzun ba'ledi, bizitz-ezkutua nok esango leuskio belarrira, ni, neure atea itxirik, neure atxillo ilkorretik askatuko ba'nintz ?

Ez. Zer deutso nire ulea zuritzen asi arren ? Baserriko gazteena ta zarrena baizen gazte ta zar nozu. Batzuk irribarre dagie gozo-gozo, beste batzuk maltzurkerizko ditzira dabe begiratuan. Oneik negarrez doaz eguzkitan ; besteak illunetan gorde oi dabe euren negar-zotiña. Ta danak dagoz nire bearrez, eta ez dot astia galdu bear beste bizitzako zergaitietan. Nire adiña danena da. Zer deutso fire ulea zuritzen asi arren ?

3

Eguantzaz itxasora bota neban neure sarea, ta osin illunari eder arrotzezko gauza bakanak ostu neutsazan. Batzuk irripar antzera dizdiz egien, beste batzuk negar-anpulu antzo argi, ta euretarikoen bat emaztegeiaren matrailla iduri, gorritz jazten zan.

Neure altxorragaz nentorreanean, nire maitasuna bere baratzean egoan, lore bat ezarian orriultzen. Lipar batez zalantzak artu nindun, oiñetara jaurti neban itxas-ondoak emon eustan oro, ta zain jarri nintzan **Arek dana begiratu ta iñoan** : "Zertarako dodaz nik gauza ain bitxiak ?"

Lotsaturik burua beera makurtu ta gogora neban: "Gauza oneik egiaz ez dauste niri ez indarrik ez dirurik eroan. Ez, ez dira aren duiñeko bezuzak, maite-erakutsiak..." Eta eurak, banan-banan, kalerera jaurtzen emon neban gau osoa.

Goizean, bidazti batzuk igaro ziran andik. Batu eben nire altxorra ta lurralde urriñekoetara eroan.

4

Ai !, zergaitik egingo ete eben nire etxea azokarako bide ertzean ? Neure zugatzetan lotzen da bez guztiak euren ontzi beteak ! Eta sartu ta urten, euren gogora dabiltz... Begira jarten naiake, ta alperrik doakit astia. Eta, zelan egotziko ditut andik? Eta egunak egaz ta egaz...

Gau ta egun ots dagie arein oinkadak nire atean. Alperrik diñotset : "Ez dakit nortzuk zariaden". Batzuk nire atzamarren ezagunak dira, beste batzuk nire suurrarenak, nire zanetako odolak gogoratu bide dauz beste areik, eta ba-dira batzuk nire amesen ideko diranak be. Zelan egotziko ditut? Eta dei egiñik, diñotset : "Nai ba'dozue, sartu, sartu neure etxera".

Lenengo eguzkiz, jauretxeko kanpaiak deitzen dauanean, danak datoz otzarak eskuan. Arein oiflak larroskarakoak dira ta ozkorriaren argi bariak dizdiz dagitse bekokietan. Zelan egotziko ditut ? Eta dei egiñik, diñotset : "Zatorkidaze baratzera lorak artzen, zatorkidaze".

Eguerdira, jauregiko atean gongak ots dagianean, ez dakit nik zergaitik, euren lana itxi ta neure esiari deutsela izketan jarri bear daben. Arein txilibitu-soiñua bai makala ! Zein laru ta igar arein uleko lorak ! Zelan egotziko ditut ? Eta dei egiñik, diñotset : "Zagoze ene zugatzen gerizpean, adiskideak, jarraitu ortxe".

Gabaz, basoan txirtxiriak kantari, nor dot nire atera geldi-geldiro urreratu ta oso ixil dei dagian ori ? Ozta-ozta dakust arpegi bat... Ez diñotsagu alkarri ezer... Guztia estaltzen zeruko ixiljak... Zelan egotziko dot nik ostarari mutu au ? Ta itzalean begira dagit aren betartea, ta joanez doaz amesezko orduak eta orduak...

5

Artega nago ta urrutiko gauzen egarriz, eta barrena zabalduz doakit urrungo urduritasunen azkeneraiño eldu-min batean. Eta zure txirulak dei dagist sarkor, oi arutzago izenbage !, ta ni aztu ego barik nagoala, atxillotua betiko espetxeontan.

Leraz nabil ta ernai ; arrotz antzera naz, lur gogorrean. Zure arnasa eltzen yat, nire biotzak berea lez aitzen dauan izkuntzan eziña dan itxarokizuna belarrira egokituz. Eta zure txirulak dei dagist sarkor, oi urriñeko ezkutu !, ta ni aztu ez dakidala bide-zidorra, egodun zaldi ariña ez da goala nigaz.

Zilimala ta nakar, neronen biotz barruna noa erromes. Ordu zurbillen laino eguzkituan, zureki-ko ikuskizuna bai eder ta zabal zeruaren urdiñean ! Eta zure txirulak dei dagist sarkor, oi azken amai ! ta nik aztu bakarrik bizi nazan etxe onek, bere ate guztiak zarratuta daukazala.

Txori otzana kaiolan bizi zan, eta basoan txori jareia. Baiña euren zoria zan alkar aurkitzea, ta ordua jarkia zan.

Txori jareiak onela kanta : "Maite, egaz dagi-gun basora". Txori atxillotuak iñoan ixil-ixil : "Erdi ona ; bizi gaitezaz biok kaiolan". Txori jareiak ots: "Burdin-sare artean ezin egorik edegi". "Ai !", oi txori atxillotuak : "Jakingo ete dot nik zeruan kokatzen ?"

Txori jareiak onela kanta: "Ene maite, txiotu solo-abestiak". Txori atxillotuak iñoan : "Zagokit alboan, jakintsuen kanta erakutsiko dautzut". Txori jareiak oiukatzen: "Ez, ez, ez ; kantak ezin daitez iñok be erakutsi". Txori atxillotuak ozenki : "Ai ! Nik ez dakit soloko kantarik".

Aren maitasuna, azkenik bako opa bizi bat da, baiña biak be ezin egan egin, egoz ego. Alkar begiraten dabe, so ta so, kaiolako burdiña zear, baiña alperrekoa da arein griña ta iskia. Ta barne-min egoai eragiñik, dabese : "Zatoz onago, zatoz onago". Txori jareiak garrasi: "Ezin daiket. Bil-

durkor yat zure kaiola itxia !" Txori atxillotuak
ixil-ixil kanta : "Ai ! Ezin dot. Ene egoak il di-
ra !"

7

Zelan nai dozu, ama, nik gaur goizean ezer
gogotan artzea, errege-semea emetik igaro bearra
da-ta ? Esaidazu zuk, ama, zelan orraztuko na-
zan ; zein soiñeko jantziko dodan...

Bai, ama, ez nagizu orrela begiratu ; ba-dakit
nik aurretiez arek ez dauazala bere begiak nire
leiora jasoko; ba-dakit nik txakezko baten baka-
rrik ikusiko dodala urrinduz doan txilibitu soiñu
bat, intzirika, datorrenean lez izango dala... Bai-
ña errege-semea, ama, emendik igaroko da, ta
garai ortarako nik daukodanik onena jantzi gura
dot.

Ama, errege-semea igaro da... Zelan dizdiz e-
gian goiz-eguzkiak aren burdi apaiñean ! Nik ar-
pegiko estalgia edegi, txirlarri gorrizko katea sa-
matik kendu ta aren bidera jaurti dot...

Bai, ama ; ez nagizu orrela begiratu; ba-dakit
nik arek ez ebala jaso nire katea ; ba-dakit nik be-
re burdiaren gupil batek zapaldu ebala ; aren or-
ban gorrizka bat bakarrik geratu zala autsean ;
iñok ez ekiala zein zan nire bezuza, ez zetako za-
nik... Baiña errege-semea emendik igaro zan,
ama, ta nik bidera bota neutsan neure altxorrik
oberena,

8

Aurreneko txoriakaz iratzartu nintzan, eta orduko il-agiñean egoan nire argontzia. Ta leio edegira joanik, antxe jarri nintzan, neure adats askatuan lora-txorta mardul bat nebalarik... Bidez bide etorren bera goizeko laino larrosatuan. Txirlarritzko kate bat ekarren saman, eta eguzkiak emotsion bekokian. Eta neure atondoan gelditurik, leiaz esan eustan: "Nun dago bera, esan?"

Lotsa nintzan esaten : "Neu nok bera ori, bidazti nekatua, neu nok bera ori"

Gautuaz joian eta ez eben oraindiñokarren ixetu... Nik neure uleari oratzen neutson gogaitu samar. Ba-etorren bere burdi apaiñean, sartalde-eguzkiz oro gorri ixiotua. Autsez beterik ekarren jantzia. Bitsak irakian aren zaldien ago irrirts-minduan... Neure ate-ondoan jatsi ta abots aunatuz esan eustan: "Nun yagon bera, esain ?"

Lotsa izan nintzan ari esaten: "Neu nok bera ori, bidazti nekatua, neu nok bera ori".

Jorrailleko gau ontan, kruselua su-jario dago ego-aizeak, leun-Ieun, asetzen dauan nire etzanguan. Loro itzontzia lo datza here kaiolan. Nire soiñekoa urdiña da pauma (errege-oillo) baten samea lez, ta orlegia nire gain-jantzia, bedar bariaren antzera. Bean jezarrita, leio ondoan, kale bakartia begirutzen dot... Eta joanez doa gau illuna, ta ez naz nekatzen abestu ta abestu : "Neu nok bera ori, bidazti itxaron bage, neu nok bera ori".

9

Gabaz, bakarrik noanean neure maite-deira, txoriak ez diardue kantari, aizea ez da igitzen, kalleko etxeak, ezker-eskuma, ixillik dagoz...

Eta ene orkatil-gailluak txintxin dagiste oinkada bakotxean. Eta zelan lotsarazten nauan onek !...

Balkoian jarrita, arnasc-eutsi, aren oinkaden zain nagoanean, orriak mutu dagoz zugatzetan, ura be geldi-geldi ibaian, gauzain lokartu baten belaunetan ezpatea lez...

Eta nire biotza pilpilka, zoraturik. Eta ez dakit zelan ixillazo ! ...

Ene maitea etorri ta aldamenean jartzen yataanean, gorputza dardartu ta begiak izten yatazanean, gaua illundu doa, aizeak argontzia itzungiten daust, odeiak izar-zain dagoz...

Eta ñirñir dagist bularreko bitxiak. Eta ez dakit zelan itzali (amatau) ! .. .

10

Amaitu egizu bein edo bein, ezkonbarri, bera or daukazu-ta... Ez al dozu entzuten zeure ateko katearen soiñu gozoa ? Zabiltz... Eta ez dagiela zure orkatil-gailluak zarata andirik atara, zure ibillia otzan neurritua izan dedilla... Amaitu egizu onezkero ; gaba da, ta bera or daukazu.

Ez, ez dozu iratxo-aizea, ez zaitetz ikaratu. Jorrallekoa da gaba, illargi betezkoa. Ez dakuszu zein zerutiko dagozan larraiñeko itzalak? Ez dakuszu zeruak bere argiz koroatzen zaitula? Eratsi zapi ori, nai ba'dozu; ar egizu kruselua, bildur ba'zara... Ez, ez da iratxo-aizea, ez bildurrik izan.

Eta lotsa ba'zara, ez egiozu ezertxo be esan. Naiko dozu, bera igarotean, zu alde batera baztertzea... Ezer itantzen baldin ba'dautzu, makurtu zuk, nai ba'dozu, ixil-ixil zeure begiak. Eta zure besakientzat, ez dagiela otsik atara, kruselua goi, barrurantz daroazunean. Eta lotsa ba'zara, ez egiozu ezertxo be esan.

Orrela zagoz oindiño, emazteki? Begira, or daukazu bera... Ez dozu ixetu oraindik ukuilluko argia? Eta jaureskundeetarako arratza? Ta ezau garri gorria, zoriaren iragarle, zeure ulearen erreia zurian? Baiña etzara oindiño jantzi gaberako? Ezkonbarri, ba-dantzuzu? Or dago bera...

II

Erdu zagozan lez; etzaitetz geiago egon! Kopetea nasaitu ba'yatzu, ulearen erreia ondo atera ez ba'dozu, gonauntzaren zintak jarein ba'daukazu be, zer dautzu zuri! Erdu zagozan lez; etzaitetz geiago txukundu, apaindu!

Erdu, bizkor, bedartzatik! Zure oiñak iruntzaz margultzen ba'dira, zure orkatilletako txinixillen ots alai naastu ba'dadi be, edo zure ka-

tsean zetzan oraindik. Eta gandutik dingilizka e-goan bedar ezkoaren usain nagia... Zuk beia erasten zenduan banian azpian, eta guriña baizen leun mardoak ziran zure eskuak. Eta ni, geldi, zugatz-oñean.

Ezer esan neutzun ? Kanta eban. txori bat izan zan, ikusgaitz, oianean. Mango-lorak bidean ixurtzen ziran, eta zunburrunka etozan erleak, orain bat, gero bestea. Edegi eben aintziran ikusten dan Xiva'ren jauretzea, ta apaizak asi ebazan bere kantak. Zuk, kaikua altzoan, beia erasten zinar dun. Eta ni zutik zain, neure kaiku utsagaz.

Ez negian zirkiñik. Jauretxeko gonga goiak ixartzen. Bitxabal zear, txarri-talde uxatuak, autsezko laiñoak jasoazten. Ibaitek etozan emakumak, kantin ozenak mokorrean. Zure beso-gailuak txintxin egien, eta kaikua zeunkan bitsez gonburu... Ta goizaldia aurrera joian, eta ni ez nintzakon urreratzen.

14

Ni bide egiñez niñoian, ez nekian zergaitik. Eguerdi ostean zan, eta aizea banbu-adar artean ebillen. Itzal jausiak, besoak luzatuz, oiñak artzen eutsoezan argi igeskorriari. Kanta-ekiñaldia itxia eben koelak. Ni bide egiñez niñoian, ez nekian zergaitik.

Ur-egalean, txabola ikusi neban, zugatz abaildu baten babesean. Barruan, norbait ebillan ara ta

ona maratz, eta zokondoetan ots egien aren orkatil-gailluak. Eta txabola aurrean gelditu nintzan, zergaitik ez nekiala.

Bide estu ta biurriak, ziape-soloak eta soloak eta mango-basoak eta basoak zearkatzen ditu. Baserriko eleiz ondotik igaroten da, ta nasako azokatik... Baiña ni txabola aurrean gelditu nintzan zergaitik ez nekiala.

... Urte asko diralako epail-egun bat nenkarren gogora, aize meeko eguna. Udabarriak nagi ta laru arnas egian, eta mango-lorak lurrera etozan. Ur urduriak, jauzika, nasako azken-maillan itxita egoan tupikizko errada bat miazkatzen eban... Epail-egun aize meezkoa nenkarren nik gogora, zergaitik ez nekiala.

...Illuna gero ta itsuago, ta abere-taldea usara doa barriro. Zelai bakartiak arre biurtzen dira, ta erriko gizonak ur-ertzean dagoz txalupa zain. Eta ni, ez dakit zergaitik, etorri nintzan bidetik biurtzen naz atzera, txit astiro.

Basoetako kerizpez kerizpe, basauntza, berberaren usaiñez zorabiatuta, lasterka doan lez, orrelaxe maiatz-biotzeko gau ontan, egoaizez epel, zoratua nabil ni ariñari emonik. Bidea galdu dot eta noraezean nabil. Eta ez daukadana gura dot, eta gura ez dodana daukat.

Neronen irrirtsaren iduria urten doa biotzetik, eta, neure aurrean dantzari, bein eta barriro diz-

diz dagi, tximista lez. Oratu nai dot, baiña iges dagist; eta, urriñera danean, barriro dei dagist zear-bidetik... Eta ez daukadana gura dot, eta gure ez dodada daukat.

16

Eskuak eskuz oratzen dira ta begiak begiz geratzen... Onela asten da gure biotzen edestia.

Epail-gau da, illargi-gau, ta enaren usain gozoa aidean dabil. Bean dago nire txilibitua, jausia ta aiztua, ta zure lora-txortea amaitu barik oin-diño...

Gure maitasun au izur bagea dozu, kanta baten antzera.

Zure zapi arraian kolorezkoak, begiak mozkortzen daustaz. Jazmiñez egin zeustazun koroaiak, biotza beteten daust, goratzarrearen antzera... Emon ta emon ez, erakutsi ta gorde, da gure jolasa. Irripar, bildur-antz, liskar gozo alperrekoak...

Gure maitasun au izur bagea dozu, kanta baten antzera.

Maitasun onek ez dauka oraingoa baiño aragoko misteririk, ez eziña jaristeko gogorik, ez itzalik atsegin ostean, ez billaketarik illunaren leza barrenean...

Gure maitasun au izur bagea dozu, kanta baten antzera.

Itzak ez garoez betiko ixil-altzora, eskuak ez doguz jasotzen utsera, itxarokizuna baiño arutz-

go. Emon eta artu bakar-bakarrik... Ezta ez dogu poztasuna lauskitu atsekabearen ardaoa ateratze-raiño...

Gure maitasun au izur bagea dozu, kanta baten antzera.

17

Txori oria kanta kantari dago arein zugatzean. Nire biotzaren poza ! Biok, bai ederto !, baserri bereborean bizi gara, ta aren arditxo bi kutunenak neure baratzeke zugatz-kerizpera datoz larra-billa. Eta gure garagar-soloan sartzen ba'dira, nik be-soetan ataratzen dodaz... Kanjana deritxo gure baserriari, ta Anjana errekastoa da aren errekastoa. Erri osoak daki nire izena. Ari Ranjana deeritxoe.

Zelai bat dago bakar-bakarrik bion artean. Gure ortuan euren auntza dauken erleak, arein ortura doaz eztigai-billa. Euren zurubitxoan areik uretara botaten dabezan lorak, ur ibillian datoz nik bañu artzen dodan lekuraiño. Ta arein soloe-tatik kusm b ra igarrez otzarak eta otzarak datoz gure azokara... Gure baserriari Kanjana deritxo, ta Anjana errekastoa da aren errekastoa. Erri osoak daki nire izena. Ari Ranjana deritxoe.

Udabarrian, mangoaren loreak suge antzo aren etxeraiño doan laster-bidea usainkatzen dau. Arein liñoa eldu ta batu-zori aurkitzen danean, gure soloan kalamua loratu oi da. Arein leioetara dardarka irripar dagien izarrak, guretara be irripar dagie dardarka. Ta arein zingira ase-beteten dauan euriak poztuten dau gure kadan-oiana be... Kan-

jana deritxo gure baserriari, ta Anjana errekastoa da aren errekastu. Erri osoak daki nire izena. Ari deritxoe Ranjana.

18

Aizta biak uretan datozanean, ona eldurik, irri-barre dagitse alkarri. Uretan datozanean beti, nor-bait zugatz ostean kuku daukela, ete dakie ?

Emetik igarotean, ixil-putxumutxuan doiaz aizta biak. Uretan datozanean beti, zugatz artean etxaiten daukien orren ixilla igarri ete dabe?

Beingoan, emetik igarotean, erradak okertu ta ura jarion yake lurrera. Uretan datozanean beti, zugatz artean biotz bat pilpilka daukiela, ete dakie?

Aizta biak emetik igarotean alkarri begiratzen dautsoe, ta gero, zoro antzera, barre-purrustadaka asten dira. Ta barreak nastu ta lardaskatzen dau aren ibilli igeskorra, bai ta, uretan datozanean beti, zugatz ostean dagoan orren gogamena matazatu be.

19

Errekatik zentozan, errada betea mukurrean. Zer dala-ta, bertatik arpegia itzuli ta so egin zendun orrela zeure zapi ostetik aizetara ?

Olatu gainez urriñeko ur-ertz zurbilleraiño doan ipar otza lez eldu yatan itzaletik zure begien ziztada. Etxe illunean leio batetik itsumustuan sartu

ta bestetik beingoan urtenik, gau baltzean galtzen diran txori orrein antzera izan zan. Gorderik zagoz izar antzo mendi ostean, eta ni, bidazti, banoa zidorretik...

Baiña, zer dala-ta geratu ziñan bertatik eta so egin zeustan zeure zapi ostetik, errada betea mukurrean, errekatik zentozanean ?

20

Egunero, ba-dator ta ba-doa. Tira, aizta, e-moiozu neure uleko lore au. Ta nok bialtzen dau-tsan itandu ba'dagi, ez egiozu esan; bakarrik eto-rrri dator eta bakarrik joan doa.

Begira an, lurrean etzana, zugatz-mokor on-doan. Zoaz, aizta, ta eda egiozu oiñetan orri ta lo-razko oial bat; aren begiak, bada, illun dagoz ta atsekabez urtzen daustie biotza. Ez diño egundo zer darabilen gogoan iraulka: bakarrik dator ta bakarrik doa.

21

Zergaitik jarri zan nire atean eguantzaz ? Sar-urtena dagidan bakotxean, aren albotik ibilli bear nik ; eta nire begiak, olango bakotxean, arenetan josi oi dira.

Ez dakit berari itz egin, ala ez. Zergaitik jarri zan nire atean?

Baltza benetan garilleko gau laiñotsu ! Mei le-gun udazkenean zeruaren urdiñ ! Udabarriko egu-

nak bai urduri ego-aizetara ! ... Arek oiukatzen da-
bezan kantak, bakotxean melodi barri bat dau-
kie

Eta begiak lausotzen yataz, eta neure lana itxi
bear... Zergaitik jarri zan nire atean ?

22

Bizkor igaro zan nire aldamenetik, eta aren go-
na-mendelak ikutu nindun... Eta biotz baten iza-
ro ezagun-ezetik, ez dakit zertariko udabarri-ar-
nas beroa etorri yatan bertatik...

Aize leunak aratonat darabilen lora-orri an-
tzera, ego arin batek ikutu nindun zartean, eta
beingoz ostendu zan... Aren gorputzeko aspera lez
izan zan nire biotzean, aren biotzeko surmurra
lez.

23

Zer dala-ta zagoz or jezarrita, zeure eskutu-
rrekoai alperrik ots eragiñik ? Zabiltz eta bete egi-
zu ontzia, etxera biurtzeko ordua dozu-ta !

Zer dala-ta zartatzen dozu ura eskuakaz, be-
giak bidean, alperrik ? Zabiltz eta bete egizu on-
tzia, ta blur zaitetz etxera !

Goiza igaroaz doa, ta ur arrea be ba-dabil bere
bidez. Eta uiñak (olatuak), barreka, euren kau-
tan itz dagie alperrik.

Muiño gaiñean, odei alderraiak pilloturik doaz.
Gelditu, zure betartea ikuskatu ta barre dagie al-

perrik. Zabiltz ta bete egizu ontzia, ta biur zaitetz etxera !

24

Ez egidazu, otoi, gorde zeure biotzeko ezkutua! Esaidazu neuri, adiskide nozu-ta, neuri bakar-bakarrik ! ... Esaidazu barre dagizun baizen ezti, ta ez dabe nire belarriak entzungo, biotzak baiño.

Gau itsua ; etxea ixillik ; loak il-jazten ditu txorien abiak... Ea, esaidazu, negar dardartian, irripar bildurkoi, lotsari ezti, oiñaze leun, zeure biotzeko ezkutua !

25

—Zatoz, gizon, ez gagizuz iruzurtu. Zergaitik orrela ñirñirka zure begiok, zoratuta?

Ez dakit lo-erazlearen ze gun edan neban, ta ez dakit ze zorakortasun dan begietan daukadan au...

—Ez zaitu lotsarazten ?

—Eta zer ? Ba-dira jakitunak, bai ta tonto-lapikoak be. Batzuk ernai bizi dira, ta besteak baldar itxi. Ba-dira barre dagien begiak, bai ta negar dagienak be... Ta niri zoramena darit begietatik.

—Zer dagizu or, gizon, beti zutunik zugatz orren kerizpetan ?

Nire oiñak ezin dabe nire biotzagaz, eta emen nago, geldi, kerizpetan.

—Ez zaitu lotsarazten ?

Tira. Batzuk ariñeketan dabiltz, eta beste

batzuk jolaska astia damoe. Oneik azke dagoz ta areik katez loturik. Eta nire oifiak ezin dabe neure biotzagaz.

26

—Emon nai daustazuna eskatzen dautzut bakarrik.

Bai, bai ; ezagun zaitut, eskale ase; daukodan guztia nai dozula, ba-dakit.

Loratxo bat geiago geratzen ba'yatzu, emoidazu neure biotzarentzat.

Eta loreak, arantzak ba-ditu?

Emoidazuz arantzak be !

—Bai, bai; ezagun zaitut, eskaletxo ase ; badakit daukodan guztia nai dozula.

Begi maitekor orreik bein bakarrik neure begietara jasoko ba'zeuskidaz, bizia ezti litzakit eriotzaz arago.

—Eta begiratu gordiñak baiño ez ba'lebez?

—Neure biotzean geratuko litzakez betiko josit

—Bai, bai; ezagun zaitut, eskaletxo ase; badakit daukodan guztia nai dozula.

27

—Naibagea dakartzula-ta, ez egiozu maitasunari biotza itxi: itxaropentsu zaitez.

—Ori izketa illuna ! Ezin dautzut ulertu...

—Biotza ezin daikegu emon, malkoz edo abes-
tiz izan ezik...

—Zure izketa illuna ! Ezin daiketzut ulertu...

Labur dozu atsegiña, iruntz-tanta lez, ta ba-
rre dagian bitartean, dil (ilten) . Atsekabea, oster-
ra, luze dozu, ta ba-dirau... Maitasun ituna esna
dedilla zure begietan !

Ori izketa illuna ! Ezin dautzut ulertu...

—Lore-kuskuan ez etxaitearren, neguko edur
betikor artean, lotua eguzkitara zabaltzen da, ta
daukan guztia galtzen...

Ori izketa illuna! Ezin dautzut ulertu...

28

Zure begiak itaun dagiste goibel, eta nire zen-
tzunean barrendu nai dabe, iretargiak itxasoan
lez.

Ezer be gorde edo ostendu barik, osoro bi-
llostu dautzut neure bizia, asieratik azkeneraiño.
Origaitik ez nozu ezagun ! Ni bitxia ba'nintz ba-
karrik, milla ataletan zatitu nindeke ta zure sama-
rako sorta bat egin. Ni bakarrik lora biribil leuna
ba'nintz, neure ailletik erauzi ta zure adatsean ja-
rri naitekean. Baiña, nun dagoz, maite, nire bio-
tzaren mugak ?

Zuk ez dozu ondo ezagutzen nire erreñua,
bertako erregiña izan arren. Au atsegin-aldi ba-
ten bakarrik ba'litz, irribarre errez baten loratuko
litzake ta zuk lipar batez ikusi ta ulertuko zeunke.
Au oiñaze bat bakarrik ba'litz, negar-arpulu ar-

gietan urtuko litzake ta zuk aren ezkutuaren ondoena ikusiko zeunke, arek tautik be esateke. Baiña au maitasuna dozu. Onen atsekabe ta atsegiñak ez daukie azkenik, eta beronegan amaiba-koak dira bai bearrian bai ondasun. Zeure bizia lez ur-ur daukazu, ene maite; baiña zu etzara iñoiz be a dan bestean ezagutzera elduko !

29

Mintzo zakidaz, mintzo zakidaz ! Esaidazu itzez abestu dozuna !

... Gau orren baltza ! Izarrak odei artean galdu dira ta aizea ostotzan dabil... Neure uledia jaregingo dot. Arako gabaz lez rnantu urdiñean batuko naz. Zure burua neure bularrari dautsola artuko dot, eta, geure bakartade ez-tian, ixil-ixil nik itz egingo, zure biotz ondoan... Begiak itxiko do-daz zuri entzuteko. Ez dautzut arpegira begiratu-ko...

Zuk amaitzean, biok geratuko gara mutu ta geldi. Zugatzak entzungo dira bakar-bakarrik illu-nean... Goizaldea larrutuko da ta eguna zabalduz doake. Begietan alkarri so egingo dautsagu, ta ba-kotxa bere bidetik joango...

Mintzo zakidaz, mintzo zakidaz ! Esaidazu itzez abestu dozuna ! !

30

Zu zara nire idurikizunen zeruko arginabar odeia. Zure margo ta tankera dira nire maite-irri-

tsatenak. Neure zara, neure zara, ta neure azkenbako amesetan bizi zara.

Oiñak daukazuz neure biotzeko dizdizera leia-tsuz gorrizkatuta, ene arrats-eresien itaria ! Zure ezpan gazigezak neure naigabezko ardaoaren gozo-kutsua dabe. Neure zara, neure zara, ta neure ames bakartietan bizi zara.

Nire griña zurbillak illundu dautzuz begiak, ene begirakunaren ondarreko eiztari ! Neure musika-sarean zaukadaz atxillo, ene maite. Neure zara, neure zara, ta neure ames ezilkorretan bizi zara.

31

Nire biotzak —basamortuko txori— bere zerua idoro dau zure begietan ; zure begietan, bai, egun-sentiaren kuma, izan-en aginterri, ta arein sakontasuna nire kantak daroe !

Itxi egidazu soilki zero orretan barruragotu naiten, neurribako zabaldi bakar orretan ! Itxi egidazu soilki zure odeietatik sar nadin, nire egoak zure eguzkian zabaldu daitezana !

32

Esaidazu au egia dan ala ez, esaidazu dana egia dan !

Nire begiak tximistatzen diranean, trumoi antzera erantzuten daust zure bularreko odei-murru

baltzak. Esaidazu, egia ete da nire ezpanak len-
maitasun gogozkoaren pipil erdi-edegia baizen ez-
tiak dirana ? Egia ete da, joandako maiatz guz-
tien gomuta pirtxildua ene berna ta besoetan da-
goala ? Egia ete da, lurra abestiz urtzen dala, ar-
pa bat lez, nire oiñak ikutzen ba'dabe? Egia ete
da, ni natorrenean gauaren begietatik iruntza jaus-
ten dala ; goizeko argia poztuten dala soiña artzen
daustanean ? Egia ete da, egia ete da, esaidazu,
zure maitasuna bakarrik joiala, gizaldi ta mun-
duak zear, nire billa ? Egia ete da, azkenez aurki-
tu ninduzunean, zure millaka urteko leia biziak
bake osoa aurkitu ebala nire izkera gozoan, ene
begietan, ene ezpanetan, ene adats azkean ? Egia
ete da, egia ete da, egia ete da amaibagearen ez-
kutua itsatsita dagoala ene bekoki ain txikar on-
tan?

Esaidazu au egia dan ala ez, esaidazu dana
egia dan !

33

Maite zaitut, bai. Asketsi egidazu maitasun au!
—Bidea galdurik zabiltzan txoritxo, zu antzera,
nago ni be eizatua !— Nire biotzak, pozez darda-
raztu zanean, galdu eban bere zapia ta billos ge-
ratu zan. Estal egizu zuk errukiz, eta asketsi egi-
dazu maitasun au !

Maite izan ezin ba'nozu, asketsi nire atseka-
bea ! Baiña ez nagizu begiratu orrela, ain urrunetik !
Narras ta ixil neure zokoraturik, illunean ja-
rriko naz, neure aalke billosa esku biakaz estali-

rik. Ez nagizu begiratu, ez nagizu begiratu, ta asketsi nire atsekabea!

Maite ba'nozu, asketsi egidazu poztasun au!
Ez egizu barre egin nire lepotik, zorion-itxaso onetan biotza doakidala ba'dakuszu be. Neure erregerin-aulkian jarri ta neure maitasun ankerrez zure gain- agintzean; jainkosa baten antzera, nik zuri esker eta mesedeak egitean, errukior zaitetz nire andi-griñarekin, eta asketsi nire poztasuna !

34

Etzaitetz joan zu, ene maite, niri esan batik...
Gau osoa itxarrik emon dot, eta orain lo-guraz daukadaz begiak. Bear bada, esaidazu, ni lotan nagoala joango zara ? Etzaitetz joan zu, ene maite, niri esan barik !

Izuak esnatzen nau, ta zugana luzatzen dodaz eskuak, eta ikutzen zaitut ! Eta kolkorako diñot : "Amea ete ?" Ai !, zure oiñak matazatu al ba' neuz neure biotzean eta neure bularrera lotu ! .. . Etzaitetz joan zu, en maite, niri esan barik !

35

Orren arin ezagutu ez zagidazan, nigaz jolas-tu oi zara. Malko orreik ikusi ez daizudazan, batbateko barre-algaraz itsutzen nozu... Ba-dazaut, ba-dazaut zure antze, zure jokabidea. Egundo ez diñozu esan nai dozuna !

Balio dozun bestean etzaitudala eukiko ta, iges dagizu nigandik milla eratara. Gizartetik be urrutiti zoaz, angoen batekin nik artu ez zaidazan... Ba-dazaut, ba-dazaut zure antzea. Iñoiz ez zoiaz joan nai zeunken lekutik !

Nigaz beste iñor baiño geiago zarean ezkerro, ixillik zagoz. Neure bezuzak be zabartasun jolas-korrez izten daustazuz... Ba-dazaut, ba-dazaut zure antzea. Ez dozu sekula be artu nai zeunkena artzen !

36

Ixilmixilka bota eustan: "Ene maite, so nagizu begietan". Agiraka egin neutson garratz, esanik: "Oa". Baiña etzan joan. Urreratu ta eskuak artzen eustazan. Nik esan neutson: "Itxi nagik". Baiña etzan joan.

Aren matrailla neure entzumenean jarri neban. Baztertu nintzan pizkat, eta ari so egiñik, esan neutson: "Etzara lotsatzen ?" Eta ez eban zirkiñik be egin. Aren ezpanak nire matrailla gainikutu eben. Dardarak artu nindun, eta esan neutson : "Zelan azartzen az, esaik ?" Baiña etzan lotsatu.

Lora bat kokatu eustan adatsean. Nik esan neutson: "Alperrik dok !" Baiña arek izten ez. Niri samatik bitxi-sorta kendu ta joan zan. Eta nik negar ta negar; eta biotzari itandu oi dautsat : "Zergaitik, zergaitik ez dator atzera ?"

37

Esegi nai al dozu zeure lora-txorta eze ori neure saman ? Ona, nik eundu dodan lora-txorta bakarra askorentzat da, ames artean igaroten diran batzuentzat, ezagun ez dodazan lurraldeetan eta olerkarien eresietan bizi diran beste batzuentzat...

Berandu dozu onezkero, zeure biotz ordeztu neurea eskatzeko. Nire bizia, aldikada baten, lora-kusku antzera zan, eta bere usainki osoa neure barruan zetzan. Gaur, usain guztia joana yat lau aizetara ta ez dot ezagutzen bera batu to neure bularrean barriro sartu dagiken lillura-bide here-zirik. Ez; nire biotza ez da neurea, ez da baten-tzat bakarrik ; nire biotza gaur-gero danena da, ta betiko.

38

Beiñola, zure olerkari onek gogora eban ez dakit nundiko gerra-eresia; baiña, ai !, onen baldarra izan bait-nintzan, nire eresiak zure orkatilgaillu txintxirindunakaz topoz egin eban ; aleun zati oskidetsutan ausi ta zure oiñetan barraiatu zan. Nire guda-ipuin zarren ondasun guztia olatu irrilarietan ondatu zan, malkoz bustia...

Zure maitasuna bekit galpen orren ordain ! Eta aomen il-eziñerako daukidan eskubide au, ni il ondoren, auts biurtu bearra ba' da, illekortu nagizu zuk bizi zareaño, ta ez dot negartuko neure ondamendia, ezta zuri aren errurik egotzi be.

39

Goiz guztia daroat lora-txorta bat egin naian,
 baiña lorak askatu egiten yataz ta lurrera jausi.
 Zuk, or jarrita begi-ertz egon-eziñagaz begira zau-
 kadazan orrek, galdetu, otoi, maltzurkeriz aseta-
 ko arei, nor dan guzti onen errudun.

Kantu bat abestu gura dot, baiña alperrik.
 Itandu egiozu nok dauan onen errua zure ezpa-
 netan dardar dagian irriño estari orri. Zin begi
 zure ago irribarretuak, nire abotsa ixillean galdu
 zala erle ordia lotoaren lora-muiñean lez.

Gaua sartzan eta lorak zarratzen. Itxi, arren,
 zure aldamenen jarten ; eta esan nire ezpanai egin
 dagiela ixillaldian bakarrik, izar zurbillen argita-
 ra bakarrik egin dagikena.

40

Zuri agur egitera natorrenean, irripar siñiskor
 bat daukazu begietan dantzari. Ainbat bider agur
 egin dautzut dagoneko ; zuk, alan be, beti uste
 dozu itzuliko naiatzula ; eta, egia esan, nik be
 zuk lez uste dot... Udal, irriko egunak, bada, beti
 biurtzen dira ; illargi beteak be agur dagi, ta gero
 barrero dator ; eta lorak barrero datoz adarreta-
 ra... Nik agur ba'dagitzut, zergaitik ez naz ba-
 rriro itzuliko?

Baiña bizi zaite pizkaten ames orretan; ez egi-
 zu uxatu orren latz eta mergatz ! Betiko noala di-
 ñotzudanean, siñistu egidazu ; eta, amen batez

beintzat, malkozko zapiak sakonagoak egin da-
gizala zure begiak. Gero, barrero natorkenean, ise-
kaz barre egizu nai beste nire lepotik !

41

Esan bear dautzudazan ftzik sakonenak esan
gura neuskizuz ; baiña ez naz azartuten, barre
egingo zeuskit-eta. Orregaitik barre dagit neu-
re baitan, barrenean daroadan ezkutua txantxe-
tan ezerezturik. Bai, neure oiñazea isekatzen diar-
dut, zuk irririk egin ez dagidazun.

Esan bear dautzudazan itzik egitienak esan
gura neuskizuz ; baiña ez naz azartuten, zuk ez
zeuskidaz siñistuko-ta. Orregaitik guzur-antzez
jazten ditut, eta esan nai neukenez bestera dirau-
tzut. Bai, tentelkeri ta egige dagit barneko oiña-
zea, zuk beste ainbeste egin ez dagidazun.

Zuretzat gordeta daukadazan itzik aberatse-
nak esan gura neuskizuz; baiña ez naz azartuten,
zeure onenakaz ordainduko ez daustazuzalako.
Orregaitik izentatzen zaitut lazkiro ta arrokerizko
garai-itxura dagit. Bai, 'txarto zarabildaz, nire
oiñazea ulertuko ez dozulakoan.

Zure alboan jarri nai neuke ixil-ixillik; baiña
ez naz azartuten, biotza agotik urtengo yatala-
koan. Orregaitik mintzo naz lelokeriak esanik, eta
neure itz ostean gorde oi dot biotza. Gordin joten
dot neure oiñazea, zuk jo ez dagizun.

Zure albotik joan gura neuke; baiña ez naz
azartuten, nire lotsaldia ezagutu ez dagizun. Orre-

gaitik zut daroat burua ta konturatzeka lez noa zure ondotik; barneko oiñazea, bada, beti barriz-tatzen daustazu zeure begi orrein etengabeko txi-mistaz.

42

Bai, lagun txoro, eure mozkorraldi itzal orre-tan, ostikoka atepak zabaldu ta geldotzarrarena agirian egiten dokan ori; eure ziskua gau baten iraultzen dokan ori, zurraren lepotik isekatuz ; bide bakanetatik ibilli ta gauza ezer-ezakaz jolas-ten dokana ; ez zentzunik nai ez errazoirik eraku-tsi, eure ontzi-oiala ekatxari eskiñi ta endaitza apurtzen dokana... Bai, lagun, jarrai noakik, edan eta galdu bat izango nok !

Alperrik joan yatazak, jakintsu ta zurren ar-tean, neure gau ta egunak ; asko jakiteak zuri biurtu yaustak ulea ta luzaro ernai egoteak begiak erre. Zati ta zatarrak billatu ta atontzen nenbillan bitartean urteak igartu yatazak... Zuzi egik nire altxorra, dantzatu bere gaiñean, deabruari emon egiok ; nik ba-yakiat, bada, edatea yoagula jaki-terik andiena, ta galdu bat izatea!

Beioaz Jainkoaz nire ¹ arren-zoitor galgarriak ! Gal dagidala nik, itxaron bage, neure bidea! Zo-rabiozko aize basatiak ausi dagizala nire loka-riak !... Zindo, langille, onurakor eta azkarrak beteten dabe ludia. Batzuk errez eltzen dira lenen-gora, ta beste batzuk, apain-adeitsu, bigarrenera... Doatsuak areik, eta zoritsu bekie bizia ! Nik gurago yoat arro ta zoro-zko izan, Ian oro amai-

tzen baita edan eta galdu bat egiten danarentzako !

Zin dagit; uko dagoit gaurtik duintasunerako edozein eskubideri. Agur neure jakituri arropuzari, on eta gatxari buruzko neure eritxiari ! Berra gomutaren kutxa; jarion daitela bere azkenengo malkoraiño ! Ardao gorrienaren bitsak —masta, mailluki, arakatz, granada I— bustiko dau nire barrea, ta poza ezarriko. Suminkor oinperatuko yoat ikurrin adeitsu itzalgarrria. Gauza-eza izateko, edateko, neure burua galdu bat egiteko, zin yagiat aundikiro !

43

Ez, ez, ene adiskideak, ez. Esan nai dozuena, baiña ni ez naz sekula santu izango. Bera be nigaz Jaunari eskintzen ez ba'yako beintzat... Erabagita daukat; abi bat kerizpean eta damu-lagun bat idoro ezik, ez naz ni sekula santu izango.

Ez, ez, ene adiskideak ; nik ez dot neure etxea itxiko, ni ez naz oian-bakartadera baztertuko, irripar pozkor batek neuretzat abestu ez ba'dagi zugazti bakar murmurtian, ene arnasean aren mantu oriak egaz ez ba'dagi, arek bere itz leunez basamortuko ixiltasuna sakonagotzen ez ba'daust... Ez, ez, ni ez naz sekula santu izango !

44

Aita agurgarri: Asketsi, arren, pekatari bi onei. Udabarriko aizeak, naspil zoroan, putz da-

gie gaur, eta autsa, ta osto igarrak eta zure onuak daroez. Ez eiguzu esan, aita, zorakeria danik bizitza. Eriotzaren adiskide egin gara, ta, ordu usaintsu batzuetan, illezkor gaituzu.

Erregeren gudarozteak, lakar ta basati, gure kontra ba'letoz be, burua igituko geunskioe bakarrrik, oso goibel esanaz: "Anaiak, itxi gagizuez baketan ! Joku katramiltsu au eder ba'yatzue, zoaze beste zelai batera burukatzen ! Begira, une labur au besterik ez daukagu illezkor izateko".

Beste batzuk eregu ta loxingaz ba'letorkiguz, guk agur apalez esango : "Zorion guzti au geurea da bakar-bakarrrik ; ozta-ozta artzen gaitu bizi garean zeru azkenbageak. Udabarrian, ba, lorak aldraka datoz eta erleak alkar jo daroe egada lera-tsuan. Gu biok illezkor garean zeru onetan orratz pitin bat be ez da sartzen onezkero".

45

Esaiok agur ba-doan arrotzari, ta ken egik aren oiñatzaren aztarna. Ar egik betarte alai argia, bakuna, urrekkoa... —Erioren tautik ez dakien gogoen jaia da...— Barre egik pozkor, zentzumbako, ur ezin egonean argiak lez ! Arin bebil dantzari ire bizia aldiaren amaian, orri baten ertzean iruntza iduri ! Bat-bateko kasketaldia bedi ire arpearen zegaiti bakarra !

46

Ni itxi ta zenkarren bidez joan ziñean... Samintasunak il bear nindula uste nik, eta biotzean

jarri neban zure iduri bakartia, urrezko abestian. Baiña, ai !, nire zori ergela !... aldia egaran doa-ta.

Urtez urte gaztaroa legortzen, udabarri-egunak ba-doaz, lore utsalak alperrik il, eta jakitunak aolkutzen nau bizitza loto-orri baten garo-tanta lez dala... Eta guztia laga ta begira geratuko naz nigandik joan zanari ? Au bai gizabiderik-eza ta astakeria !... aldia egaran doa-ta.

Zatoze, ba, ene euri-gauak, oin bustiak txipli-txapla ; irribar zuk, ene udazken urreztatu; erdu, ene april itxi, pa-emoille bizi... Eta zatoz zu, ta zu, ta zu be bai, illezkor gareala dakizuen ene maiteok ! ... daroanagaz biotza erdibitzea merezi ete gero, aldia egaran doa-ta ?

Eder gozo da, zoko baten ezarri ta, pentsakor, onela diñoen bertsoak idaztea : "Niretzat dana zara !" Benetan andi barne-miña janaritu ta pozari uko egitea !... Baiña beste betarte bat datorkit aterra ta bere begiak neuretara jasoten... Neure negarjarioa txautu ta abestiaren doifiva aldatuko dot... aldia egaran doa-ta.

Zuk orrela nai ba'dozu, ez dot geiago abestuko. Biotza ikaratzen ba'dautzut, nire begiok kendumuko dodaz zure arpegitik. Zeure jolasean gogai-karri ba'naiatzu, beste zidor batetik urrinduko naz. Lora batzen zabiltzanean uts eragiten ba'dautzut, ez naiatzu geiago joango zure baratz bakar-

tirantza. Nire arraunak ura asaldatu ba'daizue,
ez dot geiago neure txalupa zure ur-egaletik eroan-
g⁰...

48

Jareidazuz, ene maite, lokarri ezti oneik ! Ez
eidazu geiago emon mosu-ardao ontatik, zure in-
tzentsu astunaren lainoak biotza ito daroast-eta !
Edegi diran bestean ateak, eta betor goiz-argia !

Zugan galdua nozu, zure palaguen tolosetan
atxillo. Onez atara nagizu zuk lillura onetatik ;
emoidazu barrero lengo ene gizontasuna, neronek
be barrero eskiñi dagiketuzdan neure biotz aska-
tua !

49

Neuretan daukadaz aren eskuak, eta biotz
gaiñean estutzen dot... Aren edertasunez ase nai
neukez neure besoak; neure mosuz aren irripar
eztia ostu ; aren begirakune baltza edan neure be-
giakaz ! ... Bai, bai, baiña zelan dagiket ori ? Ze-
ruari nok arnaskatu bere urdiña ?

Ederra baitu gura dot, eta ederra iges doakit,
nire esku artean gorputza bakarrik itxirik !... Eta
oka dagit, azpiratua ta arnas-estuka. Ai ! Zelan
ikutuko dau aragiak, gogoak bakarrik atzemon
daiken lora ori ?

50

Nire biotzak, maite, gau ta egun irrikatzen dau
alkar-aurkitze ori, eriotza lez, oro-iresle, niretzat
izango dana.

Narrastu nagizu neure aurrera aize-jasak lez ;
eroaidazu daukadan guztia; arrapa loa ta eroan
nire amesak ; lapurtu egidazu neure mundu guz-
ti au; ta alako bakartadean, gogoaren billostasun
osoan, biok bat gaitez an edertasunez.

Baiña... ene bizitz-leia gaixoa ! Zelan jaritxi
dagiket barru-barruko batasun au, Zugan izan
ezik, ene Jainko !

51

Ortarakotan, amaitu egizu azken-kanta ori, ta
goazen. Eta aztu egizu gau au, gau au igarota-
koan !

... Nor eukiko dot, baiña, neure beso artean ?
Amesak, bear bada, izan daitekez gure atxillotu?

... Eta esku iskitsuz, zauritzen dauan utsaren
kontra estutu oi dot neure biotza !

52

Neure mantuan gorde neban aizetik kruselua,
ta argia itzali yatan. Lorea sakatu neban biotz
gaiñean, txera-zaletsu, ta lorea erre egin yatan.
Ura esitu neban neugana etorri eiten, eta iturria
agortu. Nire arpeak jadetsi eziñeko doiñu batera
eldu nai izan neban, eta aria eten egin yatan.

53

Ez nagizu onezkero lotsarazo begi orreikaz, ez
bait-naiatzu eskale gisan zugana eldu. Une baten

bakarrik gelditu nintzan zure larrañaren atzanean, zure baratzeko larrosondoan bestekaldean. Ez nagizu, arren, geiago lotsarazo begi orreikaz !

Ez neban larrosarik artu, ezta igalirik be zure baratzetik. Bideko kerizpean, au ez bait-yako bidaztiari ukatzen, etzun nintzan apal-apal. Baiña ez neban larrosarik ikutu.

Nekatuta neukazan oiñak eta azurretaraiño sartzan yatan euria. Intzirika ebillan aizea bambu-adar makurtu artean eta odeiak zerupear zear ariñeketan, ausiabartza batetik igeska lez... Nekatuta neukazan oifiak.

Ez dakit zer uste zenduan nitaz, ezta atean noren begira zengozan be. Oiñestuak lausotzen eutzuzan begi ernai orreik. Zelan jakin bear neban nik, zuk an illunean ikusten minduzunik? Ez dakit zer uste zenduan nitaz !

Eguna il-agiñean. Aterrunea dot. Ba-noa. Orizten dautzudaz jarri nintzan bedarra ta babestu nindun zure baratzeko azken-zugatzaren itzala. Zarratu egizu atea, ill.unduaz doa-ta. Ni, ostera, neure bidez noa... Eguna il da.

54

Nora zoaz ain arin otzara orregaz, ordu onetan ? Ez al dakizu azoka-zeia itxia dala dagoneko ?

(Danak itzuli dira ta baserriko zugatz gaiñez agiri da illargia. Potiñari dei dagioen abotsen oartzunak ibaiko ur arreak zear doaz aate basatiak lo dagien padura, zingira urriñeraiño.)

Nora zoaz ain arin otzara orregaz, azokea itxia da-ta?

(Loaren atzamarrak lurraren begiak ikutzen dabez. Bela-abiak ixilik, bai ta banbu-orriak be. Gizonak itzuli dira solotik, eta larrainetan zabal-tzen dabez euren ogetzarrak.)

Nora zoaz ain arin otzara orregaz, azokea itxia dozu-ta ?

55

Eguerdia zan joan ziñanean, eta eguzkiak in-dartsu kiskaltzen eban. Nik amaitua neban neure lana ta, zu joan ziñanean, bakarrik nengoan neu-re lo-gelan jarrita.

Aize ozkirria etorren, boladaka, urrun soloko sundaz oro betea. Usoak alkarri urrumaka, neke-gaitz, kerizpetan, eta erle galdu bat gelara sartu yatan, urrin soloko mezuak burrundaran ekarri-rik.

Atseden artzen egoan baserria, biago sutan. Bidea bakar joian. Jagi ta jausi ebillen orrien sur-murra. Nik zerura so nengian, beiñola jakin neban izen bateri izkiak aren urdiñean eiorik... Ba-serria lo zetzan biago sutan.

Aztu egin yatan ulea orraztutea, ta aize aula jolaska ebillen aregaz neure matraillan. Ibaia ba-joian, lau-lau, ertz ostotsuaren azpian. Odei zu-riak betikotzen eben euren nagi-lazokeria. Niri az-tu egin yatan ulea orraztutea.

Eguerdi zan joan zintzanean. Bideko lurra gal-
datan egoan eta solo-landak arnas-oska. Usoak
urruma gozoz orri nasi artean. Ni, barriz, bakar-
-bakarrik neure balkoian, zu joan zintzanean.

56

Ni bat nintzan ainbaten artean, eta nire bizi-
kera eguneroko leia illuna. Zer dala-ta, esaizu,
aukeratu ninduzun danen artetik ? Zer dala-ta ata-
ra ninduzun neure eguneango bizitzearen aterpe
ezetik ?

Maitasun esanbagea done da, ta ikatzarri ba-
ten antzera dizdiz dagi biotz ezkutuaren gerizean.
Baiña mugoneko ez dan egun-argitan, baltz ne-
gargarri emoten dau. Ai ! Zergaitik zarrastu zen-
dun zeure biotz-euna; zergaitik narras erabilli zen-
dun eguzkitan nire maitasun dardartia, aren abi
zurbilla betiko apurturik ?

Besteak len lez bizi dira. Iñok be ez ditu begi-
ratu barrutik, eta eurak be ez daukie euren ixilla-
ren barririk. Irripar, negar, itz ta lan, kaskarin ;
egunero doaz eleizara, euren kruseluak ixio ta ura
dakarre errekatik.

Nik uste neban aterpe bako nire maitasuna ez
zala lotsaz dardaraztuko; baiña zuk biurtu egin
dozu nigandik zeure arpegia. Zuk zabalik dauka-
zu zeure bidea, baiña ebagi egin daustazu neurea.
Ta billosik itxi nozu, gau ta egun, betazal bako
begiz begira daukadan munduaren aurrean !

57

Artu neutzun zeure lorea, ene bizitza !, neure biotzean estutu neban eta au aren arantzaz zaurituta geratu zan. Gero arrastia jausi zan, eta, illunabarrean, lorea zimel, baiña nire miñak zirauban.

Lorak eta lorak zabalduko dautzuez, ene bizitza !, euren usaiña ta antustea. Baiña areik artzeko ordua joan yat niri. Ta gau baltzean, larrosa barik nago, baiña nire miñak dirau.

58

Bein neure baratzean nengoan ni ; neskatilla itsu bat etorri ta loto-orrian lora-txorta bat emon eustan. Txorta ori neure samatik dingilizka ipiñi nebanean, malakoak ñirñir neukazan begietan.

Mosu emon neutsan neskatilleari, esanaz : Itsua zara lorak lez, eta ezin dozu ikusi, gaixo !, zeure opariaren edertasuna.

59

Emakume, etzara Jainkoaren egiña bakarrik ; gizonak be etengabe egin oi zaitue euren biotzetako edertasunez, eta arein irrirts-naiak dirdiraz jantzi dabe zure gaztaroa.

Zugaitik eundu daroa olerkariak bere urre iduritzeko miesa ; margolariak, egunetik egunera,

ezilkortasun barria eskintzen dautso zure kerari.
Zu apaintzearren, zu jaztearren, zu ederrago egi-
tearren, itxasoak bere txirlarriak emoten dauz, lu-
rrak bere urrea, udako baratzak euren lorea.

Emakume, erdi emakume ta erdi ames zaitu-
gu.

60

Bizitz-itxasoko zalaparta artean, zuk, oi Eder-
tasun !, jasoten dozu, ixil ta zirkinge, zeure arri
bakartia. Zure oiñetan, Aldi, sor ta lor, eskean
daukazu: Itz egidazu, itz egidazu zuk, ene maite,
itz egidazu zuk !

Zure itzak alan be baituran jarraitzen dau, zu-
re oztasun gordiñean, oi Edertasun aldagaitz !

6z

Artea artuizu, ene biotz; gozo bedi agur-unea !
Au ez dedilla iltea izan, osotzea baiño. Maitasuna
urtu dedilla gomutapenean eta abestietan doala
barne-miña. Zeru zear egaztu bear onek, azkenez
batu dagizala bere egoak abian. Leguna bedi, gau-
lore baten antzera, zure eskuen atzen-laztana...

Eta zu, zoazan Edertasun, geratu zaitez pizka-
ten eta esan zeure azken-itzak ixilka ; zeure au-
rrean makur naukazu, bada, bidean zuri argi egi-
teko neure argontzia jasorik !

6z

Neure amesaren arrats-zidorrez joan nintzan beñola, neurea izan zan maitasunaren billa... Eguzki bagako kale baten amaieran egoan etxea. Errege-aate kutunena lo zetzan teillatuan, illuntzeko aizetan; usoak, barriz, ixilik euren abian.

Bera, atondoan kruselua itxi ta neugana etorri zan. Bere begi aundiak neureetara jaso ta esan eustan aopeka : "Zelan zagoz, esan ?" Erantzutera noakion, baiña itzak aztu egin yatazan. Oldoztu, ta oldoztu, ta ezin gogoratu izan nebazan gure izenak...

Aren begiak negar-anpuluz beteaz joiazan. Luzatu eustan eskua ta nik ixillik artu neutson... Kruselua, zatitxo baten illunabarreko aizetan dararazita, itzali egin zan.

63

Ba-zoaz, bidazti ?... Ixildu da gaba ta itzalak aldi txarra izan dau oian gaiñean. Gure balkoietan dizdiz dagie bizi argontziak, eze lorak, zabalik oindifio gazteriaren begiak. Gu izteko ordua dozu onezkero ? Joan bearra dozu, bidazti?

Ez dautzuguz eragotzi nai oifiak geure beso leiatsukaz. Zabal-zabalik daukazuz ateak, eta zure zaldia, basta ta guzti, zain ate aurrean... Lenen gotan urteiera zarratu nai izan ba'dautzugu be, geure abestiakaz izan da bakar-bakarrik. Momentu baten geugaz euki nai izan ba-zaitugu be, geu-

re begiakaz bakarrik izan zan. Bidazti, ezin zaitugu geugaz euki. Geure malkoak ez yaku besterik gelditzen.

Zer su agor-leziñek erreten dautzuz begiak ?
Zer sukar egon-eziñek dirakizu odolean? Nundiko itzal-oiuk aizatzen zaitu? Zer ezkutu izugarri igarri dozu zuk izarretan, gaua zure biotzean orrela sartzeko, ixil ta arrotz, ixillikako aginduaz ?

Jaieko zalaparta gogoko ez ba'yatzu, bakea gara ba'dau zure biotz nekatuak, kruseluak itzungi, arpak itxi ta muturik jarriko gara ostoen surmur zurbilpean, eta illargi saminberak bere erraiñu laurak ixuriko dauz zure leioan... Bidazti, zer indar ezin-egon sartu yatzu biotzean, gau-biotzetik ?

64

Bitxabal sukartu ta austua izan yat egun.
Grain, illuntzearen esker on ezkoan, ostatu jausi ta bakarraren atera elduaz noa. Axat illun batek ormako arrakal sakonetan zear sartzen ditu bere suster egarritsuak.

Aldikada baten, ona etorri oi ziran bidaztiak euren oin aunatuak garbitzen. Larraiñean zabalzen ebezan euren ogetzarrak, eta, goiz-illargiaren argi meetara, urrutiko lurretaz mintzatzerantz jarten ziran... Argi-urratzeaz esnatzen ziran indar-barrituta, ta poz esnetan entzun oi ebezan lenengo txoriak, eta lora adiskideak be, esian buru-makurka, egun onak emoten eutsoezan.

Nik ez neukan zain inñundiko kruselu ixioturik. Aztutako kruselu guztiak itxi eben kedarra, ormatik begira daukat begi itsuz. Potzu agorreko urmaeleko sapar artean, ara ta ona dabiltz ipurtargiak, eta barbuak bere geriza jaurtzen dau bide-zidorreko bedartzara... Inñok be ez naroa beregana egunaren il-zorian ; bakar-bakarrik gau luzea daukat begira, ta nekaturik nago.

65

I al az ? Deika agokit barriro ? Gau onetan samatik dindil yaukanat nekea, maitasun eskalearen beso antzo. Dei dagistan ? I al az ?

Egun osoan izan non eurea, ene anker. Gaba be ostu bear ete daustan? Danak dau bere muga, ta itzalagaz bakarrik geratu nai yonat. Zer dala-ta zulatzen yozan ire abotsak, ni zauriturik, itzalak ?

Gau-loaren musikeak ez dagi otsik ire atean ? Zerurantzta ez dagie egaz, ire torre errukibagearen gaiñez, ego ixillezko izarrak ? Ez al dira lorak inñoz jausten, erio gozoan, ire baratzeko auts gainera ?

Dei dagistan? Dei dagistan? Bai ! Negar begie ba, alperrik maitasunaren begi itunak, eta begoz zain ! Agortu bedi kruselua etxe utsean ! Txalupeak biurtu begiz landako gizonak euren sukaldeetara ! Or geratzen dozan ene amesak ! Eugaz naioan !

66

Gogo bat egiña, nasi ule gorri autsez betea, agor agoa, itxirik biotz-atea, su-dario begiak, lagun-min dan ipurtargiaren argontzi antzera, zoroa iku-arriaren billa ebillan.

Itxas neurrigabeak orro aren aurrean. Olatu nekegaitzak, eten barik, itz egien euren altxor ez-kntuetaz, ulertzen ez ebazanaren ez-jakiña nardatuz. Bear bada itxaropen barik ebillan, baiña ez eban nai atsedetik, aren bizitza onezkero billaketa baiño etzalako.

Itxasoak bere besoak, aspertzeka, zeru eziñera luzatzen dabezan lez; izarrak, obo betikorretan, muga ez-ezagunaren billa doazan lez; zoroa, ule gorriak izerditan, ondartza bakarrean zear ebillan arat-onat, iku-arriaren billa.

Bein, erriko umetxo batek esan eutson: "Entzun, nok emon eutzun gerrian daroazun urrezko kate ori?" Zoroa, izuak artua, so ta so ingurumari. Bere burdin-katea urrezko zan ! Etzan amesa, ez; baiña etzan gogoratzen aldatzeaz. Eta, amorruren amorruruz, bekokia joten eban. Nun, nun aurkitu eban arria, jakiteke? Oitura au eban: arri koskorrak jaso, eurakaz katea ikutu, eta, burdiña urre biurtzen zanentz begiratu barik, barriro jaurti; ta orrela, aurkitu eban iku-arria, baiña barriz galdua eban.

Jatsiaz joian eguzkia, oso bee, ta urre zan zeru guztia. Zoroa asi zan atzera ibillitako bidetik, altxor ga]duaren billa, indar barik, soin abaildu, biotza autsean, erroz-gora zugatza lez.

67

Gaba eldu arren, astiro, eresiak itzaliz ; beste txoriak lotara joanda, zu nekatu rik egon arren ; ganduan izuak arnas ta ortzi-sabaia estali arren, entzun eidazu, ene txori !, ez egizuz egoak itxi !

Ez, ez dira oian itsuko itzalak, itxaso a dozu sugetzar baltza lez puztuten dana; ez dozu jazmin loratuaren irra, bitsaren ertza baiño... Nun, nun dago eguzkizko ur-egal orlegia ? Nun zure abia ? Ene txori, entzun eidazu, ez egizuz egoak itxi !

Gau bakartia zearka daukazu bidean, eta argidiria lo mendi aiñutsu ostean. Izarrak, arnas-utsi, ordu zenbatzen diardue. Illargi makalak zeru-sakostan igeri. Ene txori, entzun eidazu, ez egizuz egoak itxi !

Ez itxaro ez bildur, ez dira zureak ! Ez dago zuretzat ez itzik, ez antsirik, ez garrasirik, ez sueterik, ez abirik ! Ego biak daukazuz bakar-bakarrik, eta zeru-azpikia bide bage ! Ene txori, entzun eidazu, ez egizuz egoak itxi !

68

Anai, iñor ez da betiko, ta ezek ez dirau. Gogora au, ta poztu zaitez.

Ez da gure bizia zama urtezu bakarra, gure zidorra bere ez bide luze bakarra. Olerkari bat be ez dago eresi zarra abestu bearrean. Lorea zimel-

du ta il; baiña bera daroanak ez dau a betikoz
negartu bear...

Anai, gogora au, ta poztu zaitez.

Ixil osoa elduko, ta musikea orduan bete-betea
izango da. Sarkaldera jausiz doa bizitza itzal urrez-
tuetan itotzeko. Maitasunari dei egin bear yako
bere jokotik, miñak edan ta negarren ortzira igon
dedin...

Anai, gogora au, ta poztu zaitez.

Artu daiguzan, egaran, geure lorak, ibilli da-
billen aizeak ostu ez dagiskuzan. Gure odolak di-
raki ta begiak ñarñar, aztuko ba'genduz zimeldu-
ko litzakezan mosuak osturik. Gogotasuna dogu
bizia ta oldarra gure naia, aldia il-kanpai-joka da-
go-ta.

Anai, gogora au, ta poztu zaitez.

Ezin geinkez, begi itxiedegi baten, gauzak be-
sarkatu, zatitu ta autsera bota. Iraduz dabiltz or-
duak, amesak mantupe. Biziak, lan gogaikarriz
azkenge, maitasunerako egun bat damosku ba-
kar-bakarrik.

Anai, gogora au, ta poztu zaitez

Ederra ezti yaku, aren dantza-neurkera alda-
korra geure biziena dalako. Jakitea garesti yaku,
berau osotuteko astirik ez dogulako. Betikoan da-
na dago egiña ta amaitua, baiña lurreko amesa-
ren lorak beti-betikoz mardul ezeak doguz, erio-
tzari esker.

Anai, gogora au, ta poztu zaitez.

Emon barreari, lagunak, nai ba'dozue, urrezko oreiñaren atzetik nabilda ; baiña ni jarrai ta jarrai nabilkio iges dagidan ikuskari orri.

Mendi ta ibarretan zear, izen bageko lurretatik, urrezko oreiñaren atzetik ibilli nabilke.

Zatoze zuek, ordu onez, azokara, ta biurtu zamaturik zeuen sukaldeetara ! Ni, ez dakit nun ez noiz, zoko bageko aizeen lillurak artu nau. Neukan guztia lurrera jausten itxi dot neure ibil-bearrean. Neure biotz azkea geratzen yat bakarrik !

Eta mendiak eta ibarrak, eta izen bageko lurrak eta lurrak, igeska doaz nigandik, aspertu bari urrezko oreiñaren atzetik nabillen onegandik !

Garilleko egun busti batean, ni ume nintzala, ingizko ontzi bat egin eta erre kara jaurti neban. Ni bakarrik nengoan, eta zorionsu bai nintzala jolas aregaz !

... Eta erre kara jaurti neban neure ingizko ontzia.

Odeiak baltzez jantzi ziran, aize-erauntsia igarozan eta uiola jausi zan zerutik. Eta ur loiak, zabal ta oldarkoi, eroan eban nire ontzia.

Eta nik uste neban saminkor, ekatxaren indarra neure zoriaren aurka izan zala bakar-bakarrik, aren kalte guztia neuretzat izan zala bakarrik.

Gaur, garilleko egun lainñotsu luze onetan, gogora nekarzan nik beti galdu oi neban bizitz-joku orreik. Agiraka egiten neutson neure zoriari bat eta ainbat maltzurkerigaitik; eta, bat-batean, gogora neban erreka uretan joan yatan ingizko ontzi txikia...

71

Egun da oraindiño eta ibaiko azoka be zabalik dago oraindik. Bildur nintzan, aldi ta diru, osoan galdu ete nebazan. Baiña ez, anai, oraindik geratzen yat zerbait ; alanbearrak ez nau oso-osorik soildu.

Amaitu dot neure garatza. Ar-emonak asakatu dodaz eta neure etxetxora noia barrero. Zer ordaindu bear dautzut, atezaiña ? Bare zaitetz, oraindik geratzen yat zerbait ; alanbearrak ez nau oso-osorik soildu.

Aizea geldi, ta osertzeko odeitzar jausiak ez dakarre ezer onik. Ur, ixilla, erauntsiaren zain. Ibaia igarotzera noia, illuna gauaz jabetu orduko. Zure ordaiña, aurki, ontzikari? Bai, anai, oraindik geratzen yat zerbait ; alanbearrak ez nau oso-osorik soildu.

Bidean, zugatz baten mokor ondoan, or eskeko bat jezarrita. Zein itxaropen ergelez begiratzen nauan ! Diruz zamatua natorrela uste dau, antza! Bai, anai, oraindik geratzen yat zerbait; alanbearrak ez nau oso-osorik soildu.

Gau andi da, ta bidea bakar. Ipurtargiak ñar-ñar orrietan. Nor ete dot ixil ta ezkutuka atzetik

datorkidan ori ? Ostu nai daustazu, e ? Ez, ba, etzara joango esku utsik, oraindik zerbaít gera-tzen yat-eta ; alanbearrak ez nau oso-osorik soildu.

Gauerdian, esku-uts, eltzen nazanean, zu atean zaukadaz Lain begi leiatsu, ernai ta mutu ; ta neu-re biotz gaiñera zatoz, txori bildurri antzera, mai-tasunez betea. Bai, bai, ene .; ainko, zenbat gera-tzen yatan oindiño ! Alabearrak ez nau oso-osorik soildu !

72

Eleiza bat —bai neke luze !— jaso neban. Ez eukan ez aterik ez leiorik, eta aren ormak arri bi-ziz egiñak. Mundua itxi, oroz aiztu, ta, zurtua, neronek opalmaian jarritako iduria begirutzen ne-ban egunero.

Orio usaintsuzko kruseluak su egien eten barik eleizako gau illun soillean ; eta intzentsuaren ke etenbageak ingurutzen eustan biotza bere inguru-bil astunean.

Ormetan margoztu nitun, begirari betikor, ame-tsezko iduriak, bideoker-une bakanetan —zaldi egodunak, giza-arpegizko loretiak, emakume su-geak—. Ez zan zulo-zirkurik gelditu ezerentzat be, ez txori-abestientzat, ez ostro-surmurrentzat, ez uri leiatsuko iskanbillentzat ; •ezek be an ez eban sarrerarik. Neure agoan bakar-bakarrik, lillura-penak abestuz, geldiro ta ozenki, oiartzunak itxar-tzen ebazan goiko sabai illunean.

Ene adimena zorrotz ta tinko biurtu zan su-lama baten erpiña lez, ene zentzunak barriz izenbakeko zorabioan jausi ziran.

Ez dakit zenbat lez egon nintzan orrela. Egun baten, alan be, oiñestarrri batek jo eban eleiza, ta oiñazez erdibitu eustan biotza.

Lotsor eta aul, dardarazi zan kruselua. Ormetako naste-borrasteak ames kizkurtu antzera ziran, argitan zentzunik bage, ta euren buruak gorde nai ba'leukeezan emoten eben. Opalmaian, irribarreka agiri zan iduria, Jainko biziaren ikutuz bizi.

Eta gauak, ene atxillotzailleak, edatu ebazan bere egatsak beti-betiko...

73

Aberastasun konta-eziña ez da zurea, ama zurbil auts etsia. Lan eta lan dagizu zeure semeen agoetarako, baiña ez yaku naiko zure jakia. Egundo be ez da oso zure poz-emoia. Argaltasuna dozu zeure semeentzat dagizun jostaillu... Ez, ezin zeinkez asetu gure itxarokizun gosetiak... Baiña, ta origaitik itxiko zaitut ?

Ez. Barren-miñez lausoturiko zure irribarre ori ezti-leuna yake nire begiai. Egipenik bako zure maitasuna eder dau nire biotzak.

Zeure altzoan emon dauskuzu bizitza, ez baiña ezilkortasuna ; ta beti zaukaguz begi-urduri. Margo ta abesti zenbat ipiñi dozun, gizaldiz gizaldi, zeure zeruan, oraindik itxaropen mengel baiño

eztan zeure zeru orretan ; eta irazan edo sortu dozun edertasunez gain, beti dabil narras malkozko gurmea...

Eukizuz, alan be, nire kantak zeure biotz ixillerako, nire maitasuna zeure maitasunarentzat. Lanez nekaraziko zaitut, zure arpegia leuna bai dot ikusi; ta maite zaitut, auts itun, lur ama !

74

Bizitzako auzitegian, bedar-mintz gaixoa be eguzki-izpia jarten dan oin-oial berean jarri oi da, ta gauerdiko izarren artean. Munduaren biotzean, orobat, ene abestiak jarkide dabez aulki aundian odeien musika ta zugaztiko kanta.

Baiña zure dirutza, oi zeken ! , ez _ dago eguzkiaren urre alaizko aunditasun xaloaz, ezta illar-gi oldozkorraren ditzira meiaz be. Zeruak mundu gain zabaltzen dauan onespena, ez da jausten zure ogasunetara. Eta eriotza eldua danean, larutu, zimeldu ta autsean jausi oi dira.

75

Gau-erdian, gizonak esan eban : "Ordua dot neure etxea itxi ta Jainkoa billatzeko. Nok euki nau lau mutur ain luzaro ?" Jainkoak erantzun eutsan bare-bare: "Neuk". Baiña gizonak ez eban ezer entzuten.

Ama lo egoan gozo, bularrean lokartutako umetxoaz, oge alboan. Gizonak au esan eban : "Nortzuk zarie zuok, ain luzaro lau mutur euki nozuenok ?" Jainko-abotsak barriro oiu: "Orreik Jainko dozuz". Baiña gizonak ez eban ezer entzuten.

Umeak garrasi egian lotan, bere amaren kontra estuturik. Jainkoak esan eutson gizonari: "Ago gldi, tenteltzar ; ez egik itxi eure sukaldea". Baiña gizonak ez eban ezer entzuten. Eta Jainkoa intziri mingor: "Zergaitik etorri gurako yok Nigana, Ni itxirik ?

76

Azokak bizi-bizi irakian jauretxe aurrean. Egun-argitzetik euria zan zara-zara, ta gain etorren arrats apala.

Lagunabarraren poz-barbullean, ezer be etzan, palma-txistua lauko baten erosi eban neskatoaren ezpan,irria baizen dirdaitsurik. Eta txistu aren alaitasun zoliak, barre ta zalaparta oroz gaiñetik igeri egian.

Azkengabeko jentetza etorren, alkarri sakaka. Bidea lupetzez, ibaia azita, soloak itorik.

Gizateriaren zoramen gogaikarrian, ezek ez ekarskun makil margoztu bat erosteko laukorik be ez eukan mutil koskorak aiña tximika ta biotz-tamal. Eta aren begi minerituak dendako erakus-tokian josirik ikusita, negargarria iduritu yantan ango jente guztia.

Emakume ta gizon, beiñola sarkaldetik eldu ziran lapikogilleak, basea atxurtzen dabe. Neskatoak, erratilloak eta sartaiñak garbitzen ditu errekan. Mutikotxoa, buru-soil, soin txiki baltzerana lupeztua, jarrai doakio pizkaten, eta, neskatoak esan dautsonez, munan etxaiten dautso artetsu. Ta neskatoa, amaren neskame zoli, etxera dator atzera, buruan errada betea, eskuman maskelua ta ezkerrean umea ditularik.

Egun batean, jarrita egoan mutikoa, billos-billosik, anka-zabal. Neskatoak pertza bat lurraz garbitzen ziarduan, irabildu ta irabildu. Bildostxo bat erre kara begira, txit ezti. Beingoan, umetxoagana joan zan, zoli be zoli beeka, ta umetxoak negarrari emon eutsan. Neskatoa, bere pertza itxirik, umetxoagana joan zan ariñeketa baten. Eta, umetxoa beso batean eta bildostxoa bestean, arein artean banatzen eban bere biotz-maitasuna, abere-semea ta giza-semea bere maitasun-lokarriz korapilloturik.

Maiatza zan. Iretargi beaztuntsua betikotuz joian antza, ta lur legorra egarriaren egarriz edegiten ; onetan, ots bat eldu yatan erriberatik, iñostana : "Erdu, ene maite". Neure liburua tolestu ta leioratu nintzan. Ur-ertzean basabei itzal bat, lupetzez kuin-kuin, uretan bclauetaraiño

sartuta, erre kara dei egitson mut ikoari begira e-goan, atsegifiaren mende.

Barre-purrustadaka ni... Aize-bolada gozoa eldu yatan biotzeraiño.

79

Noizik-bein neure buruari itaun dagitsot, ia zek banantzen dauan gizona abereagandik, onen biotza ez bai dau ifiundiko giza-miiñek ulertzen.

Nundiko aspaldi goizez, nundiko len-atsegin-baratzez, nundiko sor-izatez, doa arein biotz biak aitzen ziran zidor argitsua? Oraindik ez dira, ba, a.tzindu euren ibilli bikiaren lorratzak, aren kide-tasuna oso antxiñatik aitzua dan arren...

Itzetik ortzera, gomuta lokartua itxartzen, tautik bageko musikaz urtua ; ta abereak gizonari so dagitso begietara on uste samurretan, eta gigonak begietan so abereari irripar onberatsuz. Adiskide biak erdi-ezagutu bide dira, euren koko itxuraz barruna...

80

Goratzen zaut, emakume, begirada batez arpeari bere aberaski oskidetsu guztia ostu daikeozulako, ta aren kantarik be ez dozu entzuten.

Agurtzen zaut, munduko bururik arrokenak apalazo al izan arren, lurreko ez-ezagunak maite dozuzalako.

Biotz-ikutzen nozu, beso orreik, ederraren ede-

rrez bakaldun bateri dirdaia geitzeko lain diranok, zeure sukalde apalean egunean-eguneango morroi dozuzalako.

8r

Zergaitik mintzo zakidaz ain ixil belarrira, ene Erio ?

Arratsez, lorak makurtzerakoan, eta abereak zure okuilluetara doazanean, zu niganafio zatoz urrats-bigun, eta aitzen ez dodazan itzak diraus-tazuz...

Eta zeure surmurraren lilluraz ta zeure mosu iarrez maite-minduko ete nozu, ene Erio ?

Zeremonien dirdaiak ez ete aztituko gure ez-tegua ? Ez al dozu apainduko lora-sortaz zeure uledi kizkur gorria? Ez ete da iñor joango zure aurretik, zeure ikurriñaz ? Zure zuzi odolduak ez dabe gaua argituko, ene Erio ?

Bai, zatoz, zeure marraskulo joaz, gau ernai-an ! Jar eidazu zeure mantu gorria, ar ene eskua, zabiltz ! Neure atean entzun nai dodaz zure burdiaren zaldi artegatsuen irrintzi zoliak ! Jaso ene zapia, so arrosko ene arpegia, ene Erio !

8z

Gaur gabea, bera ta ni erio-jokoan jolastuko gara

Dana baltz gutar ta burubage dabiltz ara-ona odeiak, eta itxasoko olatuak txolin ero... Geure

amets-ogea itxi, atea dan bestean zabaldu ta kalera.

Eta tilingan jarri gara, ta ekaitzak bultz dagisku zoro be zoro atzetik. Bera, izu-laborrian, poz ta bildur batera, lurlean etzun eta, dardar, nireganatu da.

Zenbat denporaz izan naiako bere maitasunjopu guri ? Lorazko ogea egin neutson, eta ateak itxi nebazan argiak begietan emon ez egion. Ezpanetan mosutu neban bigun, eta belarrira mintzo nintzako samur-bera lillurazo arte... Azken bagako lainotan galdu yatan, gozotasun bilduan. Ez eustan eskua somatzen, ezta nire kantak itxartu be.

Bart, ekaitzaren abotsak ondartzatik dei egiskun. Bera, soin-dardar, zutik jarri da, eskutik artu nau, ta kalera.

Aren adatsa aizetan egaz, aren zapiak dardar biziro, lora-txortak surmur dagitso bular gainean. Eriotzearen bultzakadak jaurti eban bizitzara, ta orain biok gagoz, begiak begi, biotzak biotz.

83

Bera aldatz-barrenean bizi zan, artotza ondoan. Iturri bat etorren beerantza aritan, irri-algaraz, zugatz zarren kerizpe gurenean, eta emakumak ara etozan erradakaz ; bai ta bidaztiak be ara etozan aren bakean atsedendu ta itz egitera.

Gau baten, ara jatsi zan gaillur aiñubetsuko arrotza be. Ule-tximak, loak arturiko suge antzera ekazan naspil ta kizkur. "Nor zaitugu ?", itandu

geuntsan arriturik. Tautik esateke, iturrian jezarri zan, aren txabolarantza begiak zorrotz. Eta, oso gaututa, biurtu gñan, geure biotz dardaraztuaz.

Biaramon goizean, emakumak izai-iturrira uretan joan ziranean, aren atea zabal-zabalik aurkitu eben, baiña etzan aren abotsik ; eta nun zan aren arpegi irribarrez betea ? Txangilla beian zetzan ur barik, eta aren kruselua itzalita. Iñok be ez eban jakin nun idoro zeikean goizak. Arrotzik be etzan an agiri.

Maiatzean, eguzkiak jo ta edur-urtze. Iturrian jarrita, negar egiten genduan, geure kautan esanaz : "A joan dan lurraldean ba ete da gero, egun egartsu oneitan bere errada bete daikean iturri bat ?" Eta batak besteari guk itaun, zurbil: "Ba ete da beste lurrik mendi oneik baiño aruntzago ?"

Eta eldu zan uda-gaua. Egoaldeko aizeak putz, eta ni jarrita nengoan aren gela illunean, kruselua itzungita. Bat-batez, mendiak ostendu ziran nire aurrean, itzalkari batzuk tolestu bai'litzan. Bera zan etorri etorrena ! "Zoriontsu az, alaba ? Esain, zek estalpetzen auna zeru edegi onen azpian ? Eta, ai !, ez daukan emen gure iturria egarria arindu dagizun ?"

"Au da zeru bera", esan eban, "mendirik bage"; au da iturri bera, ibai eginda ; lur bardiña, lauan zabaldua... "Oro dago emen", nik intziri, "gu ez gagoz bakar-bakarrik !" Berak barre itun-kiro, esanik : "Neure biotzean zagoze". Itxartu nintzan, eta iturriaren murmur gozoa ta izaien ostotsa nentzun, gau altzoan.

84

Arroz-sail laru muskerretan zear iges doaz odei-murruak iradu, udazkeneko eguzkiak erasota. Erleak ez doaz loretara eztingai billa ; argitan mozkor, burrun-burrun dabiliz, zorapenezko egadan. Ibaiko izaroan, istillu pozkor ganorabakoa darabille aateak...

Gaur goizean ez bei ñor itzuli bere etxera ! Ez begi ñok lanik egin ! Zeru oztiñari eraso ta suntsitu bear dogu, zoro antzo goiak igarorik ! Bebil barre-algara eguratsean, ibaian bitsa lez ! Onda daigun goiza, buru barik kantaka !


85

Zuk, ezagun ez zaitudazan orrek, eun urte gi-xienez daukiezan nire bertso oneik irakurtzen dozuzan orrek, entzun

Ezin daiketzut eskiñi udabarriko altxor guzti-ko lora bakar bat, ezta urrezko odei onein argi bakarra be. Baiña edegi zeure ateak eta begira ; artu, zeure baratzeko loredian, orain eun urte il ziran loren oroipen usaintsua.

Eta nabari al izan dagizula zeure biotz-poztasunean, apirilleko goiz onetan, eun urte zear, zorionezko kanta gozoan bialdu dautzun alaitasun bizia !

Azkena



LIRIKU ESKINTZA

z

Zure naia izan zan ni azkengabe egin ninduna. Nire murko, edontzi auskor au zuk ixurtzen dozu bein eta barrero, ta zeure bizi barriz bir-beteten dozu.

Zuk eroan dozu aran ta menditxoar kañabe-razko txilibutu txiki au, ta bertan jo ta txistutu dozuz kantu ereskinsu beti barriak.

Zure eskuen ikutu ezilkorrez, amai barik zabalduz doa nire biotz pitiña poz-atsegin euritan, eta bizia damotsa ezin esan alako esakunari.

Zure bezuza, erregalu azkenbagea, ene esku-txo lander oneikaz artu dagiket bakar-bakarrik. Eta gizaldiak ba-doaz, anez, ta zuk ixuri ta ixuri diarduzu, ta beti daukie areik betetako tokia.

2

Zuk kantar oiuzkatzeko diñostazunean, biotza poz-arrotasunez ausi bear yatala, dirudit. Begiraten zaitut, eta negarrari emoten nik.

Ene bizitzan gordin eta mergatz dan guztia, ur biurtzen yat ez dakit zelako eres-gozotasunean, eta gurtzeak bere egoak zabaltzen ditu, itxasoa iga-roz doan txoria baizen pozkor.

Ba-dakit zuri eder yatzula ene abestia, ta abes-lari legez natorkizu soil-soilki. Eta neure abesti ego txit zabalduaren ertzez, iñoiz jaritxi al izan-go nebazan usterik izan ezdako zure oiñak iku-tzen dodaz.

Eta abesten dot, eta abestiak mozkortu naroa, ta nor nazan be aiztuten dot, eta adiskide diño-tzut zuri, ene Jaun zarean orri.

3

Zelan abesten dozu Zuk, Jauna ? Beti zauka-daz arri ta zur, ixillik !

Zure musikaren argiak ditzikor jarten dau mundua ; aren arnasa zeruz zeru doa, aren uar doneak arriarte ta legar guztiak garaitzen ditu, ta ba-doa txaramelo bizian, aurrera ta aurrera.

Nire biotzak bat izan nai zure kantuaz, baiña alperrik billatzen dau bere abotsa. Itz egin nai dot, ta alan be nire itza ez da zabaltzen ozenki-ro ; eta deadar dagit azpiratua.

Ai, zelan artzen daustazun biotza, Jauna, zeu-re musikaren matasa murgil etengabeaen !

4

Beti garbi zaindu nai dot neure gorputza, ene biziaren bizi, zeure lorratza en gain bizirik itxi dozun ori.

teeko bitxiak lurrera jausi, zer dautzu zuri ! Zatoz, arin-arin, bedartzatik !

Begira zelako odeitzarrak goi-ganga zear ! Zigoñak aldraka jagiten dira ibaiaren bestekaldetik, eta aizeak orru dagi basamortuan, zirimoltsu. Abelgorriak, bildurrez, okuilluetara doaz azkarki. Begira odeiak zeruan zear !

Zetako artzen dozu kruselua begiratu naiez ? Ez dakuszu aizeak itzungitzen dautzula? Nok jakin dagike kedarrez ez dozuzala begiak margoztu, ekatxa baizen baltzak dozuz-ta ? Zetako artzen dozu kruselua bertan begiratu naiez ?

Erdu zagozan lez ; etzaitez geiago txukundu ! Zer dautzu zuri lora-txortea amaitzeko egon arren ? Laga egizuz onezkero eskuturrekoak be ! Ez dakuszu zeru azpia ekaitz-jasez? Oso berandu da gero ! Erdu zagozan lez, etzaitez geiago luzatu !

I2

Txangilla bete gura ba'dozu, zatoz, zatoz neure aintzirara. Nire ura zure oiñetara batuko da, ta aopekkoa esango dautzu.

... Gain datorkigu ekaitza, ta ondarreta illun; bee-laiñoak, zugatzen adaburu oztiñean, zure adats astuna zure bekokian lez dira. Ba-dazaut ondo be, biotzean taupa-taupa daukadan zure oinkaden ibilli neurtua.

Zatoz, zatoz neure aintzirara, txangilla bete gura ba'dozu.

Txangilla bete gogo ez ba'dozu, uretan igeri itxi naiago ba'dozu, zatoz, zatoz zeure nagiera-betasuna neure alboan jar-azotera.

Aldapa muker dago, ta nire zelaiko lorak batbanatu ezin aiña dira. Gogorakizunak zeure begi baltzetatik joango yatzuz, abietatik egaz dagien txori antzo, ta zapia be oiñetara jausiko.

Zatoz, zatoz neure aintzirara, zeure txangillea bete nai ez ba-dozu.

Beste zeure jokuekaz gogaiturik, uragaz jolastu nai izan ezkeru, zatoz, zatoz neure aintzirara.

Itxi ur-ertzean zeure mantu urdiña, ur oztiñak gordeko dautzu-ta. Olatuak, barriz, zure samea mosutu ta belarriak intziraka zuri gozatzearren, beatz-gaiñetan jarriko dira.

Zatoz, zatoz neure aintzirara, uragaz jolastu nai ba'dozu.

Zoratu egin ba'yatzu ta iltea nai, zatoz, zatoz neure aintzirara.

Otza da nire aintzira ta ez dau ondorik ; illuna, ames bagako loaren antzera. An azpian, gau ta egun bardiñak, eta abesti oro ixillaldia.

Zatoz, zatoz neure aintzirara, zoratu egin ba'yatzu ta iltea nai.

Ez neutzun ezer eskatu. Esparruan geratu ta zain egon nintzan zugatz-oiñean... Egunsentiaren begiak lo-gura ziran oindiño, iñontza be egura-

eta erauzi egizu, sustraitik atara egizu, ni konturatu barik eguna amaitu ez dakidan, eta eskintzarako garaia igaro.

Beronen margoa ain aul izan arren, eta oso urrin beronen atsona, tira !, ar egin lora au euretzat ; atara orain, garaia bai don !

7

Nire abestiak, kaxkar ta mei, bere soiñeko apaindurak erantzi egin ditu zuretako. Areik, bada, galazo egingo euskuen bion arteko alkarpena ; aren dindilin-dandalan otsak, berriz, gure asperen-intziriak ito-erazo.

Lotsaz ilten da zure aurrean nire olerkari-goranaia. Oi Jaun, ene Olerkari ! Emen naukazu zeure oiñetan auzpez. Itxi eidazu bakar-bakarrik bizi artez laua dagidan, kañaberazko txirul antzera, Zuk musikaz bete dagizun.

8

Umeak galdu daroa olgetarako jasa, kate aberats askoz ta erregegai-jantziz dotoretua, aldean daroazan apaingailu orreik eragozpen bait-yakoz pitean bein.

Ezer ikutuz urratu edo autsez ez loitzearren, gizartetik aide dagi, eta ikerarik egiten be ez yatzu azarten.

Ene oldozkuna (pentsapena) be beti euki bear dot guzurretik azke ta jarei, Zu bai zara nire bekokian adimen-argia ixetu dauan egia.

Gaitz orotik jagon nai dot biotza, eta nire mai-tasuna be bego beti loratan, Zu zagoz ba fire ari-maren tokirik sakon ezkutuenean jarrita.

Leiatsu jardungo dot gaiñera neure egikizunetan Zu azaldu ta iragarten, ba-dakit bada nire bearra indartzen dauan sustraia Zu zareala.

5

Lipar batez errukior zaitez nitzaz, eta itxi egidazu zure ondoan jarten, esku artean daukodan egitekoa gero amaituko dot-eta.

Nire biotzak, ikusten ez ba'zaitu, ez dau atsendenik, eta nire lana azkenbako joran antzekoa da ondartzarik ez dauan itxaso neketsuan.

Udea gaur etorri yat leiora, burrunba ta intziriz ; bai ta etorri dira erleak be, oian loratuko jauregian bertsolari.

Zure alboan, aurrez aurre, geldi jarteko ordua da, atsaldi mutu ta gaiñezkako baten, neure bi-ziaren eskintza Zuri kantetako ordua.

6

Abil, ez egin itxaron geiago ; artu loratxo au, zimeldu ta orriuldu ez dedin.

Bear bada ez don arentzat lekurik izango eure txortan ; baiña omen egion, eure eskuz estuturik ;

Ezer irabazten dau arek, ama lurreko auts osasungarritik alde-eragiten dautson jazkera orren jopu ta morroi izanaz? Gizon guztion bizitz-jai aundian sartzeko eskubidea ez ete dautso ostuten ?

9

Arlote, zu zeure burua sorbalda gaiñean eroan gura dozun ori ! Eskale, zeure etxeko atera bertara eske zatozan ori!

Itxi egizuz karga guztiak, guztia al dauan Aren eskuetan, eta ez iñoiz be atzerantza begiratu, barrren-miñetan.

Zure gurariak beingoan itzungi daroa arnasaz ikutzen dauan argi-ontzia. Ez egizu esku loiekin aren emoi kaltegarririk jaso ! Ar soilki maitasun sagaratuak eskintzen dautzuna !

10

Zeure aulkia daukazu, ta zure oiñok txiro, apal ta galduenen artean atsedean artzen dabe.

Zure aurrean makurtu gura dot, baiña nire makurtzea ez da egundo be zure oiñak txiro, apal ta galduenen artean atsedean artzen daben lezaraiñokoa.

Arrokera ezin daiteke Zuganaiño eldu, errukarrien jantzitan bait-zabiltz txiro, apal ta galduenen artean.

Nire biotzak ez daki bere zidorra aurkitzen, txiro, apal ta galduenen artean Zu zoazan bakarzaleen zidorra.

II

Itxi onezkero eresi-kanta ori, lelo-oiu ori, agurtz-aleak igaro ta bir-igaro bear ori. Nor gurtzen dozu, esan, jauretxe itxiko zokondo illun bakar orretan ? Edegi begiak, eta ikus zure Jainkoa ez daukazula aurrean !

Lugin ta nekazariak lur latza atxurtzen dauan lekuan dago Jainkoa ; arri-txikitzaillak arria apurtzen dauan tokian areikaz dabil, euri ta eguzki, autsez soiñekoa. Erantz soin-gaiñeko sagartu ori, ta jatsi zeure Jainkoagaz lur-zati autsez bettera !

Askatasun ? Nun nai dozu askatasuna idoro ? Ez ete dautso bere burua lotu, pozez gaiñezka, Izadiari ? Bai, guri guztioi beti-betiko lotua dago !

Urten onezkero zeure zorabio-alditik ; itxi dagoneko lora ta intzentsu orreik ! Zer deutso zure jantziak loitu edo dendel ta dindirriz bete arren? Zoakioz bidera, jar zaitetz bere alboan, ta ekin lanari, ta bego izerditan zure bekoki ori !

I2

Zenbat dirau nire joanaldiak, ta bide onen luzea !

Lenengo egun-urratzearen burdian urtena naz, munduetako basamortuetan zear ibillia, izan azken bakoetan be neure oiñatza itxirik.

Biderik luzeena Zugana ariñen urteten dana dozu nunbait, eta irakaspenik atze-aurrez nasie-

nak be ez daroa melodi lau gozo baten osotasu-nera baiño.

Bidaztiak dei egin bear dau, bein eta barriro, ate arrotz guztietan berenera eltzeko ; kanpotiko lurbira guztietan zear ibilli bear dau alderrai, azkenik bere barne-eleizara eldu nai ba'dau.

Nire begiak zoko guztietan ibilli ziran ara ta ona, nik itxi orduko, au esanaz: "Emen zagoz". Eta gedarra ta itauna: "Ai ! Nun baiña ?" malkozko milla erreketan urtzen dira, ta mundua ito daroe "Ni naz" aren ugoalde eutsi-eziñez.

13

Nire abestia, kantatzera etorri nintzanekoa, oraindik be kantatu barik datza.

Jogailluaren ariak zolitzen joan yataz egunak ; baiña ez dautsot aurkitu bere tonu doi-doia, ta itzak ez etozan egokiro. Bakar-bakarrik isiaren il-agiña ene biotzean !

Lorea ez da oraindiño edegi, aizeak oiur soilki.

Ez dautsat arpegirik ikusi, ez dot entzun aren abotsik ; aren oin-otsak leunkiro entzun ditut bakarrik, neure leioan makurtuta, bidean.

Neure bizitz-egun amaibagea emon dot Bere tzat oin-oiala edatzen ; baiña ez neban kruselua ixetu, ta ezin daikeot esan sartzekorik. Aurkituko dodanaren itxorakizunez bizi naz ; baiña noiz aurkituko dot ?

14

Nire irritsak azken bageak dira, mingarriak nire deiak ; Zuk, alan be, ezezko gordiñez gaizkatzzen nozu beti. Eta zuzenezko mesede onek alde-rik aide zulotzen daust bizia.

Egunak joan egunak etorri, nik eskatu barik emon zeustazan doe andi ta bakanen duin egin ninduzun : zeru ta argi, ene soin, ene bizi ta adimen ; eta onez atera nozu, egunik egun, gurari zakarren zirimoletik.

Noizik-bein berandutzen naz zabar ta itxikor, nozik-bein itxartu ta lerrenak dagidaz neure azken billa ; baiña Zu, latz ta mergatz, nigandik kuku.

Egunik egun, buruari uko egin bearrez, irrits aul ta sendoezen arriskutik azkatzearren, apurka, oso Zure ni egiten diarduzu.

15

Emen naukazu Zuri eresi joteko. Zure areto onetan dago nire txoko pitiña.

Ez dot zeregiñik zure mundu onetan ; nire bizitz baldanak, melodi zentzunbageetan jalgiten ez daki besterik.

Gau-erdiko eleiza illunean Zu ixillik gurtzeko ordua joterakoan, agindu egidazu noala Zuri, ene Maixu orri, abestera !

Urrezko jogailua (arpea) goiz-aizetan soiñu-gertu daukodanean, omendu nagizu Zuk zeure aurrera agertzeko esanaz !

16

Mundu ontako jaira deitu ninduen, eta nire bizia orrela onetsia izan zan. Nire begiak ikusi dabe, ta nire belarriak entzun.

Nire arloa jaian tresna au jotea izan da ; eta al nebana egiña dot.

Orain, barriz, itaun dagitzut: ez da oindiño garai ni sartzeko, neure agur ixilla opatu dagitzudan, zure arpegia ikusirik?

17

Maitasunaren zain nago bakar-bakarrik, aren eskuetan azkenik neure burua izteko. Orixegaitik da ain berandu, orixegaitik naz ainbat oarez ta okerren errudun.

Danak datoz, legez ta aginduz, ni indarka lotzera ; baiña ni igesean beti, maitasuna bakarrik bait-ditxarot, azkenez be aren eskuetara emoteko.

Errudun naukie, ta burubage deitzen. Errazoiz bear bada.

Amaitu zan azoka-eguna, ta egiune guztiak be zurituak dira dagoneko. Eta ni deitzera alperrik etorri ziranak, biurtu dira, asarre bizitan. Maitasunaren begira nago soilki, azkenean be, aren eskuetan jarteko.

18

Odeik odei gain dira pillotu, ta illunkera dogu. Ai, maitasun ! zer dala-ta naukazu begira, zeure atean bakarrik ?

Eguerdiko joranean, jente andia lagun dot; baiña illunpe bakar onetan, ez dot besterik zure itxaropena ezik.

Arpegia ez ba'dakustazu, emen bertanbera izten baldin ba'nozu osorik, zelan emongo ditut ordu luze euritsu oneik ?

Zeruko illuntasun urrunera so dagit, eta deslai dabilkit biotza aizetan zinkulin-minkulin atertu bage.

Ig

Mintzo ez ba'zakidaz, zure ixillez beteko dot biotza, ta neure kautan gordeko. Eta ni zain nagoke, geldi-geldi, gaua bere itxar-egote izarratuan lez, neure burua epearen epez makur dodalarik.

Goiza ba-datorke ausaz. Itzala uts biurtuko, ta zure ago-otsa zeru guztian ixuriko da, urrezko latsetan (errekaztoetan).

Eta zure itzak egaz doakez, kanta-kantari, nire txori-abi bakotxetik, eta zure eresi-soiñuak loratan lertuko dim, nire osto-arte ugarietan oso.

20

Lotua edegi zan egun aretan, arat-onat ebilkidan oldozkuna (pentsamentua), eta ez nekian ga-

ratuz joianik. Zimerea utsik neukan, eta ez neban lorarik ikusi.

Noizean bein, bakar-bakarrik, ez dakit zelako ta nundiko zurbiltasuna jausten yatan gaiñera ; eta izu-ikaratan jagiten nintzan neure lo-zorrorekin, eta ego-aizetan deslai ebillen usain bakan baten aztarna ezta etorkidan usainmena gozatzen.

Aren samur leunak oiñaze minkorrez astuntzen eustan biotza. Udearen arnas leiatsua zirudidan, osoagotu bearrez.

Nik ez nekian ordun lotua ain ur neukanik, ez neurea zanik, ezta neronen biotz barrenean aren gozotasun betea loratu zanik !

21

Noz botako dot neure untzia itxasora ? Ordu aulak, ai !, ur-egalean yoataz.

Atzenerako loratu zan udabarria, bai ta joan be. Eta ni, lora uts zimelez zamatua, zain nago berandurarte.

Bakera dira olatu zaratatsuak, eta egalean, urertzeko gerizan, orri beillegiak argal egaztu ondoren, beera doaz jausirik, pirilika.

Zeri zagoz, esaizu, utsean so ? Ez ete dozu somatzen beste ertzetik irabioka datorren abesti urrunaren aize-inka meia?

22

Garagarril euritsuaren illunbe sakonean, Zu ba-zoaz joanik bidez bide, ixil ta estari, gaba bai-

zen mutu, barrandari ta zelataka daukazuzanen-gandik igesi.

Gaur, goizak itxi dauz begiak, sortaldeko ekaitz txoliñari jaramonik egiteke, eta estalgi naasia jausi da zeru oztin beti ernaiaren gaiñez.

Basoak aterrazi dabe euren kantu-leloa, etxeetako atea itxita dagoz oro. Zu zara kale maurtuko bidazti bakartia.

Ene adiskide bakar, ene lagunik kutunen : or daukazuz zabalik nire etxeko atea ; etzaitez aurrera joan, loa iduri !

23

Urten zara, gau aize-euritsu ontan, ene adiskide, zeure maite-txangora ? —Zerua inkimanka dago etsituaren antzean—.

Ezin dot lorik egin ! Une baktxean atea edegi ta illuntasunera zorrozten ditut begiak, baiña ez dot ezer ikusten. Ene adiskide, nun dago zure bidea ? Esaidazu !

Zein tintazko erreka ertz zalantzazkoz, zein baso izugarrizko esparru urriñekoz, nundiko sakon illun nasia zearkaturik zatoz Zu nigana, ene lagun, zeure bide-txorta orrela eunduaz ?

24

Eguna urtu ba'da, txoriak geiago abesten ez ba'dabe, aize nekatua makal antzera ba'dabil, es-tal nagizu ondo itzal-mantuz, lurra loarekin estali

dozun lez, illunkeran zorabiatu dan lotuaren os-
toak samurkiro itxi dozuzan lez.

Ken egiozuz lotsea ta ezeukia joan-itzulia amai-
tu orduko bere zorroa ustu dauan bidaztiari, jan-
tzia be apurtu ta austua daroanari, indar barik eta
armindua dabillanari; barriztatu egizu aren bizia,
lore bat antzo, gau errukitsuaren estalgipean !

25

Gau etenean, itxi nagizu iñondiko burruka ba-
rik loaren besoetan, Zugan ustea sendo dodalarik.

Ez bedi, arren bai arren, nire gogo kemenik-
eza leiatu, Zuri gurpena egiteko, ingira ta gerta-
kizun bada-ezpadakoetan !

Zu ez al zara, bear bada, egunaren begi neka-
razien gaiñetik gau-oiala zabaltzen dozuna, esna-
tzearen alaitasun ezotuaz aren zentzuna barrizta-
tu bearrez?

26

Eldu, ta neure alboan jesarri zan ; ni ez nin-
tzan, alan be, iratzarri. Ai, lo madarikatu a !

Gau narean etorri zan. Eskuetan ekarren joa-
re, arpea, ta nire amesak otsegin eben aren eresi-
soiñu gozoekin.

Ai !, zergaitik urtzen ete dira orrela nire gau-
ak ? Zer dala-ta, ez dot bera iñoiz ikusten, aren
arnasa nire loa ikutuz egonikan ?

Argi ! Nun da argia ? Ixio egizu, gurariaren sukarrak diztikor !

Emen daukazu kruselua ; baiña, ta sugarraren egaketa ? Au ete da zure zoria, biotz ? Ai, oba litzake eriotza !

Errumeskeriak atean dagitzu oles, eta zure Jaina lotara barik dagoala dirautzu, maite-txutxumutxura dei dagitzula, gauaren geriza artean.

Odeitzarrak zerua estaltzen dabe ; euria da zara-zara, geratzeka. Ez dakit zer dan niregan zirkin dagian au, ez dakit zer esan nai dauan sentitzen dodan onek !

Tximistearen diztira irraizekoak mordotzen daust itzal sakonago bat begi gaiñean. Nire biotza itsurnustuan dabil billa, deiez daukadan gabaren musikarako bidean zear.

Argi ! Ai !, nun da argia? Ixio egizu, gurariaren sukarrak diztikor ! —Trumoi da, ta aizea iskanbillean dator puzka ta puzka, ta gaba arbel baizen baltz.—Ez itxi, otoi, orduak itzalean urtzen ! Biz tu, zeure biziaz, maite-argontzia !

Zal ta etengaitz dozuz nire lokarriak ; baiña biotzean min dot areik apurtzera jo ezkeror.

Ez dot gora jabetasuna izan ezik ; lotsa naz, alan be, a itxarorik.

Ba-dakit ondo be zein aldin andiko altxor ta ondasuna dan zurea, Zu bait-zara nire adiskiderik

laztanena ; ez dot biotzik, baiña, neure etxea beterik daukan urre-dirdir zorakorra giñarrez garbitzeko.

Auts ta erio dira ni estaltzen nauan zapi bal-tza. Gorroto bat ba-deutsat ! Eta, alan eta guzti be, maite-miñetan besarkatzen dot.

Itzalak dira nire zorrak, azkenbakoak nire porrotaldiak, ixil gordiña nire lotsakizuna. Baiña neure ona eskatzerakoan, dardarka naukazu bildur-ikaraz entzuna izango ez ete dan nire arrena.

29

Negarrari daragoiot, neure izenaren morroi-loan atxikia. Egunik egun, atsedeen bage jaso daroat orma au neure inguruan; eta zerurantza doan giñoan, gerizpe zurbillean ezkututzen yat neure egizko izatea.

Neure arrokeria dozu orma au, eta kare-arez zuritzen dot, zirrikitu ta arte txikarrenik be gelditu ez dakion. Eta ainbateko arduraz galduaz doakit begipetik neure egizko izatea.

30

Soillik urtena naz neure maite-deira. Eta nor dot, illunpe ixil orretan, jarraika datorkidana?

Alborantza dagit igaro daiten, baiña ez doa aurrera.

Autsa astindu daroa aren ibilte arropuztuak,
aren abots zoliak bikoiztu nire mintzoa.

Jauna, nire "ni" kaskar gaixoa dozu ! Ari ez
dautso ardura ezergaitik be ; baiña, ni bai lotsa
zure atera aregaz etorten !

31

"Atxilotua, nok kateatu zaitu ?"

"Neure Jaunak", intziri atxilotuak. "Arri ta
zur mundua iztea uste neban nik neure indar ta
aberastasunez, eta neure Erregearena zan dirua
pillotu neban kutxetan. Loak artu nindun eta neu-
re Jaunaren oge gaiñean etzun nintzan. Itxar-
tzean, ostera, neure altxorrean atxilo, katibu aur-
kitu neban neure burua".

"Atxilotua, nok urtu eban kate etengaitz au ?"

Atxilotuak erantzun : "Neuk urtu ta egin ne-
ban arreta andiaz. Mundua neure indar garai-ezi-
ñez lilluratuko nebala nik uste; itxi nengiala ja-
betasun urduritu bagean. Eta nik lan gau ta egun
neure katean, su andiz ta zartada latzez. Azkenen-
go oboa amaitu nebanean arek oratu ta oartu ba-
rik atxilo neukan neure burua".

32

Mundu onetan maite nabenak, alegiñak dagiez
ni eurekaz eukiteko; baiña Zu etzara orrela zeu-
re maitasunean, beste guztien gaiñetikoa baita, ta
azke naukazu.

Ez dira eguno azartzen ni bakarrik izten, aiztu ez dagidazan nunbait; baiña egunak joan ta joan doaz, ta Zuk ez dozu izten zeure burua iñok ikusten.

Eta otoitzean deirik ez dagitzudan arren, naizta nik Zu biotzean ez euki, zure maitasuna beti daukat nire maitasunaren zain.

33

Egun-usaiñaz batera sartu ziran nire etxera, au esanik : "Gelarik txikerrenean be, gu ondo izango".

Bai ta be ba-iñoen : "Zeure Jainkoaren agurketan lagun izango gaiatzuz, eta gure apaltasunak larregi be izango dau aurki dagokion esker-atalaz".

Eta bazter batean jesarririk, geldi ta esaneko egozan.

Baiña gauaren illunetan, kementsu ta asarrekor, jauretzeko atean nabari nebazan indarrez barnera sartu naita ; zekenkeri gaiztoz, Jainkoaren opamaiko eskintz-gaiak eroezala !

34

Nitaz, Jauna, neure oso deitu daikezudan pitintxo a gelditu dedilla bakarrik.

Nire naimenez, aide guztietan oar zaikedazan pitintxo a gelditu dedilla bakarrik : gauza bako-

txean Zugana biur-azo, lipar bakotxean neure maitasuna Zeuri opatu.

Nitzaz gera dedilla bakar-bakarrik, iñoz Zu ezkuta ezin daikedan pitintxo.

Nire kateetan zure naiaz bat egingo nauan pitintxo gera dedilla bakarrik, Zure asmua ene bizian burutzeko lain dodan pitintxo: zure maitasunaren katea.

35

Egizu, arren, Aita, nire aberria esna dedilla arimeak, ezeren bildur bage, burua zut eroan oi dauan zeru ortan ; jakitea or eskuko baita ; etxe-ormetan mundua zatika apurturik or ez baitago ; or baita itza egiaren sakonetik jalgiten ; or burruka nekegaitzak bere besoak osotasunera zabaldu oi ditu ; errazoiaren iturri gardena ez da or ekan-du erkiñaren aretza goibel ixillean galtzen ; adimena, Zugaz batera, gero ta egipen ta ames garai-gaillenagoetara doa...

Egizu, arren, ene Aita, jabetasunaren zeru orretan esna dedilla nire aberria !

36

Nire otoia, ene Jainko, au dozu :

Jo ta zauritu nire biotzean kaskarkeriaren sustrai.

Eidazu kemen, neure poz-atsekabeak leun eroan dagidazan.

Eidazu kemen, maitasunak arnari onurakorrik asko emon dagistazan.

Eidazu kemen, txiroagaitik egundo sumin-azo ez nadin, ezta lotsabakoaren alizate aurrean belauunik biurtu be.

Eidazu kemen, eguneroko kaskarkeriz goitik erabilli dagidan neure gogamena.

Eidazu kemen, azkenik, neure kemena, maite-mindurik, Zuk naiari menderazo dagiodan.

37

Nire azken-ibilkundea onezkero amaira zalakotan nengoan ni, indar guztiak maskal; bide zidorra itxirik neukala, onibarrak oro amaitu yatazala, illun ixiltsuan aterpetzeko garaia nebala.

Baiña, dakustanez, Zure naia nitako ez da sekula be amaitzen. Eta itz zarrak legor miiñetik jaustorduan, melodi barriak estanda dagiste biotzean ; eta lenagoko bide estuak galtzen diran lekuan, beste lur zoragarri bat agiri yat.

38

Zu bear zaitut, Zu bakarrik ! Bein ta barriro esan dagiala nire biotza'_, aspertu bage. Gau ta egun kezkatan naukien nai-irrits enparauak, utsguzurrezko dira euren erraietaraiño.

Gabak bere zurbillez ostendu oi dauan lez argiaren eskaria, ene barren-zokoaren illunbean garrasi onek ots dagi: Zu bear zaitut, Zu bakarrik !

Aize-tximist-ekaitzak, bere indar eskergaz ba-
kea zartatzean, bake billa dabillen lez, nire biu-
rri-naiak be zure maitasunaren kontra jo, ta dea-
dar dagi: Zu bear zaitut, Zu bakarrik !

39

Nire biotza gogor dagokenean ta errezar, ja-
tsi zaitetz nigana errukizko euri-zaparrada iduri.

Bizitz-eskerra gal dagikedanean, erdu nigana
abesti-lertze jorian.

Lanaren iskamil-zarramarrak nainon zarata
ateratzean, aruntzagoa niri itxirik, zatoz nigana,
Zu, ixiltasunaren Jaun ori, zeure bake-atsedenez.

Nire biotz eskalea okuilu batean koldarkiro ku-
kurturik dagokenean, eratsi Zuk, ene Errege, nire
ateka ta erregeri dagokion anditasunez sar nire
kautan.

Gurariak auts ta iruzur **fin** adimena lauso-
tzean, erdu Zu, Begirale guren, zeure trumoi ta
dirdiraz

40

Epe luzea, one Jainko, euririk bage nire biotz
legorrean ! Odaiertza billoiz dago ankerki ; laino
leunenaren lurrun meerenik bere ez, ezta euri-za-
part urriñenaren erraztenik be.

Nai baldin ba'dozu, bial egizu ekaitz-jasa su-
min bizia, zurbil ta eriozkor, eta dardarazo zerua
alderik aide zeure tximistazko zigor-takadaz !

Baiña batu, Jauna, zeurera dei egiozu dana,
ezarian ta anker, barrentzen dauan bero ixil oni;
biotzari be itxaropena erre daroatson bero izuga-
rri oni !

Esker-odeia jatsi ta makur dedilla nigana, ai-
ta asarratu orduan, amaren begirakune negartia
lez !

41

Nun zagoz Zu, ene Maite ? Zergaitik gorde oi
dozu zeure burua guztien atzetik, illunetan? Bul-
tzaka igaroten zaitue bide autsez betean zear, iñor
ez zarealakoan ! Neuk dakit bakarrik zenbat den-
pora daroadan Zuri etxaiten, nekatuta, Zuretza-
ko opagai oneikaz ; lorak artzen daustiez, banan-
banan, bidean ara-ona dabiltzanak, eta uts-utsik
izten dabe nire zimerea.

Joanak dira goiz ta eguerdi. Illun-abarra, ta
lo-gurez jausiak daukadaz begiak itzalean. Gizon-
ak, euren etxera bidean, so nagie irribarreka, ta
onek lotsaz gorritzen ni. Ezarrita nago neskatx
eskale antzo, arpegian gona-mendela. Eta zer nai
dodan itaunkeran, begiak erasten dodaz ixilki.

Ai ! Zelan esango dautsiet Zure zain nagoala,
Zuk etorriko zareala agindu daustazula-ta ? Nire
ezerezak zelan itxiko leuskit nire kaskartasun au
dala Zuretako daukadan maite-erakutsi bakarra ?
Ai !, zein gogorki estutzen nauan arrokeri onek,
neure biotzeko ixil-zokoan !

Bedarrean etzana, zeruan ditut begiak, eta a-
mes dagit zure etorreraren argitasun bat-batekoaz.

Milla zuzi dizdizka, urrezko dindil-txortak egaz zure burdi gain, eta bidez dabiltzanak ao-zabalik begira zelan jasten zarean zeure jarlekutik eta zelan jasoten nozun autsetik, zelan jarri-azoten nozun zeure alboan eskaletxo dindirritsu au, udako aizetan ezkerre zuriak lez, poz-arroskoz ta lotsaz dardar dagian kaskar au.

Baiña joanez doa aldia, ta zure burdi apaiñaren txirringa-otsak ez dira entzuten. Zenbat ara ta ona ibildeunean, dardaritsu, oiua ta dirdir-ista artean ! Zu zara bakar-bakarrik itzalean jarraitu bear dozuna, mutu ta milinga, danen atzetik ? Ni al naz soilki itxaron ta negar, joran alperrikakoan, biotza eralgi bear dodana ?

42

Egunantzean, marmar egin zan Zu ta ni itxasoratuko gintzazala bakarrik, eta iñok ez ebalu gure azken eta elbururik bageko ibillaldiari buruz munduan ezer jakingo.

Ertzik bako itxaso zear, zure irribar ixillaren aurrean zurturik, ene abestiak puztuko ebezan euren eresi-soiñuak, olatuak baizen azke, itzen joputasunetik azke ta jarei.

Ez ete da oraindik ordua ? Eginbearren bat oindiño ? Begira, illunabarra jausiz doa ondartzara, ta itzaliz dean argian, itxas-txoriak euren abietara datoz etorri.

Noz askatuko dira txikotak, eta untzia noz, sarkaldeko azken-printza iduri, gau-altzoan amilduko ?

43

Nik zure usterik ez neban egun batean zan. Eta sartu ziñean, nik eskatzeke, nire biotzean, edozein ez-ezagun lez, ene Errege ori ; eta zeure betikotasunaren ikurratza ipiñi zenduan nire bitz-lipar (momentu) igeskorretan.

Eta gaur daurkidaz ustekabean, autsetan sakabanaturik, zure ikurratz eta guzti gero, neure egun aiztu izenbakoetako poz-atsekabeen oroitzapen artean.

Zuk ez zenduzan, iguinkor, lurrera egotzi nire umetako jolasak ; eta neure jostaillu-gelan beiñola entzun nebazan oin-otsak, berberak dira orain izarrik izar durundu dagienak.

44

Auxe dozu nire poz: itzala argiaren atzetik doan lekuan, eta euriak udearen oinkadak segitzen dabezan tokiko bide-ertzean itxaron.

Zeru ezezagunetako barriak dakarrezan mezulariak (mandatariak) agurka daukadaz, ta aringa doaz bidetxigor zear. Pozez pilpilka nik barruan biotza, igaroz doan aizearen arnasa bait-yat atsegin.

Egunantzetik illuntzera, neure ate-ondoan jarrita nago. Ba-dakit, gitxien uste dodalarik, ziur datorket nik ikusiko dodan une (momentu) zoriontsua.

Bitartean, barre dagit eta kanta neuk baka-
rrean. Bitartean, eguratsa (aidea) eskiñitakoaren
usaiñez beteten dago.

45

Ez al dozuez entzun aren oin-ots ixillak ? Ba-
dator A, ba-dator, beti dator.

Zapart eta adin baxotxean, egun ta gau guz-
tietan A ba-dator, ba-dator, beti dator.

Kantarik asko abestu ta jo dot milla eratan ;
baiña beti iñoen au: A ba-dator, ba-dator, beti
dator.

Jorrail eguzkitsuko egun usainduetan, basoko
bide-zadorretik, ba-dator A, ba-dator, beti dator.

Garagarrilleko gauen illun euritsu larrian, o-
deien burdi trumoitsu gaiñean, A ba-dator, ba-da-
tor, beti dator.

Nire kezka kezka, Aren oinkadak dira biotza
sakatzen daustienak, eta Aren oiñen igurdi urrez-
tatua da niri poza dirdiz bizitan jarten daustana.

46

Ez dakit noiztik zagozan nigana. etorten. Zure
eguzki ta zure izarrak ezin zagikeez iñoiz nigan-
dik gorde betiko.

Zenbat goiz ta gabaz entzun dodazan zure oin-
otsak ! Zenbatetan sartu dan zure mezularia ene
biotzera, aopean dei dagistalarik !

Gaur, ez dakit zergaitik, nire bizia zoroako samar dago, ta alaitasun dardarti batek astindu darestro alderik aide biotza.

Lana amaitzeko unea eldu izan ba'litzat, nunbait. Eta aizetan doart zure betarte eztiaren ez dakit zelako usain bakana.

47

Alperrik itxaroten urtu yat gaua. Bildur nazetorriko ete dan bat-batez, goizaldiaz batera, ene ate ondora, ni nekearen nekez loak artuta geratzean edo. Lagunak, ez egiozue galazo, itxi zabal bidea, igaro daiten !

Aren oin-otsak iratzarriko ez ba'nindue, ez nagizue, otoi, iratzarri. Eta, ai itxartuko ez ba'nindu txori-aldra iskanbiltsuak be, eta are gitxiago aizearen burrunba ozenak goiz-argitzearen naspil gurian ! Ez nagizue iratzar, nire Jauna oartzeketera ba'letorkit be !

Ai, ene lo, lo bikain, uts biurtzeko Aren igurdiaren zain soillik dagoana ! Ai, nire begi itxiak, Aren irribar argizkoan edegiko litzakezanak, A jalgiko ba'litz neure aurrean, amets antzera, ene loaren illunpetik !

Agertu dedilla A ene begi aurrean, len argi ta len-itxura lez ! Aren so-urratzetik betorkit niri lenengo poz-zauskada ! Nire neure baitara itzultzea bedi beingoan Arengana biurtzea !

Ixiltasunaren goiz-itxasoa txori-txiozko olatuetan ausi zan. Pozaren lorak bide-egalean. Urrezko altxor bat ixuri zan odei zartatuen artetik. Baiña gu bizkor giñoazen geure bidez, jaramonik egi-teke.

Ez gendun abesten geure barne-alaitasuna, ez jostaketan jardun ; basaurira ez gintzazan eldu, ez saltzeko, ez erosteko ; ez gifiean mintzo, ez irribar, ezta gelditu be arnas artzeko. Gero ta arifiago giñoazen, orduekin.

Gingara zan eguzkia, ta ur-xapalak urruma egioen alkarri gerizpean ; osto txigorrak dantzari egaztu ziran eguerdi galdatuaren eguratsean ; banianoaren itzalpean loak eratsi eban artzain txikia. Eta etzun nintzan ni be, ur-egian, neure gorputz armindua bedar gaiñean luzaturik.

Lagunak irainkor ta narda-jario eraso ninduen ; eta, buruak zut, atzera begira gelditzake, aurrera joan ziran Ieiatsu, urruti oztin gurmensuan galdurik. Zelai ta muiñoak zearkatuz urru-neko eskualde arrotzak igaro ebezan...

Zurea bedi dedu ta omen guztia, bide-txigorez zoazan taldetzar amaigabe orrena ! Zure iseka ta akarrak zirikatu ninduen jagiteko ; baiña nik tautik ez ; naikoa neban, antza, neure apaltasun pozkorraren lezan galdua, bada-ezpadako zorionaren gerizpean nasaiki.

Eguzkiak dotore jantziriko itzal orlegiaren ba-kea geldiro zabaldu zan nire biotz gaiñez. Oстера

a zergaitik nengian aitzuaz, itzal-kantuzko barren itxi naasian galdu neban gogamena, bape burruka barik.

Eta lo-zorrotik itxartzean, nire begi edegiak aurrean ikusi zinduezan, nire loa zeure irribarrean murgil. Zelan uste nik bidea luze neketsu zala, ta Zu jaristeko etzala bear ainbeste liskar ta burruka?

49

Zeure errege-aulkitik jatsi ta neure txabolako atera etorri ziñan.

Ni bakarrik nengoan, zurkulu baten abeska, eta nire musikeak enizumena lilluratu eutzun osoan. Eta Zu jatsi ta neure txabolako atera etorri ziñan.

Zuk maixu asko daukazuz aretoan, orduz ordu kantari diarduenak. Baiña asibarri onen koplataxtar tolesbageak maitez jo zinduzan ; bere melodi ezerez kadenak, munduko musika andian galdutakoak.

Eta Zu jatsi, saritzat lora bat zenkarrela, ta neure txabolako ate ondoan lotu ziñan.

50

Aterik ate niñean ni eskean, baserrirako bidez, zure urrezko burdia, ames lerden lez, tirriñera agertu yatanean. Eta nik, sor ta lor, galde nengion neure buruari nor ete zan erregeen Erregea.

Zeruraino egaztu zan nire itxaropena, ta amaitu yatazala uste izan neban egun txar guztiak. Eta beingoango eskupeko zain geratu nintzan, autsean ixuritako ondasun zain.

Burdi apaiña ondoan lotu yatan. Begiz jo ninduzun, eta jatsi ziñan irribera. Azkenez be, bizitz-zoruna gain nebala, nik uste. Eta, itzetik ortzera, Zuk zeure eskumea luzatu zeustan, au esanaz: "Emon daikedazu zerbait ?"

A !, zure erregetasunari bai buruak emon ! Eskeko bati eskatu ! Lotsaren lotsaz gorri nengoan ni, zer egin ez nenkialarik. Gero, gari-ale bat, neure zakutik astiro atararik, emon neutzun.

Baiña nire ustebako zurtasuna, pillo kaskarean urrezko ale bat aurkiturik, arratsaldez neure zakutoa zelaian ustu nebanean ! Nik bai negar mingotsa, nintzan guztia Zuri emoteko baizen biotz euki ez nabelako !

51

Illundu da. Amaitua gure lana. Onezkero gaurko azken-arrotza eldu zala uste genduan eta auzoko atea oro zarraturik egozala. Norbaitek esan eban Erregea etorriko zala. Eta guk, barrezka, esan gendun: "Ezin daiteke".

Atean jo ebela, begitandu yakun, baiña aizea izango zalakoan gu. Eta, argontziak itzungirik (amataurik) lotara joan gintzazan. Beste norbaitek au esan eban: "Erregeren Geznaria da". Eta guk, barrez: "Ez, aizea dozu".

Ots bat entzun zan gauaren zurbiltasunean. Urriñeko trumoi-otsa irudi yakun, geure lo-itxarrean. Eta lurrak dardar egin eban ta ormak kullunka, guri loa astindurik. Norbaitek esan eban txirringotsa zala. Eta, oraindik erdilo, jardetsi gendun : "Ez, odei-burdia bide da".

Gabaz zan oindiño, tanborra jo ebenean. Eta entzun genduan : "Esna bizkor !" Bildur-ikaraz laru, biotza artzen genduan eskuakaz. Nor-edo-nok oiu : "Or Erregeren ikurrifia !" Eta jagi giñean, deadarka : "Gabiltzan arin !"

Emen dago Errege, baiña ta zuziak, eta lora-txortak, eta arentzako aulkia ? Au lotsari ! Au lotsari ! Nun arentzako aretoa ? Nun dindil-apaindurak ? Norbaitek esan eban : "Zetarako alaka ori ? Agur egiozue esku utsik, sar egizue zeuen gela-as apaingetan !"

Edegi atek ! Ots begie marraskilluak ! Gure etxe illun goibeleko Errege etorri yaku gau sako-
nean ! Zeruan ostots, ta tximistak dardarazten da-
be illuna ! Atara zeure oetxo zarpailla ta zabaldu
larrainean, gau ikaragarritzko gure Errege, bat-
batez, eldu baida ekaitz-erasoan !

Saman dindilizka daroazun larrosa-mordoa eskatzekotan nengoan, baiña ez neban ortarako adorerik. Eta goizari zain egon nintzan, eta joan ziñanean, zure ogeko lora-puska batzuk eskuratu nebazan. Eta eskale zurrean, goiz-zabaltzen orri-txo galduren baten billa nenbillan.

Ai !, ta zer idoro dot? Zure maitasunetik, zer geratzen ete yat ? Ez lora, ez usain, ez lurrun-ontzi, zure ezpata izukorra soillik, su-lama baizen dizditsu, tximista baizen astun !

Goiz-argi barria leiotik sartu ta zure ogean barraiatzen da. Lon-txoriak, pioka, diñost : "Zer aurkitu zendun, emakume?" Ez, ez da lora, ez usainki, ez atxon-bonbilla, zure ezpata izukorra baiño !

Gogarketan galtzen naz, arriturik, zure emoi au gai dodala. Ez dakit berau nun gorde. Txit argal bait-naz, lotsa nozu berau jazten. Min nik artzen, a neure bular gain estutzean. Alan be, nik zure emoi au, oiñazezko karga au, neure biotzean eroango dot.

Gauganik ez naz munduan ezeren bildur izango, eta Zu izango zara garaille nire burruka guztietan. Erio Zuk emon daustazu lagun, ta nik neure biziaz koroatuko dot. Emen daukat zure ezpatea, ene lokarriak ebagiteko ! Gaur-geiago ez naz munduan ezeren bildur !

Ut nigandik, gaurgero, alperriko apainkiak ! Ene biotzaren Jaun, ez dot geigo negarrik egin-go, ezta etsi-etsia zurkuluetan onezkero ibilli be; aurrerantzean ez naz lotsor ez txerazale izango. Zeure ezpatea emon daustazu, apaindu naiten. Asago nigandik andrakil-apaindurak !

Zure esku-muturrekoa bai eder, izarrez biztu ta milla kolorezko bitxiz zoragarri landua; baiña

ederrago da oraindik zure ezpata, bere tximist-biur-uneaz, Vishnu'ren jainko-egaztiaren ego zabalak lez, illunarreko ozkorri saminduan ezti ta bare datzanean !

Dardar dagi oiñazezko bizi sorgorraren azken erantzun bakartia lez, eriotz-zartada benetako-pean. Dizdiz dagi bizitz-sugar garbiaren antzera, dirdira suminbera baten eguneroko loi-orbana erretzean.

Zure esku-muturrekoa bai eder, izarrez biztua ! Baiña zure ezpata, ostotsaren Jauna, gain-gaiñezko edertasunez egiña dago, ta bildurgarri da zein begi zein burutapenarentzat !

54

Ez neutzun nik ezer eskatu; ezta, ez neutzun nik neure izenik be belarrira esan. Eta agur egin zeustanean, mutu geratu nintzan, ezer esateke.

Bakarrik nengoan ni potzu aldamenean, zuga-tzaren geriza okerka etorren usgunean. Etxeetara itzuliz joiazan emakumak, basazko pegar baltziz-kak urez kuin-kuin ; eta didar egin eusten: "Erdu zu be, eguerdia laster da-ta !" Baiña ni nagi luzatuaz niñoian, bururakizun utsaletan galdua.

Ez neban entzun zure oinkaden irrista, eldu zintzazanean. Begira ninduzun eta goibel zeunkazan begiok ; zein abots meez esan zeustan, ixil-mixilka : "Ai !, egarri bai dala bidazti gaixoa !" Izuaren izuz iratzarri nintzan neure amesetik, eta neroian pegarretik ura bota neutzun esku barru potxotuetan... Ostoak alkar jo eben gure buru

gain, kukua kantari gerizpe ikus-eziñean, ta babilia-loraen usaiña etorren bide makur-UNETIK.

Izenagaitik itandu zeustanean, nire lotsa ! Egiegiaz, nik zer egin neban Zu nigaz gogoratzeko ? Baiña nik Zuri uraz egarria arindu neikezula gogora ekartea, ene biotzean josita geratu yat, eta bere gozo-leunez inguratuko dau beti-betikoz.

Joan da goiza, kantuz diardu txoriak beti bardin, nimaren orriak zurmur dagie an goian. Eta jesarririk, oldoztu ta oldoztu...

55

Oraindiñokarren bizi barik daukazu biotza, begiak oindiño logalez izten yatzuz.

Ez al dakizu lorea erregin dala, argi-dario, arantzartean? Iratzar, iratzar ! Aldia ez egizu alperrik txautzen itxi !

An bidaxka arkoskortsuaren amaikeran, lur garbi soillean, nire adiskidea bakarrik dago ezarrita. Ez egizu atzipetu zain eukirik ! Iratzar, iratzar !

Zer zerua arnas estu ta pilpil ba'dago, eguerdiko txingarrean? Zer irakin dirakin ondarrak edatu ba'dagi bere estalgi egarbera ?

Ez dozu nabaritzen pozik zeure biotzaren sarkontasunean ? Ez ete da edegiko bide-jogailua, oinkada bakotxean, atsekabezko musika biguiñean ?

56

Au bete osoa zure poza niregan ! Zelan Zu nigana jatsi ! Oi, zeru guztien Jaun ! : ni ezpa-nintz, zer zure maitasuna ?

Zeure ogasunaren lagun antzera naukazu Zuk ; zure pozak jostaketan dagoz, tai bage, fire biotzean ; bai ta zure naia be atsartzen eta asazkatzzen dago ene bizian.

Zu origaitik, erregeen Errege, ain ederto jantzi zara, ene biotzaz maite-mindua. Origaitik galtzen zara, bai, maite-beroz zeure maitalearen maitasunean. Eta an ikusten zaitue, bi-bion bat-egite oso betean.

57

Argi, ene argi, mundu beteko argi, begiak munkatu ta biotza gozatzen dozen argi !

Ai !, zelan jauzi dagian argiak, ene maite, nire bizitz erdian ! Zelan zauritzen dabezan, ene maite, nire maitasunaren ariak ! Zerua dedegi ta aizea dabil zorozko, ta barre-irriaren gozoa lur osora dardartzen.

Txiribiriak argi-itxasoz zabaltzen dabez euren oialak, eta argizko olat i gandorretan, lili ta jazmiñak orri-zabaltzen.

Urretan, ene maite, urtzen da argia odei bako-txean, ta gero amaibako arri-pitxitan ixuri.

Orriz orri, ene maite, barbailla barri bat doa, esirik ez dauan pozaren zera. Zeru-ibaiak ausi ditu ertzak, eta dana da dirdir-ista, poz ezinbestekoz asetua !

58

Alaitasunak oro batu daitezala nire azken-eresian : lurrari bedarraren geiegikeri neurribagean gaillenazoten dautson poztasuna ; bizi ta erio, aizta bikotz, mundu zabal zear dantzara daroazana ; ekaitzak, bere barre-algara andian guztia itxartu ta dardaratuz, barrurantza garbitu oi dauanarena ; oiñazezko lotu edegi gorrian, bakezko malkotan jarten dana ; daukan guztia jaurtzen dauan poza ; ezer ez dakian poza !

59

Bai, ba-dakit, ene maite laztana, au guzti au, osto gaiñez jauzi (saltu) dagian urrezko argi au, zeruan barruna dabiltzan odei narras oneik, bekokia iku otzillez leuntzen daustan aize mee igazkor au ; ba-dakit, guzti au, zure maitasuna baizen ez da.

Goizeko argi au, begiak asetzen daustazan au, ezta besterik Zuk nire arimari dakartsazun gezna edo mandatua baiño. Zuk nigana makurtzen dozu arpegia or zeru-gingatik, zure begiak beera so dagie, ene begietara, ta zure oiñak nire biotz gain tinkatzen dira.

60

Mundu guztiko ondartzetan batzen dira umeak. Muga bako zeru zabala baretsu agiri da euren bu-

ru gain ; ura, ostera, pairu bageko ta urduri, inguruan dabil nastu samar. Lurralde guztietako ondartzetan batzen dira umeak, zarataka ta dantzari.

Ondarrezko etxetxoak egiten dabez batzuk, magurio-koskoz jolasketan daragoioe beste batzuk. Arein ontzia orri legor bat, ta itxas zabal sakonera jaurtzen dabe, irribarretsu. Aurtxoak mundu guztiko ondartzetan jolastu oi dira.

Ez dakie igeri, ez sarea atondu ta edatzen. Txirla-arrantzalea urperatu oi da ta saleroslaria bere ontzian ur-gaiñez ibili ; umetxoak, bitartean, arri-koskorrak billatu ta eskuratzen dabez, ta gero bota, oso urrutira. Ez dabe ondasun ezkuturik billatzen, ez dakie sarerik edatzen, zabaltzen.

Itxasoa kurkuillotu ba'dadi oi u-algaraz, ondar irribarretsua dizdizka jarten da, erdi-laru. Olatu eriozkiñak, zentzun bako leloak kanta oi dauztiez umeai, amak kuma kulunka-kulunka bai'le-rabil. Itxasoa umeakaz jolaska, ta ondarraren ezpan-irri larua dizdizka.

Lurralde guztietako ondartzetan batzen dira umeak. Ekaitza ara ona dabil biderik ez dauan zeru zear, ontziak be zador bageko itxasoan ondutzen dira, azke dabil eriotza, ta alan be umeak jolasean diardue.

Mundu guztiko ondartzetan batzen dira, jai andia egiñez, ume guztiak.

6i

Ba al daki iñok nundik datorren umearen begietan txiribiri antzera dabillen loa ? Bai. Diño-e-

nez maitagarrien baserrian bizi da ; lore-baratz batego itzalpean, ipurtargiz erdizka bakarrik argituta, zoragarritzko lili-pinpin bi dagoz dingilizka : loa andik bide dator, aurtxoaren begietan mun gozoa ezartera.

Ba al daki iñok nun jaio -zan ume loak artuaren ezpanetan egazka dabillen irri-barre ezta ? Bai. Esan oi danez, udazken intzez garbiko goiz amesti batean, illargi barriaren erreñu zurbil gazteak, iges joian odei baten ertza urrez jantzirik, sor erazo eban, nunbait, ume lokartuaren ezpanetan egazka dabillen irriño ezta.

Ba al daki norbaitek nun egon zan gordeta, orrenbeste urtez, umetxoaren aragitxoetan loratzen dan barri-samur gozo biguna ? Bai. Beraren amak, neskato zala, maitasunezko misteri leun ixillez igurtzi oi eban biotza, umetxoaren aragitxoetan loratu dan barri-samur, gozo biguna, nunbait.

62

Kolorezko panpiñak dakartzudazanean, ene seme, orduantxe kontura.t;. n naz zergaitik dagozan ainbeste margo-litsez ura ta lainoak, lorak zergaitik margoztuten diran ainbat kolorez... kolorezko panpifiak damotzudazanean, ene seme.

Zuk dantzatzeko abesten dautzudanean, orduan igarten dot nik orrietan zergaitik dabillen ainbat musika, ta zergaitik sartzen diran lurraren biotz sorgorreraiño olatu-soiñu etengeak... zuk dantzatzeko abesten dautzudanean.

Zure esku leratiak nik gozokiz asetzean, orduan ulertzen dot nik zergaitik dagon ainbeste ezti lore-kukuluan, eta zergaitik astuntzen diran igitia, ixil-ixillik, zumo ta ezkotasun gozoz... zure esku leratiak nik gozokiz asetzean.

Zuri mosu emotean, ene maite, zuk barre egin daizun, nik ba-dakit zelakoa dan goiz-begi-argian zerutik ixurten dan alaitasuna, eta udako aizeak soiñera dakarstan atsegiña... zuri mosu emotean, ene maite, zuri barre-irri eragiteko.

63

Ezagun ez ninduen adiskideak ekarri daustazuk. Arrotz yatazan etxeetan leku egin daustazu. Zuk urrera daustazu asago neukana ta ezagun-ezakaz anaitu.

Artega jarten yat biotza, aterpe ekandua iztekotan. Zarra barrian dagoala aztu egiten yat, antza. Zu barrian be bizi zareala.

Jaio zein il, lurbira ontan naiz bestean, Zuk naroazun edozein tokitan, Zu zerori zara nire bizi-lagun bakarra, Zu atsedean barik nire biotza poztasunezko lokiz ez-ezagunari lotzen dautsazuna.

Baiña Zu ezagutzera eltzen gareanean, ezta iñor be erbesteko ta arrotz, ate bat bera ez dago itxita. Emoidazu, Jauna, eskatzen dautzudan au: askotariko joku onetan ez dagidala nik egundo be galdu bakar ori aurkitzetik datorkidan poztasuna !

Ibai añutsu ertzez, bedar zut artean, itandu neutson: "Nora oa, neskatxi, argontzia mantu-pean donala ? Illun bakar daukan nire etxea. Emoidan argi ori !" Amen baten begiak jaso, itzal erdian arpegira so, ta au erantzun eustan: "An osertzean, egun-argia iltera doan ezkeru, neure argontzia uretara botaten etorri naz ibaira". Eta ari begira gelditu nintzan ni bedar jagi artean, bakarririk, kruseluko argiñoa bape onura bage, izbeerran, zelan joian begira.

Gain etorren gauaren ixiltasunean, itandu neutson: "Zure argiak, neskatxi, biztuta dagoz danak. Nora oa kruselu orrekin ? Illun ta bakar daukan nire etxea. Emoidan argi ori !" Bere begi arreak nire arpegiraiño jasorik, ezpai egon zan lipar batez: "Zeruari", ots arek azkenik, "neure argontzia eskintzera etorri naitzuz". Eta ni, usgunean alperrik dirdir egian argiñoari hegira geratu nintzan.

Gauerdiko baltztasun iretargigabea, itandu neutson: "Zeren billa abil, neskatxi, argontzia eure biotz-ur daukan-eta ? Illun ta bakar daukan nire etxea. Emoidan argi ori !" Gogoetan lotu zan apur batean, eta gero, zorrozki so egin eustan illuntasunean. "Argontzien Iñauterirako", esan eban, "ekarri dot nik neure argia". Begira geratu nintzakoan ni, aren argiñoa, bape onura bage, zelan galtzen zan argien artean.

65

Zer jainkozko edari nai dozu Zuk, ene Jainko, gaiñezka dagon ene bizitz-txoletik? Eder yatzu, ene Olerkari, izadia nire begiz ikuskatzea ; edo-ta entzun, ixil muturik, ene belarri-atarietan zeure betiko doiñu ereskidetsua ?

Zure munduak itzak euntzen ditu nire gogamenean, eta zure pozak ozenagotzen. Emoten zaiataz, maitez zauritua, ta gero nigan nabari dozu zeure eztitasun guztia.

66

Erdi-dizdizera mee gitxituzkoan, beti neure biotz-barrenean bizi izan zana ; goizeko argitan bere zapiak sekulan be barraiatu ez ebazana, Zugana doake, ene Jainko, neure azkenengo kantaldian, ene azken opari bai'litzan.

Itzak ereguz losinga eben, baiña ezin euren egin ; eta limur-eragimenak be alperrik euki izan dautsoz bere beso lerakoiak.

Deslai ibillia naz errialde oroz, biotz muiñean bera nebala ; eta nire bizia, aren ingurumari, jagi ta jausi egin da, andi ta argal.

Nire gogoeta ta egite, lo ta amets, bera izan zan erregin; eta, alan be, soil ta banazean bizi izan zan.

Agaitik itaunka nire atera eldu ziran gizonak, etsipenaren larriak jota biurto ziran.

Munduan ezin izan eutson iñok bekoz beko begiratu ; eta, bakarrean ditxaro zure ziñezko ezaupidea.

67

Zeru ta abi zara, batera.

Emen abian, ene eder, zure maitasunak kolorez, margoz ta musikaz estutzen dau arimea.

Or dator goiza, urre-otzara eskuman, lurra ixilik koroatzeko ederrezko lora-sorta dakarrela !

Or dator illunabarra, artaldeak jadanik itxiriko zelai bakartietako bidexka zapaldu bagekoetan zear ! Bake-edari ozkirria dakar urrezko pitxerreen, atsedenaren sartalde-itxasoan artua.

Baiña zeru amaigea edatzen dan lekuan, bertan arimea egaztu dadin, argitasun zuri zetagea da jabe ta erregin. An ezta ez gau ez egun, ez itxura ez margo, ezta sekula, sekula bere ez itztautik !

68

Zure .eguzki-izpia, besoak zabal, lur ontara yatort, eta neure atean damo eguna. Gero, biurtzerakoan, neure negar-antsiz egiñiko odeiak daroartzuz oiñetara, bai neure intziri ta eresi-kantuz egiñiko odeiak.

Maitez zauritua ta alaikor, Zuk zeure laiño-odeizko mantuz inguratzen dozu zeure bular izartua, ta bat-banatu ezin alean tolestu ta milla ta milla kolorez margoztu.

Ain leun, gozo, samur negarbera ta illunkara baita, Zuk, belatz ta kutsuge, maite dozu. Orrelaxe estal dagikezu zurizko dirdir izugarri ori gerizpe erostariakaz.

69

Nire zanetan gau ta egon dabillen bizi-erreka, axe doa munduan zear be, ta dantzan daragoio neurriketa bardintsuan.

Lurreko autsean zapart dagian bizi berbera dozu, ezin-konta alako bedar izpitan, osto ta lo-rezko uin zarrapatatsuetan era antzera dabillena be.

Itxas-seaska edo kumeak, gora ta beera, jaiotzatik eriora, kulunkatzen dauan bizia bera.

Eta nire gorputza, bizi-mundu onen ikutu gozoz, aintzatuagoz doala nabari dot ; eta arrokeriz puztuten naz, gizaldi guztien bizi-taupadak une onetan neure odolean dantzari ikusiaz.

70

Ez al zurea ritmu onekin poztutea ? poztasun onen uiolean bildurgarriro kulunkatua, galdua, zatitua izatea ?

Arrapalan doiaz gauza guztiak aspertu bage, begiak atzera biurtu bage ; ez da indarrik arei eus-teko ; gauza guztiak doiaz malda-beera.

Musika arin aldakor orren neurkerara, urte-aroak dabiltz joan ta etorri dantza zoroan ; kolo-reak, soiñuak eta usainkiak ur-jausi azkenbagean ixurtzen dira, edegi ta emon, ta unero il, amairik ezagutzen ez dauan poztasun onen gaiñera.

Illunkeran, joateko diñostadan aize-giro illuna joranez dago uraren musika goibelaz. Ez dabil iñortxo be kalezar bakartian zear. Aizeak putz, eta ibaian olatuak dardar, kizkur ta konkor.

Ez dakit itzuliko nazanik. Ez dakit noregaz tope egingo dodan. Ubidean, gizon ez-ezagunak, bateltxo barruan, bere zinburruna jotzen dau.

75

Emon oi daustazuzan bezuza ta esku-erakutsiak gure bearrizan guztiak asetzen dabez ; alan be, Zugana biurtzen dira tringitik galdu baga.

Ibaiak, zelai-alor ta baserri zear, bere eguneango lana osotzen dau ; baiña aren ugolde aterba-koa Zugana doa, suge iduri, Zuri oiñak ikuztera.

Loreak bere usainkiz eguratsa gozatu daroa ; baiña aren atzenengo morroi-zeregiña dan guztia Zuri eskintzea dau.

Zurekiko gurketak ez dau mundua bape txirotzen.

Olerkariaren itzak damotse gizon bakoxtari oneik gura daben zentzuna ; baiña aren azken zentzuna Zugana doa.

76

Egunetik egunera, ene biziaren Jaun, begiratu dagiketzut nik aurrez aurre? Ene eskuak bat,

so egingo dautzut aurrez aurre, mundu guztien
Jaun orri ?

Zeure zeru zabalpean, ixil ta bakarti, nik biotz
otzanez so egingo Zuri bekoz beko ?

Burruka ta lor-nekez dirakian mundu beartsu
onetan, iradu ta bizkor dabillen lagun artean, au-
rrez aurre begiratuko ete zaitut ?

Mundu onetako nire egikizuna amaitu dadi-
ñean erregeen Errege, bakar jadanik eta mutu,
.urrez aurre so egingo ete dautzut ?

77

Neure Jainko lez autortzen zaitut, ta banazean
nago. Etzaitut neuretzat ezagutzen, eta Zugana
urreratzen naz. Aitatzat begiratzen zaitut, eta zu-
re oiñetan makur naukazu. Zure eskua ez dot artu
oi, adiskide batena lez.

Ni ez nago Zu jatsi ta neure deitzen zarean
tokian ; ez noa ni neure biotz albo Zu besarkatze-
ra, lagun antzo Zugaz jardutera.

Anai zaitut neure anaien artean ; baiña arei
ez dautsiet jaramonik egiten, ezta areikaz neure
irabazia banakatu be, neure guztia Zeugaz erdi-
bitu baiño.

Ez atsegiñean ez atsekabean, ez nago gizona-
kaz, Zeugaz soillik baiño. Bildurti nozu bizia emo-
teko, ta origaitik ez dot neure burua bizitzako ur
andietan egozten.

81

Nik bai egun nagi askotan biotzean min alpe-
rrik galdutako aldiagaitik ! Baiña, egiaz galdua
izan da, Jauna, bein edo bein? Zuk ez ete dozu
euki, unero, nire bizia zeure eskuetan ?

Gauzen biotzean gordeta, Zuk ifiutzen dozuz
aziak pinport biurtuaz, eta lili-moteak lora, ta lo-
rak arnari.

Ni lo nengoan, abaildua, neure oe zabarrean,
eta ezer ez nengiala uste nik. Esnatu nintzan goi-
zean, eta lora arrigarriz beterik ikusi neban neu-
re baratza.

82

Aldia, ene Jainko, muga bagakoa zure eskue-
tan. Nok zenbatuko ete zure miñutuak ?

Gauak eta egunak ba-doaz, urteak edegi ta
gero zimel, loren antzera. Zuk ba-dakizu itxa-
roten.

Zure eun-urteak ba-datoz, urrenez urren, ze-
laiko loratxoa osoagoturik.

Baiña guk ezin dagikegu galdu geure aldia,
eta geure abagunetara buruz beera jo bear. Txi-
roegiak gara berandu eltzeko !

Eta taiu orretan, aldia (denpora) ba-doa, su-
minkor samar eskatzen daustienai nik emon ta
emon diardudan bitartean. Eta zure opamaia,
orrela, eskintza bat bera bage daukazu.

Arrastian, arin-zur nabil, zure ataria itxirik
ez ete daukadan bildurrez. Baiña ni beti eltzen
naz, sasoiz, tertzioz.

83

Ama, txirlarrizko katea egingo dautzut nik zeure samarako, neure oiñaze-malkoz egin be.

Izarrak argiz antolatu ebezan zure oiñetako estunak ; nire katea, baiña, zeure bularrerako izango da.

Aberaski ta ospe Zugandik datoz, eta zuk emon zengikez edo ez, zeure aldarte ta gogora. Baiña nire lorra neure dot bakar-bakarrik, eta nik eskeintzen dautzudanean, zuk zeure eskerrez ordaintzen daustazu.

84

Alkarregandik banandu-bearraren arantzak zultzen dau mundua, eta zenbatu ezin aiña itxura ta era sorrerazten ditu zero amaigean.

Aren oiñazea da nunbait gau-izarrak ixil begiratzen dauazana, garagarrillaren itzal euritsuan osto marmarioz liriku biurtzen dana.

Aren naigabea da gauza guztien gaiñez edatzen dana, maitasunean eta egin-leian, giza-sukaldeetako nekaldi ta pozetan sartzen dana ; nire olerkari-biotzetik, kant 1 zipristiñetan dariona.

85

Burrukalariak euren jaunaren gudaletxetik urten ziranean, nun ostendu ete eben euren indarra, nun itxi ebezan euren babeski ta iskilluak ?

Orriuldu - deshojar
Otzara - cesto
Padar - ermitaño
Padura - marisma
Pirilika - dando vueltas
Saldo - grupo
Soildu - ponerse calvo
Suil - abandonado
Tilinga - cilumpio
Txanpaka indi zugazño
Txaramelo - remolino de
viento

Txigor - tostado
Tximika - lastima
Txinbo - colurnpio
Txirtxil grill°
Urubi - aullitlo
Usa - monte comun
Utsarte - tiempo libre
Usula - herrada
Zilimala embrollo
Zimera - cesta
Zirgit egin - estremecerse

ARKIBIDEA

	Ori- aldia
Rabindranath Tagore	5
ILLARGI BARRIA	
Sukaldea	11
Ondartzetan	12
Iturria	13
Orrela •dozu umea	14
Erronda ikus ezina... ..	15
Lo-lapurra	16
Asiera	17
Umearen mundua	18
Noiz eta zegaitik	19
Izen txarra •..	20
Epaillea •..	21
Jostailuak 21
Izarlaria •..	22
Odeiak eta olatuak •..	23
Txanpaka-lorea	24
Maitagarrien lurraldea •..	25
Erkatuaren aberria	•.. 26
Euri eguna	•.. 28
Ingizko ontrziak	29
Arrantzalea	30
Beste ur-ertza	31
Loraen ikastola	32
Merkataria	33
Ereguak •..	34
Barne-deia 35

Nagusitasuna	36
Gizontxoia	37
Amabiak	38
Idazlea	39
Karteru txarra	40
Gizurena	41
Atzena	43
Deiez	44
Lenengo jazmiñak	45
Pikondoa	46
Onespen	47
Bezua	48
Nire leloa	48
Ume aingerua	49
Azkenengo egiunea	50
BARATZE-ZAIÑA	53
LIRIKU ESKINTZA... ..	113
Iztegitxoa	173